



## NEURE LAU URTEKO IBILLERAK

Jose Maria Etxaburu «Kamiñazpi»

Iturria: *Neure lau urteko ibillerak*, Jose Maria Etxaburu. Auspoa, 1989

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxaburuJMIbillerak.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## OARRA

Jose Etxaburu'k 1963 urtean idatzi zuan bere liburu au. Orduko politika-egoera danok dakiguna izanik, illunpean gorde bear izan zuan urte askotan.

*Zer* aldizkariak argitaratu zuan lenengo zatika, 1984'ko Iraillean as<sup>o</sup> eta 1986'ko Urrian amaitzeko.

Baiña dana batera eta liburu-gisa agertzea ere merezi zuan, eta orixe da Auspoa liburutegiak bere irakurleei gaurkoan eskeintzen diena, gustoko irakurgaia izango dutelakoan.

**A.Z.**



## ITZAURRE-GISA

Liburu au ondo ulertuko bada, noiz egiña dan esatea komeni dala derizkiot. Orain ogei ta bost urte, 1963'an alegia, idatzi zuan Jose María Etxaburu adiskideak.

*Zer* aldizkariak argitaratu zuan lenengo, zatika noski, 1984'ko Iraillean asi eta 1986'ko Urrian amaitu. Baiña dana batera eta liburu-gisa agertzea ere merezi zuan, eta orixe da Auspoa liburutegi onek bere irakurleei gaur eskeintzen diena.

Izenburuak esaten duanez, bere bizitzaren lau urteko gertaerak kontatzen ditu egilleak: 1936'tik 1940'ra. Gerra-urteak, beraz, leenengo irurak. Baiña gerra konturik ez dago emen. Jose María Etxaburu'k ez baitzuan eskuan armarik artu. Gaixorik egon berria izanik, mugaz beste alde-ira iges egin eta an bizi izan zan, ogia al zuan bezela irabaziz.

Erbestea nolakoa dan, millaka euskaldunek ikasi bear izan zuten orduan, batzuek Frantzian eta besteak Ameriketean. Nundik nora ibili ziran eta zer gertatu zitzaien, makiña bat aldiz entzun izan degu beren aotik. Idatzi, berriz, oso gutxik egin dutela esango nuke.

Oroipen-liburu auek, bere ibilleren berri emateko moldatu oi ditu egilleak. Baiña berak korritutako bideak beste askorenak ere izanik, gertaera kolektibo bat ikus arazten digute. Eta orren garrantzia ikusiko ez duanik ez da.

Oso ibilzalea izan da beti euskalduna. Euskalerrria txikitxoa izanik, munduan zear sakabanatu gera. Baiña gure griña orrek oso lan gutxi eragin izan du moldiztegietan. Beto, beraz, Jose María Etxaburu'rena bezelako liburuak, gure literatura eta gure kondairaren ornigarri.

**A. Z.**

## GAIXORIK

España'ko 1936'garren urtean asi zan anaia arteko gudea zala-ta, banakaren batzuk izan ezik, gazte guztiak eskuetan izkilluak zituela ibilli bearra izan eben. Ta asko, gudegaz gaiñera, Prantzia'ko basoetan piñu ebagiten eta España'ko ta Prantzia'ko kanpo konzentraziñoietan be egon ziran.

Nik gudeari iges egin neutsan; baiña piñu jaurtitea ta España'ko kanpo konzentraziñoi ta laneko batalloiak ezagutu nituan. Ta orduko kontuak esanaz neure kondaira txikitxu bat idazteko gaia ba-daukadala ikusirik, lantxo au egiteko asmoa artu dot.

Gaixorik egon nintzan, 1935'garren urteko azken aldeak eta urrengo urteko asiereak egiten eben neguan.

Goiz baten, Bartolomeo Scola italiarraren arrain kontserba lantegian lanean nengoala, ogetabost urte lanean egindako tokia, ondoeza sentidu neban; buruko miña ta otzikarea. Ta lanerako gauza ez nintzala ikusirik, etxera joan eta oean sartu nintzan.

Ordurarte, edonork euki oi daben egun bat edo biko ondoezak bein baiño geiagotan eukita nengoan, baiña gauza andirik bein be ez. Mendian ostutako eldu bako sagar txikiak kok egin arte janda, koliko andia izan neban bein; eta osagillea ekarri eustena gomutaten naz. Baiña, bestelan, ordurarteko nire ondoezak, egun bat edo bestean ikastoleari iges egitekoak bakarrik izan ziran.

Baiña lanetik ezin egonda joan nintzaneke ondoeza bi edo iru egun oean egonda be ez zala arintzen ikusirik, Don Luis osagilleari deitu eutsan gure amak.

Ez dakit zer esan eban nire gaixotasunaz osagilleak. Egunero etorten jatan; eta egun baten, osagillea etorri jatala ikusi ebanean, ate markutik zelat egin eban gela barrura alboan bizi zan nire koiñatu Lorentzo'k.

Lorentzo, nire arreba Justina'gaz ezkondata egoan 1931'garren urtean. Arraunlari indartsua, treñeruan ainkakoa izan zan; eta 1925'garren urtean eta urrengo urtean sei estropada jokatu zituen Bilbo'n eta Donostia'n, eta seirak irabazi.

Osagilleak, ikusi ebanean, «Hola, Lorentzo» esanaz agurtu eban; eta zer zala-ta etxean arkitzen zan itandu eutsan, arrantzan Pasaia'tik ibiltzen zan da. Gaixorik, sukarragaz egon zala, erantzun eutsan nire koiñatuak.



Jakiña, erantzun ori argibidea izan zan osagillearentzat, eta neu be arek kutsatuta gaixotasun aregaz egongo nintzan susmoa egingo eban kontixu. Beintzat, egun aretan ez bazan biaramonean, neuk be sukarra neukala konturatu zan eta esan euskun. Ta an egon nintzan ogei bat egunean oetik jagi barik, gaixotasun ari egokiozan erremediak egiñaz.

Jagiten asi ta gero be ez nintzan ezetarako, zearo aulduta geratu nintzan da; ta sendotzen beste illa bi inguru egin nituan.

Gaixoa beti da txarra etxean, baiña batez be beartsuen etxean eta aldi areitan. Gaur be laguntasun andirik ez dogu izaten olakoan langilleok, eta orduan laguntasun txikienik be ez. Alogerik irabazi ez eta osagillea ta osakaiak geuk ordaindu bear oso-osorik; ta, orretzaz gaiñera, aetik asko emon bear. Alan be, iñoren laguntasun premiñarik ez genduan izan, naita neu izan etxeko gizonezko bakarra.

Ordurako ta asko lenagotik aita barik gengoan. 1926'garren urteko Otsaillean il zan min biziagaz Bilbo'ko ospitalean, eta antxe obiratu eben. Ama ta sei anaia-arreba giñan. Lau arreba ni baiño zarragoak ziran eta bat gazteagoa. Beraz, seme bakarra nintzana esan bearrik ez da.

1936'garren urtea ez zan on-ona izan neutzat. Beintzat bigarrenez gaixotu nintzan. Nire gaixotasun au edestuteko San Juan'etatik asiko naz.

Ondarru'tik ia ordu beteko bidera, Berriatua alderuntz ezkerretik, Gorozika basetxe auzoa dago mendi goian. San Juan Ebanjelistaren elizatzaxo bat dago bertan. Ta, jakiña, alderdi aretako baserriarrak deun ori dauke euren zaindaritzat, eta egun ori jai egiten dabe.

Ondarrutarrak joera andia izan dabe San Juan egunean Gorozika'ra joateko. Ni mutil txikia nintzanean, urtero joaten nintzan aitagaz, arrebarren bat geugaz zala. Txikitxua nintzanean, axe izaten zan nire poza bertara joateko! Egunak aurretik, zenbat lo geratzen ziran San Juan egunerako zenbatuten egoten nintzan. Ta, eguna eltzean, abarketa zuri barriak jantzi ta an joaten giñan.

Orduan asko izaten ziran an bertan bazkaltzen ebenak eurak eroandakoa janaz, edo senide edo bezero ziran baserrian bazkari ederra egiñaz.

Gu beti etxera biurtzen giñan bazkaltzera, errozka batzuk erosi ta sudur zapi edo pañuelo baten kordan sartuta.

San Juan eguna, aldi areitan, guztiz alai izaten zan; urteko egunik alaiena. Eta ez daigun uste izan, Gorozika'n naikoa jan eta edaten ebena izaten zala bakarrik. Errian be bardin izaten zan. Mariñelak orduan, euren arrantzu partilletan, udabarrian, San Juanetarako diru apur bat lagaten joaten ziran; eta neguan, aratuzteetarako. Ta merienda, oju ta dantza ta auresku, alaitasuna gaiñezka ikusten zan. Gaiñera, San Juan egunak

ezer bearrik ez dauko egun pozgarria izateko. Urteko aldirik ederrenean dalako, neguan otzak kikilduta gagozanean, beragaz gomutaten gara. «Noiz etorriko dira San Juanak?» esaten dogu.

Orain, Ondarru'n, erdi jai egiten dogu San Juan eguna; goizean beintzat lana.

Guda ezkeru nagusi gitxi joaten zan Gorozika'ra; umeak bai, umeak bidea betean joaten ziran; baiña azkenengo bi edo iru urteetan bat-batean itxi dau Gorozika'ra joatea gaztediak. Orain ez da iñor joaten. Naiago dabe ondartzara joan eta igari egin.

Lenago esan dodan urtean, 1936'garrenean, Gorozika'n izan giñan San Juan egunean Lorentzo koiñatua ta biok. Urte aretako udabarrian oporrean egon ziran Pasai'ko arrasteruetako arrantzaleak; eta Lorentzo be, angoetakoa zan da etxean egon zan bi edo iru illabetean, gudea asi arte, ez irabazi ta ez ezer.

Olan, bada, bazkari eder bat etxean gertu euskuen eta an joan giñan. Illuntzean ez neban apaldu, beteta nengoala-ta. Ez zan mirari egitekoa, nik jan neban beste okela ta abarregaz! Urrengo egunean be ez neukan gogorik jateko; oindiño betekadea-edo neukan. Biaramonean okerrago oraindik; min artzen neban barrean, gerriko zulo inguruan, batez be atzaparrakaz bulltzauta. Urrengo egunean be bardin; bardin ez, gero ta min geiago. Lanean niarduan; baiña San Pedro eguneko, oean sartu bear izan nintzan.

Bigarrenez oean urte barruan!

Ta asi giñan barrero osagillea etxera ekarten. Egunak etorri ta egunak joan, nitzat ez egoan obeagorik. Nungo obeagorik? Oean zirkiñik ezin eginda nengoan. Barruan zauriak eukita lez, «ail» esan eragiten eustan zirkin txikienak be.

Osagilleak ez eban ezer esaten. Zerbait asmau bearra egoala gure amak ikusi eban, bestelan nireak egin ebala-ta, ta Donostia'ra eroan nai ninduala, osagille andiagoren bategana, esan eutsan Don Luis'eri, ta ea zer ereitzen jakon. Don Luis'ek ondo artu eban gure amaren naia.

Egia, nik neuk ez neban gauza txarrik pentsauten. Ta asi zan ama Donostia'rako osterea gertuten, batez be nitzat zein osagille izango zan ona jakiten. Laster jakin eben ori. Lerenbur'engana (*Leremboure*) eroango ninduen. Lerenbur onen izena ezaguna zan gure etxean lenagotik be, gure ugazabaren bi edo iru seme-alabai berak ebakuntzea egin eutselako.

Ta Garagarillaren (Gipuzkoan Uztaila) 15'ean edo 16'ean tasisean eroan ninduan, Lerenbur'ek ikusi nindeian.



Onetan zori edo suerte ona izan genduan. Egun bat edo bi atzeratu bagiña, matxinadeak etxean atrapauko ninduan; eta lenengo egunetan, iñora ezin joanda, Donostia'ra ez beintzat, an Loiola'ko gudariak Gobernuaren aurka jagi ta erri osoan tiro ots andia zan da, nireak egingo eban.

Gutziz ondo joan nintzan beribilean, gaixorik ez bainengoan (ez banengoan lez), ez miñik eta ez ondoezik. Alako biotz biztu aldia neukan.

Mertzedes arrebea geukan zain Donostia'n. Au Don Ramon Sierra'ren etxean neskame egoan.

Nik, oean sartu nintzanetik, neure arpegirik ez neban ikusi ispilluan eta ez dakit zelako itxurea neukan. Baiña lenengo Donostia'n ikusi ninduean, bildurtu egin ei zan Mertzedes. Alan esan eustan berak geroago, osatu nintzanean.

Dana dala, ez dakit nundik atara nituan indarrak; baiña berebilletik jatsi ta bakarrik, iñori eldu barik, sartu nintzan Lerenbur'en gaixotegian.

Ta ordutik laster an gengoan osagillearen aurrean. Prantzes euskalduna zan eta, jakiña, euskeraz berba egin genduan. Ama ta bion artean esan geuntsan gaixotasunaren gora-bera guztia. Eta asi zan neuk esandako tokian atzaparrakaz bultz eta bultz. Eta bultzada baktotxean neuri begiratzen eustan, ezelako muzein keiñurik egiten ete neban. Ta ea miñik artzen neban itandu eustan. Ni, baiña, ixillik. Geroago be bardin; jaramonik be ez bere itaunai. Ez nekian zer esan be-ta. Len, ia iru astean, iru aste luzean, kendu barik euki neban miña, orduan, jakin bearra egoanean, atzaparren bultzadakaz be ez neban sentiduten. Ta nik, sentiduten ez nebala, baietzik ezin esan. Ta miñik ez nebala artzen be ez neutsan esan nai, bestelan gatxa nun neukan ezin izango ebalá igarri ta.

Ta ez neutsala erantzuten ikusirik, Lerenbur'ek amari nigaitik diñotsa:

— Gorra al da?

Barre purrustadeak urten eustan orduan.

Ta asi nintzan berbetan: egun aretan ezer miñik ez nebala sentiduten, ez nekiala zegaitik, baiña besteetan antxe artzen nebala min, ikutu utsagaz.

Ebakuntza txiki bat egin bearra nebala esan euskun, eta bertan geratu bear nintzala; ta oean sartu ninduen.

Ta bereala ikertuten asi jatazan Donostia'ko senideak, ixiko Prantziska ta bere seme-alaba Santa Cruz anai-arrebak. Euretako bat, anai zarrena, Teodoro, orduan eta gaur be bai Gantxegi'neko kontularia, olako zerbait entzun edo irakurrita egoan. kontixu, ta nire gaixotasuna neure begitanziñoia zala esaten, neu aspertu arte jardun eustan.

— Orduan, osagilleak niri ezer ez daust arkitu —erantzun neutsan.

Andik egun bat edo bira, neure gelan abadea sartzen ikusi neban eta estutu egin nintzan, arnasea apur bat geratu edo. Baiña bereala nasaitu ninduan. Ez ei neukan gaixotasun andirik, arriskurik iñundik be ez. Oiturrea zala ebakuntzea egitera joiazanak autortzea bada-ezpadan be. Ta autortu nintzan. Ain zuzen, negu aretan Ondarru'ko neskaitillai gogo-jardunak emondakoa zan abadea. Ta nai beste kontu esan genduan. Jaunartu be egingo neban kontixu, baiña onegaz ez naz gomutaten.

Autortu ta urrengo egunean, ebakuntza eguna neban. Gurdian eroan ninduen. Nasai joan nintzan; kezka txikienik be ez neban eroan. Bildotxa ta oilloak lotzen diran lez lotu ninduen, eskuak eskuakaz, oiñak oiñakaz; eta gero eskuak eta oiñak maiko kakuetan lotu eustezen. Gero, kazu antzeko tresna bat musturrera urreratuta, kloroformoa emoten asi jatazan.

Zer zan a! Ito egin bear! Norbaitek beso sendoakaz samatik eldu ta urpean ito arte eukitea beste izan zan a nitzat. Gero, ekatxak ataraten daben soiñu zoliaren antzekoa, baiña milla bidar andiagoo, entzuten neban. Ez dakit zenbat denporan egon nintzan alan. Danetara be segunduren batzuk izango ziran kontixu. Baiña bai luzeak! Gero ezer be ez. Lo nasai.

Ta egin bear eustena eginda gero, esnatu nintzan. Gau luzean lo osoa egin da geiago logura barik leun-leun esnatzen danaren antzera, begiak iragi nituan. Gora begira nengoan eta zati txikiz egindako ixpillua ikusten neban. Min txikienik be ez neban nabaitzen; neke txikienik be ez neukan.

Osagilleak ordurako alde eginda egozan. Lekaima ta osagille laguntzailleak egozan azkenengo zeregiñak egiten. Ta nigazko egiteko guztiak egin zituenean, artu ta barrero lengo oera.

Ta apurka, lengo estutasunen gomutea burura etorri jatan eta negarrari emon neutsan; ez ozta-ozta malkoak, zotinka ta anpuluak atarata baiño.

Orduan, gasak txotxinduta nengoala esan eban lekaime edo baten batek. Baiña ez da egia. Gaur be ez naz aztuta estutasun aregaz; ta orduan gogoratu utsak ikaratuta nindaukan. Ba-dakidala uste dot itotea zer dan.

Gerrian, ezker aldean, erditik atze aldera, amar zentimetro inguruko ebagia egin eusten, erdia josita ta beste erdia josi barik gasa barruan nebala lagaurik.

Ebakuntzea egin eta ezaguerara etorri nintzanean min edo oiñaze txikienik be ez neukala len esan dot; baiña apurka, asi jatazan miñak, eta jaurtiteak be bai. Biazturnak be atara egin bear. Egun bat inguru ez neban ederra igaro.



Ez dakit ziur zein egunetan egin eusten ebakuntzea Garagarrillaren 19'an edo 20'an izango zala uste dat. Au da, gudea asi zan egun inguruan.

Ebakuntzea egin eta pare bat egunera, Lerenbur'ek, atzaparrakaz eldu ta ebagi barruan neukan gasa tiraka atara eustan. Ta dindilizka begien aurrean ipiñi ta ondo begiratu ta aztertu ostean, alako poz bategaz esan eban:

— °Bien, bien!

Ebakuntzea egin eustanean, nire gaixotasunaz berbatxu batik be ez euskun esan; eta, ondo nengoelakoan, ezeren kezka barik gengoan. Baiña alan ez ziran gauzak. Itxurea zanez, osagilleak ba-eukan kezkea; ta orregaitik, zer ikusiko begiratu eutsan nire zauritik ataratako gasari, ta loiaren kolorean jakin eban nire gaixotasunak onera egin ebal. Ta orduantxe esan euskun guri, ebakuntzeak ondo urten ebal ta ondo nengoala. Gu ordurarte be nasai gengoan, baiña ori esan euskunean poztu egin giñan. Jakiña!

Nik ez dakit ziur zer gaixotasun euki neban. Modu bitara entzun neban. Bat kuntzurrunetako zornea; bestea esteetako tuberkulosisa. Zana zala, zornea ugari zan eta ebagitik urten eban danak. Gerri biran lotzen eusten zapia, blei-blei kanporaiño busti zan egun askotan. Nire gatxa zer izan zan, guri baiño obeto nire lantegiko nagusiari, Scola'ri, azaldu eutsan Lerenbur jaunak.

Bein ebakuntzea egin eusten ezker, beti era batera egoten nintzan oean. Beti albokera, eskumara begira, zauria ezkerrean neban da. Gora begira ortxe ta ementxe izaten zan; baiña ezetara be ezin ezkerretara begira jarri. Ta iñoiz, beti era batera egoten nekatu ta ezker aldera bira naian asten banintzan, tenaza andi batzuk gerrian inkau baileustezen sentiduten neban.

Baiña an ziran kontuak! Beti era batera egoteak, egunak joan eta egunak etorri alderdi baten gaiñean egoteak, zearo nekatu ninduan. Nekatu bakarrik ez; gorputza mindu be bai. Azur utsetan nengoan eta mokor urtena guztiz mindu jatan. Ta miña arindu naian, esku biakaz oeari beruntz bultz egiten neutsan, eta jaso mokorra. Baiña ori egiten neban bakotxean, apur bat bada be aurrera egiten neban begira nengoan alderdiruntz, ta denporegaz ia oetik jausi bearrean geratzen nintzan; eta, amari deituta, oe erdian ipinten ninduan. Egunez eta gabaz, bi edo iru ordutik bi edo iru ordura egin bear izaten eban amak zeregin au.

Osatetxean egon nintzan denpora guztian, ondoan euki neban ama. Ni nengoan gelan ba-egoan beste oe bat be. Baiña an lo egitea ordaindu egin bear zan, eta ori barik be gastua naikoa izango zala ta, silloe andi bat

lekaimeak ekarri eutsan eta antxe lo egiten eban. Alan, bada, an egon nintzan denpora guztian, gure amak ez eban oean lorik egin.

Nire ebakuntzea baiño egun bat edo bi lenago, España'n matxina-dea sortu zala jakin zan. Batetik olako zerbait itxaroten gengoalako ta bestetik azkenengo urteetan matxinadakaz oituta be bai, albista arek ez eustan arrararik eragin. Gaiñera, lenengoan Donostia'n ez zan ezetariko asarre ta iskanbillarik.

Baiña ebakuntzea eginda laster asi ziran tiroak, eta ez gitxi be. Batez be egazkin bat, arerioen egazkiña, igaroten zanean, an entzuten zan esko-peta ta pusil tiro otsa! Nik ez dakit Lerenbur'en osatetxea nun egoan; kanposantu inguruan zala-edo entzun neban, baiña tiroka ebiltzanengandik urrun ez egoala bai, esan daiket. Beintzat, tiro asko ez ziran urrunetik igaroten, euren soiñu zoliak esaten ebenez. Jai arratsalde baten, neure arreba Mertzedes'egaz batera, Donostia'n neskame egoan ondarrutar bat etorri zan neu ikertzera: Don Andoni Bastarretxea abadearen arreba zarrena. Ta an entzuten zan tiro otsak bildurtuta, burkoa buruan ebal egon zan arratsalde guztian. Ain zuzen be, arratsalde aretan bala bat sartu zan Lerenbur'en osatetxean, ni nengoan gela ondoko ataditik barrura ta beko olean tronpa soiñua lakoa ataraten asi zan; eta, ori entzunda, len aitatutako neska biak balea artzera urten eben. Baiña eurak esan ebenez, bai laster laga be, atzaparrak erretea nai ez baeben.

Tarteka, ondarrutar mutil gazte batzuk etorten jatazan neu ikustera. Donostia'ra burrukara joandakoak ziran, eta zauritutakoak osatetxera erooten ebiltzan. Nunbait, ondarrutarrak zirala esaten eben; eta orduan, euren erritar gazte bat be ba-egoala an gaixorik esaten eutseen-edo, beintzat an etorten jatazan.

Sekula ez naz izan tiro, matxina edo guda zale, ta orduan gitxiago. Loiola'ko gudari etxetik goizeko bostetarako asiaz jaurtiten zituen kañoi danbadak esnatzen ninduen egunero, ta aspertuta nindauken.

Matxina-dea asi ta egun batzutara, Lerenbur Prantzia'ra joian albistea jakin genduan. Lenengoan, gauzak baketu arte izango zala uste izan genduan. Baiña ez; osatetxea betiko lagaten ebal Lerenbur'ek esan euskun lekaimeak. Oneik prantzesak ziran.

Betiko laga ainbat urtean berea izandako osatetxea! Ori egitera a joateko, gauzak ez egozan ondo. Bera joatea gu gaixoontzat kaltegarri izango ete zan kezkatu be egin nintzan. Ta an joan zan, ta lekaimeak be bai.

Ni oean bular erdi inguruan miña, miñ apurra, sentiduten asi nintzan, eta barriro ebakuntzea egin bear izango eustela uste neban. Baiña ezegaitik be ez eusten geiago ebakuntzarik egingo niri. Lengo estutasunak



gogoan neukazan; ta il naiago neban, barrero ebakuntza maian etzun baiño. Bai milla bidar!

Ta etorri jatan osagillea, Lerenbur'egaz batera egoana, Jaén jauna. Ondo begiratu eustan eta ezer ez neukala esan euskun. Euki be ez neukan. Lengo nire gaixotasuna obetoago joanaz, nire min guztiak be alden-du ziran.

Ni, umetan ezik, gogotsua izan naz jaten beti. Ta ebakuntza eginda laster, en egoten nintzan ekarten eustena aguro garbitzeko prest. Baiña jatekoak guztiz astuntzen eustan urdailla. Arriz beteta baineukan geratzen jatan. Ta, oe gaiñean jarri (jezari) ta jaten nengoala, barrua astuntzen joiala konturatzen nintzanean, aringa-aringa iruntsiten asten nintzan eta txirindulariak euren lasterketea amaitzen dabeen lez amaitzen neban jatordua, esprintean. Ta, azkenengo koillarakea edo danadalakoa aoan sartuaz batera, txirristadan oe barruan sartzen nintzan, eta zabalen-zabal gora begira jarri, atsedendu neintean.

Donostia'ko tiro ta danbadak amaitu ziran, baiña ango gaixo etxeetara zauritu asko ekarrean. Ni nengoan tokira be bai; ta ondo niñoiala ikusirik, etxera joan bear nintzala agindu euskuen. Zauritutakoentzat toki egiteko kontixu. Ta gertuten asi giñan. Berebillera oiñez joateko gauza ete nintzan jakin bear genduala ta, saioa egin bear genduala amak esan eustan; ta, berak lagunduta galtzak jantziak, jagiten asi nintzan. Ez nintzan zutinduteko gauza; ta, oiñak lurrean ipiñita, gorputza beruntz joian, trapu utsezkoa bainintzan (izan banintz lez). Zutiñik egoteko gauza ez nintzala ikusirik, oean sartu ninduan amak.

Baiña ez zan ori estututeko gauzea. Ez dakit egun aretan ala biaramonean urten genduan osatetxe aretatik, ogei egun inguru bertan eginda. Bizkai aldera berebil bat zala joateko norbaitek esan euskun. Ta eroango ginduzala esan eban eta gertutu giñan etxerako. Osatetxean mutil gazte bat egoan lanerako, ta aretxek artu ta airean eroan ninduan berebillera. Zenbat kilo ete neukazan nik orduan, ain gaixo andia igarota, osasunez ondo nengoanean berrogetamazazpi kilo inguru izaten banintzan?

Matxinada denpora aretan ikurriñakaz ibiltzen ziran berebillak: batzuk errepublikearen margokoak, beste batzuk euskaldun ikurriñagaz. Gurea, ain zuzen, euskaldun ikurrinduna zan eta pozik biurtu nintzan etxera, Ondarru'ra. Ogei egun lenago eriotz bidean niñoiala eroan ninduen, eta orduan osasun bidean sartuta biurtzen nintzan. Errira eldutean, aulki baten artu ta etxera igo ninduen.

Ebakuntzea ta gastuak sei milla erreal inguru izan ziran, eta Mertze- des arrebeak ordaindu zituan.

Agur, ainbat urtean kanpoko ogia janda irabazi ta gero bear izango zituan neska gaztearen diru ederrak!

Diruak damu barik atara zituan.

Etxera eldu ta egun batzutara, asi nintzan oetik jagiten eta laster kale- ra urten neban. Asieran ezkertera okertzen nintzan, baiña luzaro baiño len joan jatazan gaixo itxurak. Ta jan eta ibilli, ba-niñoian sendotzen.

Denpora aretan, gudea baiño beste zer esanik eta buruausterik ez zan. Lenengoan, uste ez zan beste joian luzatzen. Gitxienez beste illa bi iraun- go ebala esan eustan norbaitek egun baten, eta ez ninduan asko poztu.

Baiña luzatu edo ez, ez geunkan ezpairik nor izango zan irabazle. Madrid'ko Gobernuak galdu eikeanik, bein be ez jakun burura etorri orduan.

Baiña kañoi danbadeak entzuten asi giñan. Irun ingurura eldu zira- nean, konturatu giñan zeintzuk aurrera egiten eben. Ta kezkatzen asi nin- tzan. Izkillua eskuetan artzeko gogo andirik ez neukan. Beti izan naz bil- durtia, ta bizia galtzeko arriskuan sartzeak ikarea emoten eustan. Gaztea nintzan; baiña asko pentsau barik zoro-moro ez neban izkillua eskuan artuko, orretara iñok beartu barik.

Geroago ta urrerago etozan Gobernuaren arerioak. Irun artu ta laster, Ondarru'n, Arta deritxon tokitik, *Almirante Cervera* guda itxasontzi andiak Donostia inguruko zerbaite zelan bonbardeaten eban begira egon giñan.

Donostia frankotarrak artu eben aurreguneko gabean, ikusi neban benetan gudea gaiñera etorkigula. Aldi aretan San Juan Txurru iturri ondoan bide-zabal ondoan bizi nintzan. Ortik nire idazle lenengo den- poretako *Iturri-ondo* izen ordea. Ta oean sartuta laster, erretiradan etozan berebillak igaroten asi ziran geratu barik gau guztian, eta begiak itxi barik jagi nintzan goizean. Geuk be laster norabait alde egin bearra izango gen- duala ikusten neban. Ta nora urten Bizkaia alderuntz, bertan ez senide ez adiskiderik eukita? Poltsikoan bear aiña eroateko moduan egon bagiña be gatxerdi.

Ta oean, neukan buruausteagaz lorik ezin eginda jira ta bira nenbi- llela, egun sentian, atea jo eben: dan, dan, dan! Nortzuk ete ziran atea iragi geuntsan eta Donostia'ko lengusu bi ziran: Santa-Cruz'dar Teodoro ta bere anaia gazteagoa Rafael. Frankotarrak igesi etozan. Igeldo'tik Mendi- zorrotz zear Orio'raio oiñez etorri ei ziran, eta gero kamioe baten sar- tuaz Ondarru'ra. Frankotar gudariak goiz aretan zirala Donostia'n sartze- ko, esan euskuen. Gerotxoago euren ama, ixiko (izeba) Prantziska etorri zan, semeai jarraitzen. Ez naz gogoratzen sendi guztiagaz ala bakarrik etorri zan.



## PRANTZIA ALDERA

Bein gauzak onenbestera eldu ziranean, gauza bat bakarrik neukan buruan: Prantzia'ra iges egin. Osaba bat, aitaren anaia, neukan Ziburu'n, Europa'ko lenengo gudea baiño lenagotik joanda: Donato. Bere emaztea Galalde'tar Maria be ondarrutarra zan. Ez euken seme-alabarik.

Ez geunkan artu-emonik osabeagaz. Amaika urte lenagotik geunkan ilda aita; ta arrezkero, noizean bein Ondarru'ra etorten zanean, kalean-edo ikusten genduan bera, baiña gurera ez zan etorten eta ez giñan ausartzen berari arpegi emoten. Baiña ez nengoan ni orduan kopletarako; eze-lan al baneban, araxe joango nintzan.

Ta lagun artean ori esaten asi nintzan. Lagun batek, Burgoa'tar Esteban'ek —bere aitak, obeto esateko— itxasontzi txiki bat eukan, zortzi zaldiko kubiarta bako *Bi Anayak* izenekoa, ta lenengoan prest egoan Prantzia'ra joateko. Baiña etxean esan ebanean, aitari ez bide jakon ondo iruditu ori; Bizkaia aldera bai, baiña Prantzia'ra ez ebalan nai itxasontzia eroaterik.

Lorentzo koiñatua, gudako zeregiñetan ebillen, Pasa'i'ko arrasteko itxasontzi baten mariñero lez. Ez dakit ziur, baiña len bera arrasteen ibiltzen zan Andonegi'rena zala uste dot, frankotarrak an sartu baiño len kai bertatik ataratakoa. Euren itxasontzian joango giñala Prantzia'ra esan eban, eta arako bear genduzanak gertuten asi ziran etxean. Lau joango giñan batera: len aitaturako lengusu biak, Jauregialzo'tar Jose txistularia ta neu. Ta illundu zanean, gurean gertuketan ziarduen artean, lagunaren etxera joan nintzan eta maletea arturik biurtu giñan gurera. Andik laster Lorentzo etorri zan, guretzat barri txar bategaz: ezin gindeikezala Prantzia'ra eroan onegaitik edo aregaitik. Jakiña, barri txar orrek asko atseka-betu ninduan, eta gora-goraka ipiñi.

Gau aretan Toba'neko itxasontzi bat, arrantzakoa, Prantzia'ra joiala jakinda gengoan ordurako; ta Lorentzo koiñatuak, ori entzun ebanean, gu antxe joateko modua egitera urten eban. Ta laster zan barriri etxean, itxasontzi aretako jaube ta lemazain Paulo Toba'gaz —ezizena au—berba eginda. Paulo'k ixillean nai eban erritik urten, eta lenengoan gogo gitxi erakutsi ei eutsan gu ara eroateko; baiña nire koiñatuaren ekiñari ezeztik ezin emon, eta azkenean be joan geintekezala esan eutsan. Lorentzo'k, Pasaian eukan —ta Jaungoikoak daki eukan ala ez— malleta bat emongo eutsala agindu eutsan.

Biderako jaki apurra ipiñi euskuen etxean, kontserba ta abar, eta gabeko amarrak inguruan urten genduan etxetik. Ez neban uste orduan, lau urte andi igaro arte ez nintzala biurtuko etxera...

Jenderik gitxien ebillen bide ta baztarretatik joan giñan kaira: Zubizar'etik Kale Kurutze'an gora Ipar kaletik Trintxa'n zear. Kai barria egin barria zan orduan, eta oraingo jende ta gora-berarik ez zan an. Gaiñera, ziran argi apurrak be, amatauta egozan, gudea zala-ta. Olan, bada, ia iñor ez genduan ikusi ontzirako bidean.

Itxasontzia egoala uste genduan tokira eldu giñanean, ez zan ezer entzuten itxasontzian eta didar egin genduan. Ez zan erantzunik izan. Baiña moillatik bigarren edo irugarren ontzian, ixilka bada be, berbotsa entzun genduan; eta, geiago barik, bei samar egoan itxasontzira salto egin genduan, eta aurrera joanez, eldu giñan Prantzia'ra eroango ginduzanera. Iñok ez euskun barbarik egin, eta jaubearen baimenez giñoiazala esan genduan, nai ebanak entzun eian.

Gu ara orduko, jendez beteta egoan itxasontzia. Oraindik beste banakaren batzuk be etorri ziran; eta gerotxuago, lemazaiña ontziratu zanean, gertutu giñan urteteko. Moilla musturrean egozan gudariak (militzianoak), kaitik itxasora urtetan galerazoko euskuen kezkea eukan lemazaiñak; eta ezer itaunduten baeben arrantzara giñoiazala erantzuteko ustea eban. Ta ori esan al izateko, ontziaren barrura edo kubiartapera jatsiteko agindu euskun gazteai, eta barratik urten arte antxe egon giñan. Ez euskuen jaramonik egin gudariak. Ta ontzi gaiñera urteteko agindu euskuen, itxaso zabalera urten genduan.

Gitxienez berrogetamar lagun giñoiazan. Geienak mutil gazteak. Andra bat joan zan bere umeagaz. Egia, ez dakit ume bat ala bi zituan. Andra a Txomin Agirre euskal idazle ospetsuaren illoba Teodora zan. Andra ari gizona galdu jakon Bilbo aldean guda denporan, Aranbarri'tar Juan, «Juan Akulu». Aren barririk iñok ez dau emon geiago.

Ondarru'tik urtenda, Bilbo aldera jo eban gure itxasontziak. Lenengoan, Gipuzkoa ta Bizka'i'ko mugan dagoan Kategi'tik Arrigorri'raiñoko bide zatia, erretiradan etozan berebillen argiz beteta ikusten zan. Toki a agirian euki genduan denpora guztian, an etorren berebiltzeari arrituta begira egon giñan. Bada, orduan ez zan orain beste berebillik. Erretirada barriren bat egoan kontixu.

Geldi-geldi giñoiazan. Lenengoan ba-genduan zer esana; baiña loak artu-edo beintzat, geroago norbaitek esnatu ninduan, Matzaku azpian gengoazala esateko. Matzaku esaten dautsoe Matxixako'ri Ondarru'ko arrantzaleak. Alantxe zan; gaiñean geunkan Matxixako, bere argi zartada





indartsuak jaurtiten. Matxixako'ren argi zartadak bein baiño geiagotan ikusita nengoan urrunetik, baiña bat-batean, ain urretik eta gora-bera aretan ikustean, arrarea egin eustan.

Antxe artu eban itxasontziak Prantzia'ko zuzenbidea. Ordurarte, emengo arrantzaleak ez ziran ibilten ango itxasoetan, Bizkai aldekoak beintzat; eta, gero jakin nebanez, azkenengo asteetan ango itxaso ta arako zuzenbidea ikusten ibilli ei ziran gure lemazaiña ta beste batzuk, erriko itxastar kapitan Muniozguren'egaz.

Matxixako'ko argia ikusteko esnatu ninduenetik aurrera ez dakit lorik egin ete neban gau aretan. Baiña beste onegaz bai gomutaten naz: goizean argitu zanean ez zala ikusten liorrik. Goian zerua ta bean itxasoa giñoiazan. Bidean ez genduan itxasontzirik arkitu; urrunetik keiak ikusi bai, baiña besterik ez. Orduko itxasontziak, geienak, ikatza erreaz ibilten ziran; geurea be bai.

Orduak ziran eguña argitu zala, ta alako batean apaxuak itxasora jaurtitea bururatu jaken, jateko zerbait atrapau naian, eta egaluze bat edo beste ontziratu eben. Atunok egosi egin zituen; eta ez olio ta ez ezer, ogia bailitzan, danok jan genduzan. Sagar txiki bat baiño andiangoa ez zan atun zatitxoia izan zan, igande gabetik astearte goizerarte nire ta beste guztien aotan sartu zan jaki guztia. Guk ba-geroan jaki apur bat. Baiña gure maletak itxasontzi barruan sartu euskuezan eta ez genduan iñori ezelango lanik emon nai. Gaiñera, ni beintzat apur bat mariatuta be ba-niñoian. Orrezaz gaiñera, gu jaten eta besteak guri begira ez ziran egongo. Barriornak diñoan arako ogi zati batzukaz ta iru-lau arraiñekaz Jesus'ek egin eban lako miraria bear zan itxasontziko danai, apur bat baiño ez bazan be, jaten emoteko. Orregaitik ez genduan ezer esan eta gure jakiari bakean itxi geuntsan.

Gu itsasontziko atzean giñoiazan, azken-azken, erdi jarrita ta erdi etzunik. Erdal abestiak polito abestuten zituan bat egoan gure artean, Aranburu'tar Jose Mari, *Kantaleko* desizenez. Ta bateko abestiak eta bes-teko kontuak, igarri barik joiazan orduak.

Arratsalde aldera, geroan zuzenbidean, zerbait zurra ikusten neban. Guri bidea galerazo eikigun guda-ontziren bat izan eitekean kezkea etorri jatan. Arrituta nengoan nik ikusten neban a beste iñok ez ikusteaz. Beintzat, iñok ez eban aitatzen. Baiña andik gerora, bidean aurrera egiñaz, lior-rra ikustera eldu giñan; eta nik lendik ikusten neban zerbait a ez zan itxasontzia, farol etxea baiño. Sarritan entzunda neukan Kontis'ko argi etxea; Ondarru'ko arrantzaleentzat, Pontis.

Liorra urreratu genduanean, geldi-geldi eskumara birea egiñaz, Bida-soa andiko Euskal Erri'runtz zuzendu giñan. Ta alantxe, beti geldi-geldi joanaz, gaberdi inguruan Donibane Lohitzun'go kaian sartu giñan, eta ondartzat aurreko zabal unean geratu; ta zerbaiteri lotu ontzia, bertan gaba igaroteko. Gu lez joandako beste itxasontzi bi edo iru egozan.

Ogetalau ordu inguru egin genduzan Ondarru'tik Donibane'ra. Bide ori bear dan lez eginda, lau-bost orduko bidea da. Guk egin genduan bidearen zabalaz!



## ZIBURU'N

Gaba an igaro ondoren, kaiako mailladira urreratu giñan. Maletak eskuratu genduzanean, iragi ta bertan geunkan jakia banatu egin neban ingurukoen artean. Ori ikusita, bat, Egaña'tar Jorje, asarratu egin zan nigaz. Besteai ez bada be, umeai zerbait emon bear neutsala itxasoan, zer jan barik joan giñanean. Zerbait erantzun bear ta, jatekorik ipiñi eustenik ez nekiala esan neutsan.

Bereala moilla gaiñera urten genduan. 1936'garren urteko Iraillaren 23'a zan. Ain zuzen neure eguna; ogetiru urte beteten nituan. Sasoi ederra!

Txertutzeraz joan bear genduala udaletxera ertzazñak esan euskuen, eta an eroan ginduezan. Udaletxea bete lagun batu giñan, eta gitxienez ordu bi egin genduzan, danok txertu ta agiriak erakusten. Ta alako baten urteteko agindu euskuen. Baiña goiko areto aretatik urten arren, kalera urteterik ez zan. Beko burdiñezko ate ondoan polizia bat egoan, alboan gizon bat ebalaz, ta ataria ta arrizko mailladi andia jendez bete genduan.

Bereagaz bizi al izateko aiña poltsikoan ez eukanak, senide (aide) edo adiskideren bat bear eban jaube egiteko, aske urten nai baeban. Bestelan, ez eukan kalera urteterik, ez eukan askatasunik. Orduantxe ziran kontuak! Ni neu ez nintzan asko estutu orregaz, osaba bat neukan an da. Baiña asko, ez diru ta ez iñor, agintariak eroaten eben tokira joan bear izango eben. Poliziaren ezetza entzun ostean, barrura biurtzen ziran batzuk; beste batzuk kalera urtetan eben pozik. Batek *Socorro Rojo Internacional* agiria atara eban; baiña poliziak, irri-barre egiñaz, atzera biurtu eutsan gizajoari, ta an atzeratu zan a be.

Nik gure erriko uraren agiri edo fatura baten atzean artuta neroan osabearen zuzenbidea:

Donato Etxaburu  
*Rue Agorette*  
*Gouchour Baita*  
*Ciboure. B.P.*

Poliziaren ondoko gizon arek erderaz egiten ebalaz ikusi neban; eta, gero jakin nebanez, Isaak Lopez Mendizabal euskaltzale andi ta argia zan, bere aberkideai laguntzera urreratuta.

Nire lagun Jose Jauregialzo'k Ziburu'ko arrantzale baten zuzenbidea emon eban, eta beste barik laga eutsan kalera urtetan.

Ondoren, lengusu biak urreratu ziran poliziarengana. Don Anbrosio Zatarain'en laguntasuna eukela esan eutsen. Jaun au, gu lez, ara joandako bat zan. Egia zan Zatarain onen laguntasuna eukela edo izango ebela; baiña jaun au ezezaguna zan poliziarentzat. Baiña orduan Lopez Mendizabal'ek urten eutsen laguntzera; Zatarain Endaia'n egoala, alako edo olako hotelean, esan eutsen. Poliziak, ori entzunik, laga egin eutsen urtetan.

Andik laster, neu nengoan polizi aurrean. Osabearen zuzenbidea eukan ingi edo papera itxura bakoa iruditu jakon-edo, izan be alan zan da, ez eustan urteteko agindu. Ta niri ezer esan barik beste bategana zuzentzen zala ikusirik, estutu egin nintzan. Nire lagunak an aidetik euki ez ta kalera aske joiazan; ta niri, aitaren anaia an bizi ainbeste urtean da laga ez. Nik ez dakit zertzuk esan nituan neure estutasunean. Beintzat, azkenean be, urten al izan neban lagunen billa.

Itxasontzian joan giñanetatik, geienak ezin izan eben urten. Beste askogaz batera trinketera eroiezala ikusi nituan, gero Mediterraneo aldeko erritxu batera zuzentzeko. Andik aste bi ingurura, barrero ikusi nituan Donibane'n danak, bat ez besteak, bizimodu a baiño Bilbo'ra joan naiago ebela ta. Ta an joan ziran Bilbo'ra. Zenbat bidar damutu ete jaken Prantzia laga bearra!

Areititik Prantzia'n gelditu zan bakarra, Aranburu'tar Jose Mari zan, *Kantaleko*. Urte mordoaz egin eban berak an; munduko bigarren gudea amaitu arte, uste dot.

Prantzia'n España'ko diru paperak (paperezko diruak) ez ebalaz balioko ta batu al izan genduzan zidarrezko ogerleko guztiak eroan nituan, berrogei inguru.

Ez ebalaz balioko? Obe genduan saku bete diru paper euki izan bagendu! Ta diru onezaz geroagoko kontutxo bat: Prantzia aldeko Behobia'n ba-zan gure ixiko Prantziska'ren —lengusu bien ama— andra eza-gun bat: Sonet'en emaztea; ta etxera bialtzeko ezer bagenduan edo etxe-koak gutzat ezer bialdu bearra baeben, bera zan bitartekoa. Muga alde onetara etortea erabagi genduzanean, bertara eroan genduzan zenbait gauza, bear bada guk etxera joan al izaterik ez genduala izango ta, aukera ebanean, berak ekarri eizan ixiko Prantziska'nera. Ta orain iru edo lau urte iru ogerleko bialdu eustazan Teodoro lengusuak. Len aitaturako Sonet'en emazteagandik, geuk lagatako ogerleko batzuk artu zituala, ta diruak zeinena zan ez giñan gogoratzen eta iru lengusuon artean bana-tu genduzan.



Alabak, eurakaz zerbait egin bear dabela-ta dabiltz; baiña bitartean, or dagoz ingi zar artean biraka, orain ia ogetamar urteko iru ogerlekoak.

Poliziakoak aske laga ginduzanean, nire lengusu biak eta ni neure osaba Donato'ren etxera joan giñan. Lengusuak, bereala Endaia'rako bidea artu eben; baiña illuntzea baiño len, biurtu egin ziran, Zatarain jauna ez ebela arkitu ta. Ta antxe geratu ziran gure osabanean. Onen ama ta osaba bigarren lengusuak ziran, nire aita ta ama alkarregaz ziran lez.

Itxasoan egoan osaba; ixiko Maria arkitu genduan etxean. Ez genduan alkar ezagutzen, bein ara bizitzera joan ziran ezkerio ia ez zan Ondarru'ra etorten da.

Illundu zanean, kaian gengoan, Donibane'ko arrantzaleak —Ziburu'koak esatea ia obeto izango litzake— liorreratzan ziranean osabeagaz egoteko. Ez jakon atsegin izan gu ikustea. Beintzat otz agurtu ginduzan. Gudeak, berak nai ez eban alderdira jitea artzen ebalu ikusten eban-edo.

Otz bizi ziran alkarregaz osaba ixikoak. Seme-alabarik ez izanaz gaiñera, beste oker bat be izan eben. Iruzur egin eutsen diru kontuan ango batzuk. Nire ixikok lana egiten eban ardandegi, edo ostatu etxe edo dana-dalakoko jaubeari dirua aurreratu eutseen, milla libera batzuk. Ta koitaduak, biak eskola bakoak, «A» zer zan be ez ekienak, diru artzailleak emon eutsen agiritan, zordun agertzen ziran. Ta dirurik ez eutsela biurtzen ikusi ebenean, lege gizon bategana jo eben, baiña bai alperrik! Orduantxe jakin eben ostatu jaubeak egin eutsen maltzurkeria. Ta onegaitik be, alkarrerri errua jaurtiten.

Errukia emoten eustan ixikok. Ez zan erreza, arek baiño lan geiago egiten eban eta bere buruari gitxiago opa eutsan andra bat arkitzea. Irurogei urte inguru izango zituan, eta etxeko lanaz gaiñera egun guztian arrain lantegian lan egiten eban. Ta txori txiki batek baiño geiago ez eban jaten. Koillarakada bi berakatz sopea jan orduko, geiago ez ebalu bear eta geratu egiten zan. Ta alan be, andra sendoa egoan. Sekula ez neban kale-ara egurastutera urtetan ikusi. Ta gaiñera on-ona zan. Onegia be bai. Koitada bat. Orregaitik, alako andra bat azpiratuta ikusteak tamaldu egiten ninduan.

Gugandik iru-lau egunera, ixikoren anaia bat eta bien illoba bat etorri ziran, Garalde'tar Urrufiño ta Garalde'tar Karmelo, Urrufiño «Pintto-rea» ta Karmelo «Samar», Ondarru'kuontzat.

Ni osabearen kontura bizi nintzan, eta beste barri biak ixikoren kontura. Lengusuak, eurak ordaintzen eben, Zatarain jaunak bialtzen eutse-nagaz. Illean 500 laurleko ala libera ziran ez dakit: bialtzen eutsena. Libera, ziurrago. Ixikok ordaintzen eban gastuen kontua, Teodoro'k eroaten

eban; eta astearen azkenean, zenbat lagun giñan, ainbeste zatitan banatuzan. Ta ordaindu bear ebenak, eurena ordaintzen eben ta kito.

Baiña ixikok ezin eban iru lagunentzako kontua luzaro ordaindu, ta berak eta anaiak Bilbo'ra bidean ipiñi eben euren illoba Karmelo. Gazte arek, etxetik urten baiño lentxuago, samintasunik andienagaz esan eban edo esan eustan, bada biok bakarrik gengoan gelan:

— Olako markarik! Gudeari iges egitearren ona etorri ta orain gudara!

Ez zan arritzekoa gazte aren esana. Bost joan giñan gudearen igesi etxe aretara, ta bera bakarrik biurtzen zan izkilluak eskuetan artu ta bizia arriskatzera.

Guk, iru lengusuok, urtebete inguru egin genduan etxe aretan, piñuetara joan arte. Ixikoren anaia, Urrufiño, sei zazpi illabetean egon zan an. Ondarru'tik iges egitean, emazte gaztea iru seme-alabakaz laga eban errian. Baiña frankotarrak, gizonak iges egin eben sendikoak, danak ez baiña naikoak bai, guda mugatik aurrera igaro eragiñaz, Bilbo aldera bialtzen zituen gure errian. Nire arreba Justina be, bere bi alabatxuakaz, bialtzekoen artean egoan; baiña Mertzedes arrebeak geratu eitezan lortu eban, bere nagusi Sierra jaunaren bitartez. Ta Urrufiño'ren sendia be Bilbo'ra bialdu eben. Eta andik laster, ara gudea eldu zanean, ingalateratar guda-itxasontzi baten sartu ta Donibane'ra etorri ziran.

Bein familiagaz batu al izan ebanean, gauzak ondo jarri ziran Urrufiño'ntzat. Marruekos geiena Prantzia'ren menpeko zan aldi aretan, ango agintari nagusi zan Nogues jeneralaren etxean ainbat urtean neskame egoan arrebea eukan. Ari idaztea naikoa eban arako bidea erreztuteko. Ta iru-lau egun barru euren trepetxoak artuta an joan ziran. Orduetik urte batzutura, an jaiotako mutiltxu bategaz familia geiturik biurtu ziran Ondarru'ra.

Gure Prantzia'ko lenengo urtean ezer egiteko barik bizi izan giñan. Egurastu ta ondartzan pelota, fubola ta abar egiñaz jolastu. Lanik ez egoan atzerritarrentzat. Ta gu euskaldunok, ango jendearentzat, edo legearentzat beintzat, atzerritarrak giñan Euskal Erri'ko alderdi aretan. Alan be, zortzi-amar bat egunean arenkeak (sardiñak) gertuten ibilli nintzan ango bodega baten. Nagusia, Dihartze abizenekoa zan; eta, oraintsu jakin dodanez, aren semea ei da Iratzeder praille euskal idazle iaioa. Beraz, au egia bada, Iratzeder bera ez ezagutu arren, bere aita ta orduan Donibane'ko eliza nagusiko abeslari zan bere arrebea be ezagutzen ditut.

Gure orduko kezka nagusia ta jardun gai nabarmenena España'ko matxinadea zan; egiten ziarduen gudearen goraberak ziran. Orregaitik, ia egunero erosten genduan izparringia, zer albista ekarren jakiteko. Beste-



ren bat be iñoiz erosiko genduan, baiña gure izparringiak iru ziran: *La Dépêche*, *La Petite Gironde* ta *Paris Soir*. Batean bat, ta bestean bestea, onetxek ziran guk irakurten genduzanak. *La Dépêche*, batez be gudako kontuak jakiteko erosten genduan. Ba-genkian ezkerrekoa zana. Egun baten, igandez, Teodoro lengusuak erosi eban; eta, apur bat irakurri ondoren, tolostu ta jakako poltsikaran gorde. Gero Donibane'ko elizara joan giñan mezea entzutera. Urteeran, korutik urten eta kanpoan kalera dagoan mailadian, besteen tartetik tokia ezin egiñaz, gizon bat urreratu jakon eta erarik onenean zerbait esan eutsan; orduan, lengusuak, poltsikotik atara izparringia ta birea emonaz barrero sartu egin eban, eta gizon ari eskerrak emon. Orduan nik berari ea gizon arek zer esan eutsan itandu neutsan. Auxe esan ei eutsan: ez ebalu jakingo, baiña izparringi a Elizarean arerrioa zala, masoia zala.

Guri sekula ez jakun bururatu izparringi a erosteak katolikoai txarto emoten eutsenik, ezkertarra zala jakin arren. Orregaitik gizon aren uste bako urtereak Teodoro'ren arpegia kolore gorritan laga eban. Ez dakit izparringi a geiago erosi genduan ala ez; baiña erosi bagenduan be ondo ezkutautu elizara eroango genduala ziur nago.

Izparringia zala ta ez zala, beste jazoera polit bat be izan genduan. Le Courier arratsaldeko izparringiak ordezkarietza eukan Donibane'n, eta leio edo eskaparatean, leiarrari itsasita, zabal-en zabal ipinten eben, oso-osorik. Asko joaten ziran edo giñan duako izparringi a irakurtera, batez be gudeari igesik joandako euskaldunok.

Egun baten, barri jakingarriagoak edo gure naien aldekoak ekarri edo, leio aurre guztia alkarrerri tokirik ezin eginda jendez beterik egoan. Onetan, Ziburu'n bizi zan abade urtetsu bat etorri zan, eta bultz eta bultz asi zan, aurrera sartu naian. Ez dot uste abade a euskalduna zanik. Zarra zan, baiña mosolo itxurakoa, gitxigaitik bildurtuko ez zan orretarikoa. Bere jokera ikusita, gure lagun Karlos Astasio'k, zerbait esan-edo, beintzat sekulako eztabaida atara eben prantzesez. Ta orduan gure lagunak, sartu ordezkarietza aretara ta izparringia eskatu eban. Barrukoak ikusi eben zer jazo zan eta ez eutsen dirurik artu; eta Karlos, eroatera joan eta duan emon eutsen izparringi a abadeari emotera joan zan. Jakiña, abadeak orri isekatzat artu eban, eta len baiño zalaparta andiango atara eben.

Olan ebiltzala, ertzain bat urreratu zan, eta gure laguna artu ta bera-gaz eroan eban. Ori ikusirik, Rafael lengusua ertzainagana bizi-bizi joan zan, ez dakit zer esaten, eta ari be jarraitzeko agindu eutsan. Baiña ogetamar oinkada emon baiño len, Rafael aske laga eban, eta Karlos komisariara-edo eroan. Bereala zan aske au be. Ez dakit izenik-edo artu eutsen.

Madritarra zan Karlos; baiña ama ondarrutarra eban eta sasi euske-rea egiten eban.

Bein txirlatara joan nintzan Ziburu'ko ibaira. Ondarru'n zeregin ezaguna da txirlatarkoa. Bai andrazkoak eta bai gizonezkoak edozenbat ibiltzen dira, batez be itxasotik irabazirik ez danean. Baiña geienbat, gaur egunean, mutil gazteak ibiltzen dira, poltsikorako diru apur baten jaube egiteko. Neu be umetan, lanean asi barik nengoala, iñoiz joanda nago txirlatara. Baiña esatekorik ez.

Txirlatan era bitakoak ibiltzen dira: zeregiña dakienak eta ez dakienak. Geienak, azkenengoetarikoak; atxur txiki bat artu eta, lurra edo ondarra aztertuz, txirlak billatzen dituenak. Beste batzuk, ta olakoak gitxi izaten dira, eskuan koillara bat naikoa izaten dabe, ta begiz ezagutzen dabe nun dagoan txirlea, ta antxe sartzen dabe koillarea ta uts barik ataraten dabe. Nire ixikoren illoba a, Karmelo, punterengoa zan txirlatan Ondarru'n, eta egun baten joan Ziburu'n eta txirla pillo andia ekarri eban.

Nire adiñeko mutil gaztea, etxera zerbait ekarten alegindu zan, eta neu be al nebana egin bearrean nengoan. Ta joatea erabagi neban beste egun baten, naita gogoz aurka.

Umetan txirlatan izandakoa banintzan be, orduan arrotz egiten jatan zeregin a. Ta ez ori bakarrik. An ez neban sekula iñor txirlatan ikusi, ta orretan jardutea guztiz beartsu agertzea iruditen jatan. Baiña alan be joan egin nintzan. Lengusuak, neure bakartasunean lagundu naian lez, moilla ertzera etorri jatazan, eta andik begira, noizean bein zerbait esanaz, an gengozan.

Gerotxuago, bietatik gazteagoa, Rafael, ibaira jaistera ausartu zan, ta a be asi zan zerbait billatu naian. Ez dakit garaurik be artu ete genduan.

Olan genbiltzala, itxasontzi bat agertu zan kai sarreran. Ikusi orduko ezagutu neban. Ondarrutarra zan: San Lorentzo. Jendez beteta etorren. Lekeitio'tik etorri zan, andik igesi etorren itxasontzi txiki baten itxasoan naikoa larri arkitutako jendeagaz. Itxasontzi a ikusirik, laga egin genduan txirlatan jarduteari, ta zer barri ekarren jakitera joan. Geiago ez nintzan joan txirlatara.



## LARRUN'ERAKO OSTEREA

Egun baten, Larrun mendira osterea egin genduan bost lagunek. Mendi zalea izan naz beti. Orain bost urte inguru, Kamiñazpi'ra bizitera etorri giñan ezker, igande ta jaietan ia beti joaten naz inguruko mendi gain batera; ta zerbaitegaitik, eguraldi txarra egon edo norabait joan bearragaitik ezin joan banaz, igande a alperrik galdu dodala-ta egoten naz. Alan be, mutil gaztetan ia sekulan ez nintzan mendian ibilli, zaletasun ori eban lagunik ez neukan da. Bat bakarrik zan mendi zalea: Jauregialzo'tar Jose; baiña bizar kentzaillea zan da, orduan igandectan be lanean jardun bearra izaten ebelako, ez neukan lagunik, neuri atsegin jatan eran igande ta jaietan mendira joateko. Beste lagun guztiak, arrantzaleak, mutiltxuak ziranen mendira naikoa joandakoak ziran sagar lapurretara ta txoritara; baiña ume izatea laga ebenetik, mendian ez eukan zeregiñik eta gitxitan joaten ziran. Orregaitik, gudea etorri arte mendi andi bitara bakarrik igonda nengoan: Oiz'era ta Andutz'era. Oiz'erako ibillialik ba-dauko bere edestitxo ta kontau egingo dot labor-labor.

Igande goiz baten, bost gaztek urten genduan Ondarru'tik Oiz'era. Mendiz egin nai genduan Markiña'ra arteko bidea. Olan bada, goizeko seirak puntuan Elixopetik urten eta Goiko Klean gora, Asterrika'tik zear, Milloi'raiñoko zatia ezeren okerrik barik egin genduan. Baiña bein Milloi (Merelludi) igaro genduanen, ezin izan giñan mendi gaiñetik joan; beti berunzko bidea artzen genduan, ta soloak zearka igaroaz goragoko bidea igoten genduan; eta azkenean be bide-zabalera jaistea erabagi genduan eta Urberuaga'ra jatsi giñan. Zuzen-zuzen ordu bi ziran Ondarru'tik urten genduala, bide zabalez joan bagiña orduterdian sartzeko bidean. Oraindik iru kilometro egozan Markiña'ra; beste ordu erdiko bidea.

Ondarru'tik urteeran, Markiña'n mezea entzungo genduala esan genduan; baiña ara eldu giñanean, aurrera joan bear genduala elizan sartu barik nire lagunak esan eben. Nik jarraitu egin bear besteai. Markiña'tik Bolibar eta Ziarrotza (Zenarruza) artekoa bide-zabalez egin genduan. Ez dakit zenbat bide dagoan, erri orreitan geiago ez naz izan da; baiña oiñez ordubete ta geitxoago egongo da. Gomuta bat bakarrik daukat Bolibar'koa: izen onetako amerikatar erri askatzaille andiaren oroit-arria ikusi nebala. Ziarrotza'n, Ondarru'n ainbat urtean il arteraiño bikario egon zan Don Agustín Zenarruzabeitia'ren illoba bat —illobearen alabea ez al zan?— ikusi genduan, bera be gure errian urte askoan egondakoa. Meza

nagusitara joian eta, gu mezea entzun barik gengozala jakin ebanen, derriorrean elizara sartu eragin euskun eta mezea entzun. Eskerrak neskatilla ari; bestelan ez genduan entzungo mezarik.

Ziarrotza'ko meza nagusitan gauza bat bitxia iruditu jakun; zera, irulau bidar dirua batzera urten ebal bost edo sei laguneko taldeak. Ta mezea entzuten guztira berrogei lagun ez ziran izango.

Mezea entzunda elizatik urten genduanen, gogoz ekin geuntsan geure azkenengo zatia izango zala uste genduan biderei, ta ordu erdi inguru egin genduanen —edo geiago?—, Oiz gaiña agiri zan zabalune batera eldu giñan. Andik gaillurrera ia ordubete bidea egongo zan. Guk ez geunkan astirik araiño elduteko, arratsaldean itxasora antxobatara joan bear zan arrantzale bat geunkan geure artean da: Ibarloza'tar Joakin.

Geratu giñan toki aretan baserri bi dagoz; ez dakit euren izenik. Baiña, Ondarru'n *Artzaiña* esaten eutsen, eta bere familia geiena gero gure errira bizitzera etorri ta ardanegia ta arategia ipiñi ebanarena zala bat uste dot. Ta bear genduan baserri aretan eskatuaz, zelaian sua biztu ta bazkaria gertuten geratu giñan, okelea brijidu ta abar egiñaz.

Ta gogo onez bazkaldu ta bereala etxeruntz asi giñan. Ta bizkor. Bein Ziarrotza'ra eldu giñanean eta bide zabalean sartu, geratu bako aringa-aringa egin genduan Ondarru'raiño. Ni, ibiltan areik baiño gitxiago oituta nengoelako edo oinkada laburragoa emoten nebalako, bereala atzean geratzen nintzan; eta nire atzerapena berrogei-berrogetamar neurkin ingurura elduten zanean, aringa-aringa asi ta atrapauten nituan. Olan-txe egin genduan bide guztia, nire lagunak tapa-tapa batera ta ni apurka atzeratzen, gero antxixika egiñaz euren parera eltzeko.

Ondarru'ra eldu giñanean, ukabilla aiñako babea neukan orpu azpian. Damutu jatan niri Oiz'erako ibillaldi a! Ta beste bein ez ninduela atrapauko esan neutsen neure egun aretako lagunai.

Alan be, andik laster, 1936'garreneko Loreillaren 1'ean, Andutz'en izan nintzan Batzokiko lagun aldra bategaz. Ondarru'tik asi ta Deba'tik San Roke'n zear Itziar gaiñeko Andutz tontorreraiño, guztia oiñez, joan eta etorri. Gitxienez zazpi orduko bidea aruntz-onuntza. Ibillaldi aretan argazki batzuk atara genduzan eta gaur be lau or daukadaz. Bertara joan ziran gazteak, lengoak baiño burutsuagoak ziran, edo beintzat burutsuago jokatu eben, eta atsegin izan jatan ibillaldi a.

Bada, len esan dodan lez, Ziburu'n iru illabete inguru geroazala, Larrun mendia igoteko gogoa eldu jakun. Nire lengusuak mendigoizale amorratuak ziran. Orduko, Euskal Erri'ko mendi andi geienak igonda egozan. Ibillaldi a egitea be, kontixu, eurai gogoratuko jaken.



Negua zan; 1936'garren urteko Gabon aurretxoko egun bat, illaren 22'a edo; baiña zoragarritzko eguna egin eban, eguzki epela ta argi. Eguraldiaren giltza geure eskutan euki bagendu be, obeagoa ezin egin izango genduan. Erriko aize (egoize) egunetan baizen errez ikusten ziran urrunak.

Bost lagun giñan ibillaldi aretara urten genduanok. Nire lengusu Santa Cruz anaiak, Etxebarria'tar Ixidor, Karlos Astasio eta neu. Azkain'dik igoten asi ta laster, bei bi burdiari lotuta eroazan baserritar bategaz tope egin genduan. Gure lagun batek, beti olako zerbait esan bear izaten dau ta, «Zer, euskalduna?» itandu eutsan. Bestearen erantzuna auxe izan zan: «Bai, eta nai be bai». Erantzun au atsegin izan jakun.

Larrun mendiak 900 neurkin daukaz, esan euskuenez. Lenengo, irutatik bi inguru, erreka tartetik igoten da; gero, bat batera, oso-osorik goi alde dana agertzen da musturreraiño. Ordu erdi inguruko bidea palta genduala, apur bat atsedenduten geratu giñan, gero azken zatiari erasoteko. Mendi gaillurrak urrean zirudian. Ta zearka joian bidea lagata, zuzenean goruntz ekin bear geuntsala bururatu jakon Ixidor'eri. Lengusuak, mendiko barri guk baiño obeto ekien; eta, Karlos lagun ebela, alkarrerri orpozorpo jarraituaz, bidez-bide joan ziran.

Ni Ixidor'egaz batera asi nintzan, zuzenean aldatza igon naian; baiña luzaro baiño len, an gengoan arnas estuka. Besteak tapa-tapa joiazan, gora ta gora. Gu, barriz, ogei neurkin egin orduko, arnasarik ezin artuta geratzen giñan. Geroan zuzenbidean arri andiak egozan, zapalak, or eta emen; eta Ixidor arri areitan etziten zan, gora begira ta besoak zabalik, ito bearrean. Neu be ez niñoian asko obeto, baiña nasaiago arkitzen nintzan itxurea egiten neutsan; eta, apur bat geldi egiten genduan, asi egin bear giñala ta lagunari jagi eragiten neutsan, goruntz jarraitzeko.

Besteak gora eldu ziran, eta guk oraindik azkenengo zatiaren bide erdia geunkan egiteko.

Gora urreratu giñanean, zoragarritzko ikuskizuna egoala andik goitik beste aldera, esan euskuri Teodoro'k didarka. Ta nekez eta lorrez, noiz-bait eldu giñan gain aretara!

Ez euskun guzurrik esan Teodoro'k. Axe zan ikuskizunaren ederra, Jaungoiko maitea! Antzokian oiala jaso ta bat-batera gauza barriak ikusten diran antzera, begien aurrean agertu jatan izadiaren edertasunak, lilluratu egin ninduan. Euskal Erri'ko mendi andi guztiak, batzuk urrunago ta besteak urreago, antxe neukazan begien aurrean. Baiña, batez be, urrean ikusten ziran Naparroa'ko mendi basotsu areik biotz arrarea egin eusten. Bene-benetan diñot: berrogetamar urte daukadaz lerro oneik idazten

diardutanean, eta egundo ez dot ikusi ezer, nire begientzat ain atsegingarri izan danik.

Tontor-tontorrean oin bakarreko arrizko mai biribil bat egoan. Mapea zan. Ikusten ziran mendi guztien barri emoten eban. Zein zein mendi zan, zenbat neurkin eukazan, Larrun'dik zenbat bidera egoan. Ikusten ziran mendi guztiak ezagutu geinkezan.

Gerotxoago, ara ta ona ibilli ondoren, bazkaltzea erabagi genduan. Larrun mendiko gaillurra Prantzia da, ta gaillurretik beste aldea España. Egitan, alderdi biak Euskal Erria baiño ez dira, baiña zer edo zelan esan bear. Mapea tontor-tontorrean egoan, Prantzia'koak ipiñita, euren ustez euren zan tokian. Antxe bertan, Prantzia aldera, ostatu izandako piso bateko etxe bat egoan ia lur jota. Onen alderdi bat arru baten gainean egoan. Antxe, etxe aretatik kanpora, arru gainean jan bear genduala esan genduan. An goian, Prantzia'ko lurretan egoan arren, españiar muga zaiñak atrapau baginduz, eurakaz eroango ginduezala ezpairik ez geunkan. Orregaitik, Prantzia aldera apur bat berago geratzea obe zala esan neban; baiña lagunak ez eben nai. Ta antxe bazkaldu genduan.

Baiña danok geunkan kezka an, sagua sagutegi baten lez gengoza-lako, ezin iges egiteko eran. Aizeak be jostatu egin nai izan eban gugaz; etxe zar aretako leio batek, soiñu larria atara ostean, danbateko gogorra emon eban eta biotz jauzika ipiñi euskun.

Baiña, denporegaz joan jakuzan keixura apurrak. Bazkaldu ondoren abestuten eta kontuak kontauten nasai egon giñan. Gero Teodoro'k eta Karlos'ek alde egin eben.

Ba-ziran ordu bi, ara gora eldu giñala. Alako baten, orain izentau dodazan lagun biak aringa-aringa etorri ziran, Naparroa aldetik txapel gorridun gizon bi etozela ta. Lenengoan nik ez neutsen sinistu; baiña Teodoro, jatekoa eroan genduan zorroa artu ta mendian beruntz asi zala ikustean, sinistu neban. Bai orixe! Beste lagunak arru aldera igesi asi ziran. Ni, barriz, beruntz zuzen-zuzenean, gorunzkoan arnas estuka igon genduan zuzenbidean. Itsumustuan niñoian; naita edo nai ezta, umeak jolasean oe gainean egiten dituen antzeko saltuak egiten nituan. Nik ez nekian nortzuk ziran txapel gorridunak eta nun etozan Naparroa aldetik Larrun'erako euren bidean. Baiña era aretan igesik niñoiala ikusten baeben, zerbait txarra bururatu eragiñaz neuri tiroa jaurtiteko bidea emoten neutsela-ta, ezkutau nai neban neure burua. Baiña ez egoan ori bereala egin al izaterik, mendiaren irutatik bat inguru tontoretik aurrez-aurre menpean arkitzen dalako. Ta tiro otsa noiz entzungo niñoian, musturrak ausi bearrean. Atzera begiratu neban, aldatza gitxitu zanean. Goian iñor



baegoan be ez zan erreza ikustea, eguzkiak ez eban lagaten da. Gaiñera, nik ez neukan astirik ondo begira egoteko, ta zelateko begiratzea egin neban bakarrik. Baiña tontorrean iñor ikusi ez baneban be, ikusi nituan lagunak. Jaungoiko maitea, nun etozan arek! Txiki-txikiak ikusten ziran. Urruña alderako zuzenbidea eroela iruditu jatan. Gerotxoago lorozko esiak urten eustan; ipurdira baiño gorago ez zan elduko. Alan be ni ez nintzan gauza a gaiñetik igaroteko, ta zearka ainbeste denpora galdu neban. Niri tiroa jaurtiteko gogoia iñok izan baleu, ez eban gatx ni jotea. Arin eta arin, azkenean be ezkutau neban Larrungo tontorra.

Orduantxe joan jatazan bildurrak. Geratzea be pentsau neban, apur baten atsedenduteko. Baiña ez. Dardaraka neukazan izterrak, zaiñak lertu bearrean. Ta bein geratu ezker, berotasuna galdu ezker, bear bada ez nintzala zutiñik egoteko gauza izango ta aurrera joatea erabagi neban. Ta Azkain'era jatsi ta andik etxera iñun geratu barik.

Etxera eldu nintzanean, osabeari edestu neutsan jazo jakuna. Bera be kezkatan egoan gu ikusi arte; bada, guk etxetik urten da gero kontra-bandista bategaz egon ei zan, eta Larrun'era joan giñala ari esan ei eutsan, eta mugan arrisku andia egoala arek erantzun.

Ni bakarrik etxera biurtu nintzala ikusirik, aren kezkek geitu egin ziran. Ta denporak aurrera ta arek ez zirala agertzen ikusita, Donostia'ra nolabait gaztigatu egin bearko nebala oldozten asita nengoan, eurai ezer txarrik iñok egin ez eian. Don Ramon Sierra jakiñaren gain ipiñi bearko zan.

Baiña ez! Ez egoan orren premiñarik. Andik ordubete ingurura etorri ziran besteak be. Gureak izan ziran barreak alkar ikusi genduanean, batez be eurenak. Didarka ibilli ei jatazan geratu neintean. Baiña urrun niñoian ni, aren didarrak entzuteko. Neuk eurak ikusten nituan lez, eurak be ni txiki-txikia ikusten ei ninduen.

Biamonean abagitasun (*agujetas*) miñakaz oetik jagi nintzan. Urren-ego egunean oraindik txartoago nengoan. Ta irugarrenean ez nintzan gauza oetik jagiteko, ta egun guztia antxe luze-luze egin neban.

Olantxe amaitu zan Larrun'erako nire ibillaldia.

## ALEGERA'KO ABESLARI

Ni ez naz izan abesbatzetako abeslaria gudate arte.

Ondarru'n musika taldeko geienak abeslariak ziran, baiña egundo ez jatan bururatu olako konturik.

Orratio, Eusko Batzokia zabaldu bear zanean abestu zan mezea ikasten ibilli nintzan. Baiña ez dakit abestu ete neban egun aretan. Zerbaitegatik, korura joaterik ez nebala izan uste dot. Bere izenagaz ez naz gomutaten, baiña buruan daukat zein meza zan; Bilbo'n Jesus'en Biotza'ren iduria Gran Via'ren azkenean ipiñi ebenean be, axe mezea zan; tarte-ka erriak be abestuten dabena, azkenengo amenak-eta.

Aldi aretan, Bilbo'ko sariketetan bere trebetasuna ederto agertu eban abesbatza zan Ondarru'n, Don Anjel Urzelai zarauztar abade-gazteak zuzenduta.

Alako abesbatzan lagun asko bear izaten da; ta, sariketa baterako gertuten ziarduan aldi baten, neuk be joan egin bear nebala esan eustan abeslarietako batek. Katukume batek baiño abots geiago ez euki arren, solfeoa ba-geunkala ta —amalau urte ezkerriko musika taldekoa naz— joan egin nintzan. Abots makalekoen saillean jarri nintzan, bigarren tenoretan. Zerbait badirala agertu nai dabeen guztiak beste sailletara joaten dira, lenengo tenoretara edo bekoetara.

Urzelai jaunak, gaztea izan arren, makillea baizen zuzen eukiten eban jendea. Ikas saioa asi ta laster, gure saillera zuzendurik didarka asi zan. Garbitu bear ginduzala zirudian. Txarto abestuten eban gure saillerekoen batek. Neugaz ete ebillen susmoa egin neban. Urreratu zan eta gure saillari bakarrik abestu eragin eutsan, besteak ixillik egozala. Gauzak ain gogor ikusi nituanean, aorik be ez neban zabaldu. Geiago ez nintzan joan. Ni baiño belarri txarrekoagorik ba-ebillen an! Baiña zeregiñik an ez nekala iruditu jatan eta beingoagaz amaitu neban.

Donibane'ra joan eta urren-ego udabarrian, ango abesbatzara joan bear litzakezala esan eutsan Teodoro'ri, Donostiako Eusko Abesbatza'n beragaz egondako batek. Onek, Teodoro'k, solfeoa geunkan oeste lagun bi beragaz batera eroan ginduzan: Ixidor eta neu. Ixidor, Ondarru'ko elizako abeslaria zan.

Gu emengook agertzen giñan toki geiagotan be izan zan eztabaidea atera zan an be: politikea. Gu katolikoak izanik, zelan gorriakaz bat egin-da genbiltzan España'ko gudan. Asarre barik, baiña naikoa berba egin



genduan. Ixidor'eri ez jakon atsegin izan eztabaida a, edo gure jokabidea arek ontzat ez emotea, ta geiago ez zan joan. Teodoro ta ni ez gengoan eztabaida bategaitik atzera egiteko ta jarraitu egin genduan.

«Alegera» zan abesbatzaren izena, Ta Donibane'ko musika taldean bonbardinoa joten eban Bentxan izeneko ziburutar bat zan zuzendari. Ba-egoan abotsak, baiña solfeo gitxikoak edo bat be ez ekienak ziran geienak. Ta abestiak lendik ekiezenak. Urzelai'ren abesbatzan baiño erre-zagoa zan an abestutea.

Uda bitan abestu genduan abesbatza aretan: 1937'garrenean eta urrengoan. San Juan jaietan izaten zan asierea, Donibane'ko musika enparantzan, udaletxe aurrean. Erbestean be izan giñan bein baiño geiagotan. Baten, Endaia'n egin ziran euskal jaietan izan giñan, ango abesbatzagaz batera abestuteko. Bertan, beste ikuskizunen artean, gurdi apaiñen igaroteya zan. «Amaiak bat» izenekoari txalorik geien jo eutsan jendeak. Zazpi probintzietako eskudo andi bat eta alboan lau gazte, zatotik ardaue daten egozan itxurea egiñaz. Zazpi ta lau amaika. Zer adierazi nai eban arek? Euskaldunak mozkorrek giñala? Olakorik ezer be ez ziurren; zerbait asmau nai ta urteten ebanak urten. Baiña euskaldunok edan zaleak garala agertutea izan bazan euren asmoa, ez zan dana guzurra.

Beste bein Baiona'ko zezen ezparantzara joan giñan. Abesbatza geiago be ba-ziran an. Bat, Pirineo aldekoa, antxiñako erara jantzita. Urteeran Lucien Baroux zine gizon barre eragille entzutetsua ikusi genduan, zinean ikusten oituta gengoan antzekoa, alai itxurakoa. Gure abesbatzako neskatillak zarataka asi jakozan ezagutu ebenean, eta besoa jasota zerbait esanaz erantzun eutsen berak.

Bein, Donibane'tik kilometro batzutara bizi zan andiki baten jauregira joan giñan. Ez dakit zein erritara, joan etorria gabaz egin genduan da. Baiña bein, Arcanges izeneko andiki baten zerbait aditu neban eta onetxen jauregian izan giñala uste dot.

Bere iru semek txirula joaz agurtu ginduezan. Jaia, etxe aurreko lorategian egin zan, tximistargi indartsuz argituta. Ez nago ziur, baiña ezpata-dantzariak be bazirala uste dot geugaz batera.

Jaia amaitu zanean, zutiñik jatekoa ta edaria eukan gerturik etxe barruan, nai aiña. Ta ibilli atzaparrak!

Andiki a euskaltzalea bide zan. Jantokiko orman, olean idatzita, jateazko esakun bat egoan euskeraz. Orain ez naz gomutaten ziñoanaz. Politikan errege-zalea zala esango neuke. Beintzat España'ko errege izandako Alfontso XIII'ren argazkidun lauki andi bat ikusten zan ormatik esegita.

Baztar aretan piano bat egoan eta Garbizu'tar Tomas zirika asi zan; eta gero, nagusiari baimena eskatuaz, jo alditxo bat egin eban. Ederto joten eban pianoa Garbizu'k eta danok pozik entzun geuntsan berari. Etxeko nagusia, andikia be, urreratu zan; eta piano joleari, saioa amaitu ebanean, bere atsegiña agertu eutsan eta urrengo baten jo aldi bat egitera etorri eiteala eskatu. Baietza emon eutsan Garbizu'k.

Ta onenbestegaz amaitu daidan abesbatzetako zer esanakaz eta piñu ebagite lana edestuteari eldu deiodan.





## PIÑUETAN

Lenago be esan dodala ta nago, lana egiterik ez egoala gutzat Prantzia'n ta bere menpeko lurretan. Alde guztietako gaixotasuna zan denpora areitan lanik eza; ta etxe koentzat sortzea be ez zan gitxi prantzeseentzat. Beraz, olako burutasunik, lanerako asmorik, egundo ez genduan artu.

Baiña Ziburu'n illa batzuk geroazala, piñuetako lanaren barri gure belarrietara eldu zan. Nai izan ezkeru, piñu ebagite lana egin ei geinkean atzerritarrok. Jakin nebanez, langille billa gizon bat etorri ei zan Donibane'ra. Baiña gizon sendoak bear ei ziran lan aretarako. Beintzat *negrero* arek, aurkeztu jakozan iru ondarrutarretatik bi aukeratu zituan eta bestea baztatu. Aukeratuak, gizon gazte ta sendoak ziran, larogetamar kilo urrean zituenak. Ta bestea, baztartua izan zana be, larogei kilotik gorako gaztea zan, pelotan ondo zaildua.

Juaristi'tar Jelasio ta Guenaga'tar Iñazio ziran piñuetara joandakoak. Baiña joan ziranak be, laster ziran barriro Donibane'n. Uste dot, astele netik larunbata artekoa bakarrik egin ebela basoan. Piñu ebagite lana zelako gogorra zan jakiteko naikoa denpora zan. Areik ez euken piñuetan jarduteko aiña premiñarik.

Piñu lanerako alako gizon sendoak bear baziran, irurogei kilora urretzen ez nintzan eta egundo eskuetan aizkorea artu bako ni lakoentzat, an ez egoan ezer egitekorik.

Baiña ordutik laster, illa batzutara, beste erakoak ziran piñu lanazko barriak. Nai eben guztientzat ei egoan lana.

Beraz, geuk be zerbait asmau bearra geunkan. Ta lagunetatik gazteena ausartu zan ara joaten: Rafael lengusua. Gero, aren esanakaz jakingo genduan zer egin.

Ta ara elduta laster, geu ara joateko bideak egiten asi zan. Lenago, Larrun'era osterea egin genduanok joango giñan: Teodoro lengusua, Etxeberria'tar Ixidor, Karlos Astasio ta neu. Ta izentau genduan joango giñan eguna. Baiña danok joaterik ez zan izan. Lagunetatik bateri barri on bat eldu jakon. Donibane itxiko eban geuk lez, baiña ez piñuetaruntz. Aldi aretan, euskal Gobernuak eratuta, *Eresoinka* izeneko abesti ta dantza aldra bat sortu zan Laburdi'n, gure erriaren izena munduan zear zabaldu eian. Ta piñuetara joateko geienez be bi edo iru egun palta genduzala, erti aldra aretarako deia izan eban Ixidor'ek, eta an joan zan pozik Sara'ra.

Alde ederra, orratio, piñu ebagiten basoan jardun eta bizi, edo Europa'ko erririk andienetako antzokietan abestuten ibilli!

Olan, bada, beste irurok joan giñan bizimodu barri ta gutzat ez-ezagunera, geure jantzi ta gauzatxoak artuta. Bultziz joan giñan, eta iru-lau orduan eldu.

Piñu tokia Landes errialdea zan. Mundua andia da ta guk munduko barri gitxi dakigu, baiña piñu geiago dan lurralderik mundu guztian ezetz arkitu samea jokatu neuke bildur andi barik. Amai bako lur lau arek piñuzko itxasoa zirudian.

Itxasoa baiño berago ei dagoz lur areik; eta len, oraindik ez antxiña, ondartzea baiño ez ei ziran. Ta eskerrak piñuai, len ezetarako ez ziran ondartzea areik, aberastasunaren iturri dira orain.

Izki batzuk gora-bera, gu joan giñan tokia olantxe deitzen zan: Onesse, Laharie, Mariasse. Onesse, erriaren izena zan; gu gengoan inguruari Laharie zeritxon, eta Mariasse, bizi giñan etxe edo barraka zar andiaren izena zan. Alan be, Onesse erria bein be ez genduan ikusi. Lana egiten genduan lurretara joateko, Morsen izeneko erriaren bultzitik jatsi giñan. An egoan bat gure zain eta beribillean eroan ginduzan Laharie'raiño.

Besteen barririk nik ez nekian, baiña nik neuk kezka apurra ba-neroran. Basora eldu giñanean, aizkora otsa entzuten zan eta zugatzak lurrera botatean ataraten dabean zaratea. Lengusuaren itauna egin genduan eta berealako baten bere aurrean giñan. Bizimodu gozoa ez zala, laster konaturatu giñan.

Biaramonen asi giñan lanean. Rafael lengusuak lengo lagunakaz jarraitu eban. Beraz, beste iru lagunok egin genduan aldrea: Teodoro lengusuak, eskuetan liburu ta idazkortza besterik ordurarte erabili bakoak; Karlos'ek, batxillerraz gaiñera osagilletza ikasten beste urte bi egindako madritarrak; eta neuk, esku lanean oitutakoa, baiña indar andikoa ez eta baso lanetan oitu bakoak. Zerra bat eta bakotxari peladore edo azal-kentzekoa emon euskuezan eta izentau euskuen saillera joan giñan. Ta asi giñan al genduana egiten, al genduana ez zan gauza andia baiña.

Lan asko egin baiño len, eguerdia eldu jakun. Bertan basoan egin genduzan indibaba —indarrak, Ondarru'n— gorriak. Neu nintzan sukaldaria. Ziburu'n, ixikoren etxean, milla bidar egon nintzan lapikoari begira, bera lanera joaten zanean. Baiña ez nintzan jasako sukaldaria. Ta geure lan barriagaz buru-belarri jardun-edo, batetik zearo agortu zan lapikoa ta besetik gatz ontzia zan a. Gose galanta izan arren, koillarakada bat iruntsiterik ez egoan. Ta zerbait jan egin bear eta sardiña latatxo bana jan genduan. Ta jan ondoko lo kuluxka egin ondoren, barriro lanera.



Bederatzi zugatz egin genduzan iru lagunen artean egun guztian. Bota, adarrak ebegi ta zurutu. Egunetako lanaren ondoren zatitzen ziran zugazak. Egun aretako gure lana zenbat izan zan erakusteko auxe esan bear dogu: lenengo egunean bederatzi zugatz egin genduzan iru lagun artean; eta andik illa batzutara, lau lagun artean, 125'tik 130'era egiten genduzan.

Lenengo astea zala txarrena esan euskuen piñuetara joan aurrean. Baiña nitzat beti zan bardiña, gitxi gora-bera. Egia, lenengoetan egun osoan egiten genduan lana egiteko, gero ez geunkan izerdi asko jaurti bearrik.

Baiña lenengo eguneko bederatzi ta ondorengo egunetako dozena zugatzen ordez, gero eundak ziran. Beti al genduan guztia egiten genduan. Beraz, adin onaren jaube bagiñan be, ederto nekatzen giñala esan bear.

Piñuetan illa batzuk geroazala, oraindik eskuetan min sentiduten neban. Aizkoreagaz egurrari zartadak emoten, esku azurrak minduta geratu jatazan, eta min orrek sarri esnatu ninduan gaberdian.

Lenengo iru illabetean, gabonak arte, piñu erreak ebagiten jardun genduan. Lanerako baimena emoten eben paperak be, orixe esateen eben: piñu erreak ebagiten ekiteko baimena emoten euskuela.

Piñadi areik suak erreta egozan. Dana egoan erreta, eta ibiltan oiñak krak-krak ataraten eben. Erre auts andia jagiten zan, eta ikusteko agotzen zan astean bein garbitzen genduan gure arpegia. Ikatzean lanean jarduten dabeenak baiño loiago eukiten genduan, begi ta agiñetako zuri-tasuna bakarrik ikusten zala.

Lurpetik esku-bonbeagaz ataraten zana baiño beste urik ez egoan. Jantzi garbiketa andirik ez genduan egiten, Mariasse'n egon giñan artean. Igandean bageunkan astia orretarako; baiña moldaten ez giñan lan a egiten asteko gogo gitxi eukiten genduan. Bein, garbiketeari ekin geuntsana gomutaten naz. Ziur, lenengo bidar izango zan, eta bear bada azkenengoa be bai toki aretan. Barruko jantziai jaboia emonaz, igurtzi ta igurtzi ukabil artean; barre egiten genduan asieran, ataraten geuntsan bitsaren baltz-tasuna ikusirik. Gure jantziai kolorea emotekorik ez egoan. Andik alde egin genduan, garbitzera emoten genduzan jantziak.

Lenago be esanda daukat gure bizilekua Mariasse izan zala. Olezko barrakatzarra zan, eta nagusi batentzat lan egiten genduan ogetamar inguru gizon bizi giñan bertan. Pasaia'ko galiztar bat edo beste izan ezik, danok euskaldunak giñan, eta geienok mutil gazteak. Etxe a ez zan bizilekutzat egiña, edo beintzat an ez egoan ezer egokitasunik; ez sukalde, ez lo gela, ez irol eta ez leiorik. Bea, iru-lau zatitan banatuta egoan; eta goia,

mandio andi bat zan. Gu mandiokoak giñan. Lurrean lastoa jaurti ta manta bat lasto gaiñean ipiñita, axe genduan oea.

Lotarako jantzia kentzen ez genduan denporarik galtzen; soiñean geunkazan jantzi guztiakaz etzin eta manta ta zapi zarren bategaz estaldu ta lo. Biaramonean, jagitean, aurregunean lotaratzean burko gaiñean geratu zan txapela artu ta burura eroanaz, jantzita gengoan. Baiña jagitakoan, apur baten otz egoten nintzan, edo presko beintzat.

Otz andiak izan ziran negu aretan; ta andienak, gu Gabonetan Donibane'ra joanda gengoala, esan euskuenez. Utsetik amairu maillara jatsi ei zan giro-neurkiña, ta ardaa be izoztu.

Gu bertara biurtu giñanean be, utsetik zortzi mailla inguru jatsiten zan. Guk geunkazan ganorabako oe ta gela edo danakalakoetan, ikaragarriko otza egiten eban; eta lotarako, jagita erabilten nituan jantzien gaiñetik, jaka lodi bat jazten neban. Lengo trapu zarren gaiñetik ezin jantzita ibiltzen nintzan, besoak ozta-ozta sartu ta botoiak ezin loturik. Esan dodan lez, mangak estu-estu eukiten nituan; ta besoak, zuzen euki ezik, nekatu egiten jatazan. Origaitik, eskuak zuzen eukiteko, kaltzetako poltsikoan sartuta eukiten nituan, eta alan lo egin.

Piñuetara joan aurretik, sekula ez neban sentidu oetik jagiteko premiñarik. Baiña nire kuntzurrunak astiñaldi ederra artu eben an, eta gaberdian jagi ta kanpora urten bearra izaten neban, lurra bustitera. Ta arrezkero, gitxi dira jagi bearra izaten ez dodan gabak.

Piñu txikiak ebagiten jarduten genduan, puntea kendu ta amar-amabi neurkin luze izango ziranak. Lan orri *poiteo*'a zeritxon. Gure lana neurkinka edo metroka ordaintzen euskuen, eta nagusiaren ordezkarria etorten zan neurtutera, astean bein-edo. Gu ez giñan arduratzen, egiten genduan lana neurtzen. Zenbaki asko egin bear zan; gaiñera, geuk be kontuak atara eikeguzanik sekula iñok ez euskun esan. Emoten euskuea artzen genduan eta kito. Diruagaz batera, kontu errezoia emoten eban papera be emoten euskuen. Dana zenbakiz beteta ta nundik irakurten asi be ez genduan jakiten. Nire lengusu Teodoro kenduta, zenbaki areiri sekula iñok ez eutsela begiratu samea jokatuko neuke. Teodoro'k bai, kontularia zan izatez be ta. Ta zenbaki areiri begira galdu zituan orduen ordaiña izan eban bein. Utsa arkitu eban eta libera batzuk geiago emon euskuezan.

Lenengo denpora areitan ez genduan asko irabazten. Ez naz ondo gomutaten, baiña eguneko 30 liberatik alde andirik ez zan izango. Beintzat, Gabonetan Ziburu'ra aate bat eroan nai genduan; baiña eguna eldu zanean, atzera egin bear izan genduan, ezinda.



Lenengoan, igande bat edo beste meza barik igaro genduzan. Nun gengoan be ez genkiala arkitzen giñan, eta baso aretan noruntz asiko giñan? Baiña laster asi giñan mezea entzuten. Andik iru-lau kilometrorra mezea emoten ebela jakin genduan, eta jaieko jantziak jantzita an joaten giñan. Geu, lau lagunok, joaten giñan bakarrik Mariasse'tik; neure lengusu biak, Karlos eta neu. Orduan Rafael be geugaz egoan. Eleiza aren bi edo iru kilometro inguruan, eundaka asko euskaldun arkituko ziran piñu lanean; baiña ara iñor ez zan agertzen. Geure errietan, geure giroan gengoanean, danok joango giñan, ziur, mezatar; baiña an, elizea zer dan ezagutzen ez ebenen antzera, bertara urreratu be ez zan egiten euskaldun gaztea.

Igande ta jaietako meza kontu ori kenduta, Mariasse'tik iñora ez genduan urtetan. Baten Morsen'era joan giñala gomutatzen naz, eta gaberdian biurtu, ala-olako bideetan zear. Orretan ekienak neskakaz dantza apur bat egin —guk orixe be ez genkian—, eta ardu apurra edan.

Beste baten, basoan egoan ardandegi batera joan giñan. Bi edo iru kilometroko bidea egongo zan bertara. Ango jenderik geiena, emendik joandako piñuetan geniarduan gazteak giñan.

Bertsolariak zirala ta ez zirala, asarre bat izan neban an. Gu lez piñu ebagiten ebillen errenderitar sasi-bertsolari bat ba-zan an inguruan: ardandegi zuloa maite ebana ta biurri samarra zan gazte sudur motza. Beste sasi-bertsolari bat be ba-zan an, irurogetamar urte inguru izango zituan agurea. A ez zan gudea zala-ta joandakoa, urte askoan an egoana baiño. Ta bertsoak botaten asi ziran, batek lenengo ta gero besteak erantzun. Ta bertsolariak beti eukiten dabeen besteari geiago egiteko griña orregaz, bidebakokeria zarrari jaurti eutsan arpegira gazteak. Itxurea zanez, orduan urtetsua zan arek zer bait oker egin eban emen, eta alantxe ara iges egin-edo; eta gazteak, ez bat eta ez bi, ori aiatu eban danon aurrean, ta lotsatuta buruz bera laga zarra. Orduan, orretarako eskubiderik ez egoala esaten jagi nintzan, agure batek ori baiño begiramen geiago bear ebala ta. Txakur amorratuaren gisan urten eusten gaztearen lagunak, eta aguro ixildu bear izan neban, jango ez baninduen.

Bertsoetan edozer esateko eskubidea egoala uste dabeenetarikoak ziran kirten areik be. Guda aurretik arpegiz ezagutzen neban mutrikuar bat egoan euren artean, eta bera izan zan txarrena.

Mariasse'koak ondo konpontzen giñan alkarregaz. Naikoa abestuten genduan, geiena erderaz. Baiña bein, bost-sei laguneko aldra nastatzaille bat etorri zan. Euren artean, Kuba'tik matxinadea zala-ta iges egindako bilbotarra zala esaten eban bat. Taldeko burua zirudian. Lanerako baiño

politika nasteetan ibilteko ohea zan a! Jakiña, aldra aretan be ez ziran danak lotsagabeak. Eurakaz, amazortzi urte inguruko bermeotar gazte bat be ba-zan: Garteiz'dar Florentzio. Geroago, Itxasu'ko Etxedoia'n alkarregaz egon giñan eta lagun egin neban gaztela.

Bein, gaberdian, ikaragarriko zalaparta ataraten sartu zan Mariasse'n aldra a. Ardandegitik etozan eta geienak mozkortuta. Ba-zan abesti ta didar otsa! Danok esnatu ginduezan, eta Pasaia'n bizi zan galizitar bat jagi zan, orretarako eskubiderik ez egola ta ixiltzeko esaten. Esan ba eban, esan eban! Bilbotar a asarratu zan eta egundoko eztabaidea euki eban. Aitzoz sabela iragiko eutsala esan eutsan Kuba'tik etorritakoak besteari, ta onek azkenean burua makurtu bear izan eban.

Egia esateko, gu besteok ez genduan gizon jokatu; galizitarraren alde arpegi emon bear genduan. Baiña iñok ez eban txistik atara. Eta bear bada, igaro zan lez igarotea obe izan zan; bestelan odola be ixuri eitekean.

Gabonak urreratzen etozan eta Ziburu'ra biurtzeko gogoia egin jakun. Geure etxetik kanpora bigarren Gabonak ziran eta orduan gure etxea osaba Donato'nekoa zan; eta egun ori geure guraso ta anaia-arrebakaz egin eziñean, senideakaz igarotea be atsegiña zan. Ta an joan giñan iru lengusuok. Mariasse'ko euskaldun guztien artean geu izan giñan bakarrik zori ori izan ebanak.

Gabonak igaro ta barrero piñuetara biurtzean, toki aldatzea izan genduan. Lengo nagusiak, lan gitxi izan-edo, lau lagunok eta beste batzuk, gutira amar-amabi, beste nagusi bateri aldatu ginduzan. Nagusi barriak berak eroan ginduzan Gironda erkira, Bouridens auzora. Beronen inguruan ezker-eskumatara erri bi egozan: Saint Sinphorien eta Villandrau, ta biotatik bateri egokion auzoa izango zala Bouridens uste dot.

Aldaketa au mesedegarria izan jakun. Oraingoan ez ziran piñu erreak eta len baiño garbiago ibilli geintekezan. Gaiñera, auzotxo baiño geiago ez bazan be, errian bizi giñan. Gaiñerontzean, lengo bizitza berbera geroan: nolabaiteko etxe bat ainbat gazteren bizileku ta lasto gaiñea lo egiteko.

Janari denda bat, dantza aretoa ta elizatxo bat egozan. Erriko etxerik politena dantza aretoa zan, barria zan da. Igande ta jai illuntzetan bertan erri guztia batzen zan, gazteak dantzan egiteko, ta nagusiak kontuak esan eta dantzan ziarduenai begira egoteko, Ez dakit ordaindu bear zan ala ez, sartzeko; baiña bein bakarrik sartu nintzan bertan, dantzan ez nekian da. Guk, neuk ez esatearren, euskal dantzea egiteko oiñak ederto erabilten ikasi genduan; baiña ogetiru urte gaiñean genduzala, gudea zala-ta erritik iges egin genduan, egundo neskeari oratu barik gengoan baltseoa egiteko. Errezozi bi genduzan orretarako: musika jotzailleak giñan



eta aukera gitxi geunkan lotu edo baltseorako; ta, batez be, euskaldun nortasuna illundu eikean ezertxo be ez genduala egin nai. Neurri orretaraiñoko abertzalea nintzan. Euskaldun uts-utsa. Gero, geure girotik aldatu giñanean, zerbait nastau giñan dantza lotuan; baiña beti be gitxi.

Eliza kapillatxo bat egoan; baiña naikoa ta geiegi erri aretarako. Gu Bouridens'era joan eta aldi baten itxita egon zan, igande ta jaietan be mezarik emon barik; eta Saint Sinphorien'era joaten giñan mezetara. Jakiña, txirringan. Gero, asi ziran bertan mezea emoten jai egunetan. Ta ara be geu lau lagunok bakarrik joaten giñan, eta prantzés batzuk, geienak emakumeak.

Ezagan eban eliza arek gitxi iragiten zana; ikaragarritzko busti usaiña artzen zan bertan. Gero, usain bera artzen neban San Pedro de Cardena'ko elizan, eta Prantzia'ko elizatxo a burura ekarten eustan.

Ebagi bear genduzan piñu saillak, baten emen eta bestean an, geienetan iru-lau kilometroko bidean egozan. Beraz, bearrekoa genduan txirringa, bizikletea. Gaiñera, Prantzia'n bizi ta mutil gazteak txirringa barik egotea be oi ez zan gauzea zan eta zar bana erosi genduan. Berreun ta zerbait geiago libera ordaindu neban neurea. Teodoro'k eta nik ordurarte ez genkian txirringan eta ikasi egin bear izan genduan.

Orixe izan zan iru urte luzean Prantzia'n egin genduan onerako guztia: txirringan ikasi.

Erriz aldatu giñan udabarrian. Captieux errian piñu batzuk eukazan nagusiak, eta ea areik botatera joango giñan itaundu euskun guri, lau lagunoi. Nai izatera, eguneko aloger izentau bategaz lan egingo genduala. Ogetamabost libera zirala uste dot, edo geienez berrogei. Ta berak arkituko euskula ostatua.

Baietza emon geuntsan. Asko ez genduan irabaziko, baiña erosoago biziko giñan. Errian biziko giñan eta oean lo egingo genduan beintzat. Bouridens, zortzi-amar etxeko auzoa zan, eta beste erri ori bi edo iru milla lagunekoa. Ta an joan giñan.

An ez geunkan eguzkiaren aurka lan egiterik. Egia, pagotxik be ez genduan jango; gaiñera, oraingo piñuak andiak ziran, eta orregaitik guri astunagoak egiten jakuzan.

Lanera arlote antzera-edo jantzita joaten giñan; beintzat, baten, erria igarotean, neska gazte batzuk, euren artean zerbait esanaz, barrez asi ziran. Niri bardin eustan arek gutzaz barrez edo negarrez ikusi. Baiña Teodoro lotsatu egin zan-edo. Beintzat, ordutik aurrera, laneko galtza zarrak mendian laga ta kalekoakaz errira biurtzen zan.

Ange konturik politena jan kontua zan. Ardandegi baten egon giñan ostatuz. Goizean, jagitean, baso txiki bat akeita baltza, païttar kopa bategaz, emoten euskuen. Gero, jaki apurra ipinten euskuen basorako, amarretakoa; geienetan, foegras latatxo bat ogi ta arduagaz. Eguerdian izaten ziran kontuak, ardandegian bertan bazkaltzean. Bazkaria beti bardiña izaten zan. Zukua ta okela tato batzuk saltsan. Dana be gitxi. Naibeste ogi izan ezkerro, pozik izaten giñan. Beste jatekorik, au da, saltsako okelarik ezin geinkean geiago eskatu; baiña ogia edonun eskatzen da, bear izan ezkerro. Alan be, platereko saltsea amaituta eskatzea ez zan itxurazko gauzea. Ez euskuen zatituta emoten ogia, zati andi bat danontzat baiño, bear gendua artu gengian. Orregaitik, asieran zati txikiagoa ekarri eigula nai izaten genduan, gero geiago eskatzeko. Danok ikasi genduan ogia eskatzen:

— *Un peu du pain, s'il vous plaît.*

Baiña ogi eskabide ori, norberak barik, besteak egin eicla nai izaten genduan. Ta bazkari azkenetan izanda be, ogi geiagoren jaube egiten bagiñan, zati andia izan arren, musturtxo bat be ez zan geratzen. Dana iruntsiten genduan.

Batzutan andra zartxo bat etorten zan ontzi garbiketara; irurogeitar urte ingurukoa. Gure zoriaz errukituta-edo, begi onez ikusten ginduzan. A etorten zanean, ogi kezkarik ez genduan izaten; etxekandreak apur bat alde egitean, berari eskatu ta nai aiña ekarten euskun.

Apaldu be bertan, ardandegian, egiten genduan, baiña gabeko konturik ez daukat gogoan.

Len esan dodan lez, astegunean ipinten euskuen zerbait basora eroateko; baiña igandetan ez geunkan basora joaterik ta tittara bete akeita baltz ta païttarragaz egoten giñan eguerdirarte. Olantxe egin genduzan aste bi edo iru. Rafael lengusuari, besteok baiño ausarditsuagoa zan da akeita esnea eskatzea bururatu jakon igande goiz baten. Esnerik ez eukela ta marmarka erantzun ei eutsan, baiña ipiñi eutsan katillu bete. Ta jaten egoala, urreratu nintzakion eta ogi guztia ez eiala amaitu esan neutsan. Ta alantxe egin eban. Ta jaiko jantziakaz jantzita meza nagusitara urten genduan, kalean, berak errez jango eban ogi zatitxo eskupetik eskupera aldatu genduan, eta Teodoro'k eta biok agirira atara barik aora eroan eta jan.

Abarketa narrua jateko aiñako gosegaz jagiten giñan maitik; baiña gerora, gosea joan-edo, aztu egiten jakun. Beintzat, kalean zerbait janari erosterik egundo ez jakun bururatu.

Asperten asi giñan Captieux'en. Ostatua be ogetak libera ordaintzen genduan; eta barriz, alogerik ez geunkan lanik egiten ez genduan,



igandetan-da, eta ezer ez genduan aurreratzen. Ta lengo erara nai genduala lan egin, nagusiari esan geuntsan, eta Bouridens'era biurtu giñan.

Bouridens'en gengoza, bi bidar suak izan ziran an inguruko piñadietan. Egun baten, aste batzutan lanean jardun giñan piñu sailla amaitu genduan. Bazkal ostea zan eta ain zuzen be larunbata. Atxeki polita, beraz, arratsalde aretan opor egiteko, garbiketak-eta egiteko atxekiagaz. Astelenean joango giñan sail barrira. Ta geure laneko tresnak, aizkorak eta abar artuta, etxera joan giñan.

Ta an atadian gengoza, basoan keia jagiten asi zala konturatu giñan. Ain zuzen be, geu aurreratxoago lana amaituta etorri giñan alderdia zan. Ta kezkatu egin giñan. Olan gengoza, andra bat txirringa gainean igaro zan estu-estu, ta guganuntz eskua luzatuaz marmarka joan zan. Gure lan tokira joateko, iñoiz euren baserri ondolik igaroten giñan, eta ezagutzen genduan alkar arpegiz. Ez dakit suaren errua geuri jaurti nai euskun edo zer esan eban.

Itxurea zanez, eliz kanpaia jo eien joan zan. Orditik laster elizatzoko txiliña asi zan *tilin* ta *alan*. Beraz, besoak gurutzatuta ezin izango giñan geratu. Gaiñera, peri eguna zan auzoko erri baten eta gure errian katurik be ez egoan. Ta sua amatatera edo al zana egitera joatea erabagi genduan.

Ordurarte piñadietako sua zer zanik ez genkian, eta bera itzaltzeko zer lan egin bear zanik be ez. Guk uste genduan, edo nik beintzat, suak aurrera egin ez eian, zugatzak lurrera bota bear zirala. Beraz, aizkorak eta zerrea artuta joan giñan txirringan. Iñor ez genduan ikusi bide guztian, eta basoan iñor ez genduala arkituko ustean joan giñan; baiña ba-zan an jendea. *Kirri* eta *karra* egoan sua, sasi ta zugatzak erreaz. Gu eldu giñan alderdian, su andiak ekarren zuzenbidean, an eta emen su txiki batzuk egozan; ta txirringulak kontroletan egiten daben lez, itsuzaparradan oiñak lurrean ipiñi ta bizikletea edozelan botauaz, su aretako bat aizkoraz *blisti-blasta* amatau naian asi nintzan. Ori ikusirik, an urrean egoan gizon batek, besotik oratu ta geratu eragin eustan. Sua amataten ez lagatea zegaitik eta zan, arrituta geratu nintzan berari begira. Gero jakin nebanez, su txiki areik erderaz *contrafuego*'ak deitzen jaken orretarikoak ziran. Au da, suari aurrea artu ta erregarriak, sasi ta abar, erre, zer erre ez daukela arkitzean amatau eitean.

Gure lagunetako batek oraindik gogorragoa egin eban: ara elduaz batera, itsumustuan, lenengo arkitu eban zugatza, zugatz txikia, aizkoraz eratsi.

Gure jokerea ikusirik, euren bostian, zorotzat artuko ginduezan.

Jendea nasai egoala ikusirik, geu be nasaitu egin giñan. Alako baten, piñu adarrak eskuetara emon euskuezan eta kontrafuegoaren atzetik, beste gizon aldra bategaz lerroan jarririk, eurak biztutako su ari jarraituaz, amatau egin genduan. Lan a amaitu genduanean, barrero geldirik.

An ezer ez genduala egiten ikusirik, etxera biurtuteko gogoia egin jatan, ba-neukan zeregiña be ta. Ta lagunai esanik, eurak an lagata, txirringa artu ta etxeruntz asi nintzan. Bidean, jendarme bat buru ebela, irulau lagun etozan sua zan alderuntz; eta bide txiñorra zan eta geratu ta alboratu egin nintzan, eurak igaro eitezan. Baiña jendarme be geratu egin zan, eta nora niñoiñ itaunka asi. Nik orduan, sua amataten izan nintzala beste iru lagunekaz; baiña an ez egoala estutasunik eta lagunak lagata etxera niñoiñala, lan batzuk nitualako. Ori esan nai izan neutsan, baiña Jaungoikoak daki zer esan neutsan, nire gaztelera ta prantzestaste aregaz. Eurakaz joan neinteala agindu eustan, eta an joan nintzan danen atzetik.

Sua zan tokira eldu ta denpora apur batera ezer ez genduala egiten ikusita, ea etxera joan ete neintekean jendarmeari itandu neutsan, ta joateko baimena emon eustan. Ta biurtu egin nintzan. Andik ordubetera, beste lagunak be etxean ziran. Ez zan su andia izan.

Baiña bai urrengo baten! Urrengoa ikaragarrizkoa izan zan. Arratsalde baten, basoan lanean geniarduala, kei kolorea artu eban zeruak. Lenengoan odeiak ete ziran, gurmea ete zan, egon giñan. Baiña laster jakin genduan ziur zer zan. Airetik kedar txikiak jausten ziran. Ezpai barik, sua egoan nunbait. Baiña gengoan tokitik itxasoa lako lurralde zabala ikusten genduan arren, sua nun zan ez giñan konturatu. Gero bai; gero ikusten zan. Gugandik amabost kilometro inguruan zan sua.

Ba-geniarduan lanean, baiña su aretxek kezkea emoten eustan. Ta geuk etxera eroan bear genduan bide alderdiruntz zala-ta, bidea itxi ta txarto ibiltea jazo ez ekigun, lenengotik alde egin bear genduala esaten asi nintzan. Ordu bi ba-ziran suagaz konturatu giñala, ta lagunak be nigaz bat etorri ziran eta etxera biurtu giñan.

Oraindik urrun egoan sua gure erritik, baiña bertarako zuzenbidea ekarren. Naikoa aize zan eta erriaren gainetik, goi samar, ikaragarrizko kei lodia igaroten zan abiada bizian. Zabaleran beti neurri bardiña ekarren kei moltoia. Amai bako izara —maindire— andia zirudian. Gure alboko emakume bat etxe ingurura ura jaurtiten ebillen, begian negarra ebala. Genkusanak larriagotu egin euskun gure kezka. Sua gugana eltzen bazan, erri guztia erreko ebala uste neban, ango etxe guztiak —egia, danetara be gitxi— inguruan piñu andiak eukezala egozan da. Beraz, nun zear asiko giñan, olakorik jazoten bazan? Bide gurutzean bizi giñan. Jakiña, sua



etorren aldera ez giñan joango, baiña beste iru bide geunkazan aukeratzeko ta euretatik birek nora eroaten eben bagenkian.

Maletea artu ta iñora astea ez jatan ondo ereizten, eta au oldoztu neban neure bostean: sua errira etorten bazan, neure jantzi ta trasteak maletan sartu ta ur putzura jaurti ta alde al zan tokira. Baiña, denporeagaz, orrenbestekorik ez zala izango itxurea artu neban.

Sua urreratu zanean, illunduta egoan ordurako, bertara joan giñan, ezer egin bear bazan al genduana egiteko. Suzko itxasoa zirudian. Ekaxtetan olatu andiak amorrus danen gaiñetik aurrera egiten daben antzera, aurrera egiten eban suak, dana erreaz.

Gizon aldra andi bat, gitxienez eun, kontrafuegoa egiten asi giñan, piñu adar orritsuakak danok batera joaz. Joranez ekiten geuntsan lanari, ondamendiari arresiak ipiñi naian. Ta izerdi patsetan zaletasunik andienagaz jo ta jo geniarduala, beste alderdi batetik suak aurrera egin ebalasaten bat etorri zan. Agur gure alegiñak!

Dana alperrik zala ikusita, laga egin geuntsan lanari. Kezka bat eukan ango jendeak: sua igaro zan tokian atso-agurak bakarrrik bizi ziran baserri bat egoala, ta zar bikote arena zer izan ete zan. Gerotxoago, arriskutik atara zituela jakin genduan. Beraz, batetik suari ezer egiterik ez egoalako ta bestetik pertsona edo notiñen artean ezbearrik izan ez zalako, jendeak ez eban erakusten larritasunik. Ziur, ondamendi arek ez eutsan ikuturik egiten erri jendeari. Ta danori be iñoren kalteak min gitxi emoten dauku.

Gure nagusia —ez zan erri aretan bizi— bere beribillaren ondoan suari begira ikusi genduan. Ez egoan alai gizajoa. Bere piñadiak be erre ziran. Aste batzuk lenago geuk ebagi geuntsazanak be bai.

Ezer egiterik ez egoala ikusirik, etxera etorri giñan.

Ez neukan lengo bildurrik. Arrabetera geunkan sua, baiña lotara joatea erabagi genduan; eta ezer arriskurik gugana eltzen bazan, esnatuko giñala edo esnatuko ginduezala, ta ocan sartu giñan, ziur apaldu barik, bada orduan ez genduan euki ez gogo ta ez astirik orretarako.

Esnatu giñanean, eguna eginda egoan; eta, jakiña, aurre eguneko suaz gogoratuta, kanpora urten genduan, zer ikusten ete zan.

Dana, ixiltasuna ta bakea zan. Suak gure erri ondoan apur bat alboara egin eban eta bakean itxi euskun. Gure etxea zan suaren alderdiruntz erriko lenengoa, ta eun da berrogetamar neurkin ingurutik igaro jakun bera, eta beste amar bat kilometroan aurrera joan.

Nai ta basoa izan, beian edo lurrean sasirik ez bada, suak ez dau aurrera egiten, eta erri ondoko piñadia garbia zan eta suak ez eukan an zer egiñik.

Geuri be kaltea ekarri euskun suak. Lan barik geratu giñan. Artzeko gengoan dirua ordaindu euskun eta geiago lanik ezin emon cikigula esan, nagusiak.

Burdeos'era joan naian gengoan aspaldian eta aukera ederra geunkan orduan, geure gogo ori beteteko. Ta txirringan egin genduan osterea. Bouridens'tik Burdeos'era, 50 kilometro inguru izango dira. Ta sua izan zanetik bigarren egunera, bazkal ostean, geure txirringa zarren gaiñean jarri ta an joan giñan, iru edo lau egun igaroaz ango bazterrak ikusteko asmotan.

Burdeos'ko sarreran bertan izan neban lenengo estutasuntxo. Ni lau lagunotatik azken niñoiari, eta bide gurutze baten, beste iru lagunak igarota egozala, errizaiñak gure bideko aruntz-onuntza geratu egin eban, bestekoai bidea iragiteko. Lagunak ez ziran konturatu ni an geratu nintzanik, ta ba-joiazan aurrera. Ni, barriz, eurak ezkutau bear zirala ikusirik, estu! Egongo ez nintzan, bada, poltsikoan txoritxiki bat barik, ezagutzen ez neban erri baten, neure burua bakarrrik ia galduta ikusten neban da? Didarka be ez neban nai asi, lagunak geratu eitezen. Ta noizbait bidea guri iragi euskunean, txirringa gaiñera igoteko asti barik, paleta antzera korrika beste aldera igaro nintzan eta alik bizkorren besteen billa joan.

Kai ondoan bultzia igaroteko dagoan zubi ondoan geratu giñan ostatuz. Ango bar baten egiten genduzan goxaldu, apaldu ta lo. Bazkaldu ez, bazkaldu, eguerdian nun arkitzen giñan, antxe. Burdeos au Bilbo'ren antzekoa iruditu jatan, itxasontziz betetako bere ibai ta guzti.

Ez genduan ikusi, ta jazo be ez jakun egin, aintzat artu ta kontaten ibilteko erako gauzarik. Igari egiteko edo piztina eder bat ikusi genduana gomutaten naz; txakur erakusketa zala ta baubadea (zaunkadea) besterik entzuten ez zan toki itxi baten ondolik igaro giñana be bai. Arratsalde baten, ibai ertzari jarraituaz, emengo gudea zala ta ara joandako euskaldun ta espaiñar itxasontzi pilloa ikusi genduan. Donostia'ko Artzai Onaren dorrea baiño luzeago eukan eliza bat ikusi genduan, kanpotik; Sainte Catherine angoentzat kale ospetsua be bai. Egun baten, uste barik, bertako jaiak ziran auzune baten sartu giñan, eta arratsalde atsegiña igaro genduan. Arrastroa be ikusi genduan. Baiña politena an egin genduan bazkari bat izan zan, edo bertako jazoera bat.

Emen sartuko or sartuko ibilli ta gero, sartu giñan, nunbait. Txiro antza eukan, edo zuzenago esateko, guztiz mailla apaleko jatetxea zan,



baiña ate aurrean *Bar* izena eukan jatetxe baten gutzat lain egongo zala ta, toki apaña izan edo ez izan, ardura gitxi euskun guri.

Bazkaldu nai genduala esan geuntsanean, edozetatik eskatzeko, nai genduana eskatzeko, erantzun euskun. Ta erabagi genduan zer jan. Zukua edo sopea, arrautza utsezko tortillea ta okelea saltsan.

Ziur, orduan asi ziran gutzat zukua egiten; beintzat apur baten zain egon bear izan genduan, eta fideoagaz egindakoa ekarri euskuen. Ez zan oillo saldeagaz egindakoa. Alakoxea emoten euskuen geroago Langille Batalloietan, akeita-esnerik ez eukenean, gosaritarako: ur utsez egindakoa. Urrengo, tortillea ekarri euskuen. Euren ustez, ziur, laurontzako zana; baiña guk biren artean artu genduan eta beste alakoxe bat egiteko eskatu geuntsan. Ao zabalik geratu zan etxekandrea, ori entzutean. Ta egin eban bestea be. Azkenez tomate saltsan aragi tatoak, bildotsa-edo. Zati bat edo beste andiak ziralako, erdiko azurra ebagitea nai genduan. Etxekandrea, geuri ondo ezin eginda, gaiñean geunkan beti; ta berak zerbait ekarriko ebalta ta joan zan. Zer ekarriko ta, Jaungoiko maitea, hojalatea ebagiteko lantegietan erabilten diran burdin ugartsuzko artazi andiak ekarri euskuzan! Ta aretxegaz ebagi genduzan. Guk egin bear izan genduzan alegiñak, barre purrustadai ezin utsita!

Akeita bear bagenduan be ba-eukela esan euskun; baiña ez giñan akeita zaleak eta ez genduan artu.

Merke egin euskun bazkaria; ta ordaindu, agurtu etxekandre prestua ta urten genduan. Gosea kendu genduan beintzat.

Nitzat piñuetako unerik txarrena, bazkalondoko lo kuluxka denporea izaten zan. Eguraldi txarra, bustia-edo, ez bazan, zugatz ondoren baten ondoan etziten giñan, apur baten lo pixka bat egiteko. Nire lagunak laster egozan zurrustadaka, ta lanerako jagitean begiak gorri-gorri eukiten zituen. Baiña nik egundo ez neban begirik itxi, ta nitzat une a inpernua izaten zan. Zelako oldozkunak eukiten nituan! Geienez aste batzutarako alde egiten gendualakoan etxetik urten genduan, eta urte bi geroazan erbestean, atzerrian. Ta bizitza ona izan ezker, danik-eta ama-zuloena be egin egiten da edozein lurraldetan. Baiña zelako bizimodua gurea! Prantzia'n ez geunkan bizia aurrera ataraterik; España'ko gudeak ez eban amaitzeko itxurarik, eta beste guda andiagoren baten bildur zan jendea. Sekula biurtuko ete giñan gero etxera? Oldozkun oneik ezin izaten nituan burutik kendu, etzinda begi zabalik gora begira igaroten neban bazkalondoko aldi areitan.

Andik kanpora ez nintzan geiegi larritzen kontu oneikaz. Gazteak giñan eta, bada-ezpadako bizimoduari arpegi emoteko bizian adifnik bada,

gazte denporea da. Sabela apur bat bete ezker, erosotasun barik be bizi-gazte giñan urte batzutan.

Bein gauza barregarria basoan igaro jatan. Lurralde areik guttiz legorak ziran. Eguraldi txarragaitik lanik egin barik geratu giñanik ez naz gomutaten. Galduko genduzan kontixu, baiña ez gomutate au egun gitxi izango ziran ezaugarria da. Eguraldi ederrak izaten genduzan geienetan; goizetan iruntz gogorra ta bero gero. Egunik geiena eguzki galdatan izerdi patsetan egiten genduan, batez be arratsaldea. Origaitik, bein bazkaldu ezker, ura edaten ez giñan geratzen. Zugatzetik zugatzera eskuetan iru tresna geroazala joaten giñan: aizkorea, azala-kentzekoa ta ur botillea. Ta bakotxaren ur botillari zangadea egin eta zugatz ondoan laga ta ekin lanari.

Bein, sail barri baten lanean asi giñanean, bide-zabalaren ondoan iturria egoala konturatu giñan. Beraz, antxe artuko genduan edateko bear genduan ura; ta bazkalondotan laurok txandaka uretara joango giñala erabagi genduan. Egun baten bat, urrengoan bestea ta olantxe.

Aurreko egunetan besteak egin eben zeregin ori, ta nire txandea be eldu zan. Bazkaldu genduan, aon jatekoa nebala joan nintzan. Kilometro erdi inguru geunkan iturrira, ta bazkaria egiten genduan lapikoagaz joaten giñan uretara. Illuntzean ez zan asko geratzen.

Ba-mentorren ura artuta kantu-kantari ta, oi!, okerreko bidetik nenbillen, bidea zarratzen urten eustan zugatz batek esaten eustanez. Bada zugatz a ondo ezagutzen neban, etxerunzkoan beti be ondolik igaroten giñan da. Ba! Ez zan oker andia. Geienez be zearka eun neurkin egin eta arkituko neban bidea. Ta asi nintzan neure okerra zuzendu naian. Baiña biderik ezin neban arkitu. Atzera, aurrera, ezkerre ta eskumara egin arren, ezin bidean sartu. Nik uste neban baiño geiigo okertu bide nintzan lenengoan; eta gero, bedarrak estaltzen eban bide-txiñor aren gaiñetik igaro arren, ez nintzan konturatu. Baiña tira! An egoan bidea alako baten. Jarraitu neutsan bideari ta bide gurutz batera eldu nintzan. Baiña lengo ainbeste atzera-aurrerak nastauta laga ninduen, eta ez nekian zein bide artu geure lan tokira joateko. Lagunak ez ziralta urrun egongo ta didar andia egin neban.

— Teodorooooo!

Ez neban erantzunik izan. Ezker aldera baserri bat ikusten zan, oiñez amar miñutu inguruko bidean. Baserri a urrunetik ikusten oituta gengoan; ba-genkian bide-zabal ondoan egoana. Beraz, baserri aretara eroango ninduan bideari jarraitu; gero, ara eltzean, bide-zabalera urten;



eta, ura artzen genduan iturri aldera biurtuaz, geure lan tokira eroango ninduan bidean barrien-barri asi. Orixe zan neure asmoa.

Baiña baserri aretara eltzean, an ondoan bide-zabalik ez egoala iruditu jatan. Baserrian norbaitzuk biziko ziran ustean, joan nintzan; baiña an ez zan nabaitzen ezer bizidunik. Inguru guztietatik sasiak ito bear eban etxe zar bat zan. Dana zan berotasuna ta ixiltasuna. Zomorroen burrun-darea besterik ez zan entzuten.

Gure Lizardi andiak be, olakoxe giroan idatziko zituan bere *Urte giroak ene begian* olerkian diñozan bertso oneik:

*Ango kixkal bearra, ango marmarra,  
Ego-begi izaki ta aizak garra;  
irakin diraki, berok ezetik  
erleen egoek jo ta nasirik.*

Baiña aria eten barik, eldu deiodan lengoari. Baserri aretara joateak be argitasunik ez eustala emon ikusita, oraindik len baiño galduago neure burua ikusten neban. Ta estutu egin nintzan. Ordurarte, urez betetako lapikoari kirten bietatik elduta jira-bira guztiak egin nituan; baiña orduan jaurti neban ura ta, neure lapikoa esku batetik dindilizka nebala, bizkor asi nintzan lengo bidean. Ta miñutu asko baiño len, an nengoan len aitaturako bide gurutzean. Nik ez nekian iparraldea nun zear egoan, nun egoa, nun sortaldea ta nun sartaldea. Ta nun zear asi ez nekian, eta len baiño didar andiagoga egin neban lengusuari deituaz; eta erantzunik izaten ete neban adi-adi nengoala, *ras!*, jagi zan Teodoro, nigandik irurogei neurkin ingurura, didarka nor ete ebillen ikustera. Ikusi nebanean, barre algaraka joan nintzan beragana. Ta nire lengo ibillerak edestu neutsazanean, lenago be beste didar bat entzun ebalan erantzun eustan.

Arratsalde aretan ur barik konpondu giñan.

Sekula ez naz izan lanari iges egitekoa. *Trabajadorietan* be, al neban guztia egiten neban, eguneko alogera errialtxo bat bakarrik izan arren. Ta nire *trabajadore* lagunak egiten ez ba-eben, ez nintzan konprome izaten, ezer lanik ez zala erakusten da. Ni baiño iñuzentegorik!

Egia esateko, piñu lanean ez zan alperrik. An ez zan agintzaillearen bearrik. An ez zan kontu ta barriketarik; emon da emon, al ebanak al eban guztia. Ta ni baiño geiago edozein zan, ni baiño sendoagoga edozein zan da. Baiña ni ez nintzan aseten; beti geiago nai izaten neban. Egunean iru bidar botaten genduzan zugatzak. Azkenengo, egunean bertan amaitzeko lain. Neu nintzan bat botatekoa; ta, lagunak ogei bota bear zirala esaten

baeban, nik ogetabi edo ogetalau bota bear zirala erantzuten neutsan, eta bota be bai. Gero, bein baiño geiagotan, illuna gaiñera etorkigula ta amaitu ezinda ta basoan illunean txarto ibilli ez geintezan, lana amaitu barik laga ta aguro urten bear izaten genduan.

Piñuetan egon bear banintzan, alik-eta irabazirik andiena atara nai neban. Baiña al baneban, iges egingo neutsan lan ari. Bai orixe!

Eta iges egin al izateko bidea agertzen asi jatan. Nire koñatu Lorentzo'k, Bilbo ta Ipar-aldea Gobernuakoak galdu ebenean, Prantzia'ra iges egin al izan eban. Gerotxoago, ordutik laster, Ingalterra'ra arrantzara joateko aukerea izan eban eta ara joan zan; eta, nik eskatu barik, diru apur bat bialdu eustan: bi edo iru libra esterlina. Aurrerantzean be, noizik bein bialtzen baeustan, lan egin barik —piñu lana esan nai dot— konpondu neintekean. Ta nire gurari au jakin eragiten, idatzi neutsan Lorentzo'ri. Bere erantzuna pozgarria izan zan nitzat. Bialduko eustala bear neban dirua. Ez neban bear asko.

Nire lengusuak be aspertuta egozan piñuetako bizimodu aregaz. Ta zein ez? Ta lagatea erabagi genduan. Piñuetara baiño len be, laguntzea izaten eben eta aurrerantzean be nok lagundu ez eben paltauko.

Ta San Juanetarako Donibane'ra biurtzea erabagi genduan, an gelditzeko. Oraindik iru illabete paltau ziran. Ez jatan laburra izan aldi a. Beti buruan zenbat egun paltau ziran; nai ta be ezin kendu burutik kontu eroatea.

Burdeos'en lau egun eginda biurtu giñanean, nagusi barria billatu genduan. Españiarra zan bera; ziur, gu lez lenengoan piñu ebagiten ekindakoa.

Ordurarteko piñurik andienak ebagi genduzan beragaz, eta bakotxagaitik sei libera ordaintzen euskuzala uste dot. Oneikaz, piñu andiokaz, ez giñan errez ibiltzen zerreagaz lana egiten genduan bikotea. Ez genduzan menperatzen: Beti nengoan marmarka, gure eziña aoan nebala; baiña beste biak jaramonik ez eben egiten.

Sekula baiño txartoago ibilli giñan zugatz botaten egun baten. Bat botatean, zutiñik egoan beste baten gaiñera joan jakun. Au ez da ezer; bein baiño geiagotan edonori jazo oi jako. Baiña bigarren ori ebagitean, biak beste baten gaiñera jausi jakuzan. Alakorik! Iru zugatz alkarrerri musuka. Ez dakit zelan lurreratu genduzan.

Gure aldrako beste biak, zerreagaz asteko konturik ez baeuken be, zerbait erabagi bearra izango eben. Nik neure aldetik, artu neban erabagia: lagunak itxi.





Gure ugazabagaz, beste batzuen artean, lekeitiar birek lan egiten ehen. Egia esateko, geiago be ba-ziran lekeitiarrak an, eta lenengoan alkarregaz lana egiten ehen; baiña diñodan aldian, aitatutako biak alde eginda egozan besteakandik. Prantzes bat lagun barik, bakarrik, egoan; ta lekeitiarrak ebagitakoak egiten zituan. Zugatz bakotxari adarrak moztu ta zuri-tzea, onenbestekoa emoten eutsen lekeitiarrak prantzesari.

Neuk be lan a, modu aretan, egingo neban. Berba egin neutsen eta baietz erantzun eusten lekeitiarrak. Lagunai neure asmoa agertu neutsen, eta biaramonetik asi nintzan bakarrik lanean.

Eztabaida txikienik be ez neban izan lagunakaz. Itz batik be ez eusten erantzun, eta auzi onezaz sekula ez genduan berbarik egin. Ez piñuetan eta ez andik alde eginda be. Aurrerantzean be, jan kontuan batera jarraitu genduan. Eguerdian ez giñan batera egoten, eta neure ontzian eroaten neban, danontzat egiten genduan lapikotik artuta, neutzako bazkaria.

Arein eta nire lantokiak ez egozan alkarrengandik urrun, eta ba-neukan Rafael'en zerra laguna nor ete zan jakiteko guraritxoa. Ta bein, ixilka, urreratu egin nintzakien eta, zugatz artean neure burua gordeta, zelateka begiratu neutsen. Karlos zan Rafael'en laguna.

Ez dakit nire alde egitea sentidu ehen ala ez eurak; baiña nik neuk tamaltxoa sentiduten neban.

Baiña gero be, nitzat ez joiazan gauza guztiak nai lez. «Ez da munduan larrosarik arantzarik gabe» esaten dau abestiak eta alantxe da. Zerriari agur egin neutsan, baiña an be kontuak ziran. Ni baiño geiago zan prantzesa lanean; oituago egoan eta sendoagoa zan. Gaiñera, erramintak, aizkorea ta azala kentzekoa, obeak eukazan. Ta olan, esprintean geiago diran txirrindulariak, bidean sariren bat dagoala ikustean ekiñaldi gogortxo bategaz lagunari aurea artu ta saria eurenaganatzen dabeen lez, arek be, bardin samar giñoiazala, zugatz txikiren bat eratsi ebela ikusten ebanean, olako itxurarik egin barik, baiña *tapa-tapa* joaz, aurea artzen eustan, eta zugatz polita berak artu.

Baiña ez neukan zer esanik. Tokia edo lagunak aldatuta be, ez nintzan barrero asiko marmarrean. Gaiñera, ezin esan eitekean prantzes arek zikin jokatzen ebala; geiago zan eta bere alagaz baliatzen zan.

Baiña, ze arrai! Ez zan estututeko kontua. Aurrera joiazan denporak. Geienez be, iru-lau aste egingo genduzan piñuetan. Beraz, asarre itxurarik ez genduan agertuko iñoren aurean.

Azkenengo egunetan lan barik geratu giñan. Ez genduala piñurik bota edo lurreratu bear esan euskun piñu jaubeak. Nai izan ezker, beste

lan bat eskeiñi euskun: len zugatzai kendu ta lurrean egozan adarrak neurri baten ebagi, neurkin kubikoko onenbestean. Lan barri aretan ez egoala irabazi andirik ikusi neban, saiorik egin barik. Oitutakoan, egunean ogetamar libera irabaztera elduko giñala esan euskun berak. Ta guk, iru-lau egun barru andik alde egiteko ustean gengoazanok, ez geunkan orrenbestera elduterik. Beraz, ez joatea erabagi neban.

Nire lagunak ostera beste eretxikoak ziran; joan eta saioa egin barik ezin jakin eitekeala, ta joan egin ziran. Baiña laster jakin ehen an ez egoala zer egiñik, an ez egoala irabazirik eta alperrik zala ara joatea. Eguerdiaño egon ziran lanean.

Goiz bat galtzea ez zan ardura andiko gauzea. Baiña Karlos lagunak ebagi txiki bat egin eban atzaparrean. Txikia, zentimetro bat luze inguruko; baiña tendoiari ikutu-edo, atzaparra zirkiñik egiten ez ebala geratu jakon. Ez dakit denporeagaz ondu ete jakon bere gatxa.

Lan barik geratu giñanean, egun baten, ez dakit zelan, putz edo baloi baten jaube egin giñan. Eta fubolean jokatu genduan. Denpora askoan jolasik egin barik gengoan eta bat bateko joko arek ler eginda itxi ginduzan. Urrengo egunean, erderaz esanda, agujetak neukazan; eta, orregaitik, izentautako egunean ezin joan izan giñan Donibane'ra, ta egun bat edo bi atzerago joan giñan.

Karlos'ek ez eukan iñor Donibane'n eta ez iñun Prantzia'n. Beraz, arek ezin eitekean Donibane'ra etorri ta antxe geratu zan, eta berari laga geuntsan danona zan zerrea. Azala kentzekoak be antxe geratu ziran. Aizkorak ez, aizkorak osabanera ekarri genduzan; kirten barik, uste dot.

Nik, neure azala kentzekoa, sukaldean, zearka esegita, laga neban, azpian ingi baten bertso bi jarriaz. Ez nebala nai geiago piñu lanik egin eta ez peladorarik esketan artu, esaten neban.

Zelakoak ete ziran nire lenengo eta ia azkenengo bertso arek! «Ia azkenengo bertsoak» diñot, bada beste bein bakarrik egin nituan zer edo zelako (zeozelako) batzuk.



## BARRIRO ZIBURU'N

Donibane'ra txirringan joateko ustea geunkan. Geure gauzak Saint Siphorien'dik bultziz bialdu genduzan; eta agujetak joan jatazala ikusi genduanean, betiko laga genduzan piñuak.

150 kilometro inguruko bidea egoan andik Donibane'ra. Bide luzea, batez be Teodoro ta nire moduko txirringan ikasi barrientzat. Baiña egunak luzeak ziran eta egingo genduzan kilometroak astiro-astiro.

Ta goizean, eguna argituaz batera, urten genduan. Ez dakit zer egun zan; geienez be, lau bat egun peitu ziran Donibane egunerako. Asi ta laster, nire agujetak oraindik kendu barik neukazala konturatu nintzan. Nekea gorputzean nabaitzen neban. Ta kilometroak eginda be ez nintzala obetzen ikusita, bultzia egoan errira eltzean bertan sartu bearko giñala esaten neban, ta uste orregaz giñoiazan.

Bouridens'tik urten eta 25 kilometro bide ingurura, erritxo baten, baseritar pillo bat, euren esne ta saltzeko jakiakaz, autobusean sartzen egozan. Ni eurai begira niñoiala, aurreko lagunaren txirringa jo neban, eta ipurdiz gora jausi. Era aretan ikusi ninduenean, barre algaraka asi ziran baserritarrak, eta geu be barrez jarri giñan.

Barriro asi giñanean, lenengoan, zati baten, beste jardun gairik ez geunkan nire jaustea baiño. Ta, irri ta barre egiñaz, ba-giñoiazan. Ta, kilometro batzuk alan giñoiazala, lengo neke a joan jatala konturatu nintzan; jausi ta barriro txirringan asi ezkeru ez nebala nekerik nabaitzen. Alan jarraitu ezkeru, ez geunkan bultzian sartu bearrik. Ta an giñoiazan, neuk zetara egingo ete neban. Baiña ez egoan bildurrik; kilometroak igaroz giñoiazan, baiña ondo arkitzen nintzan. Ori ikusirik, zearo laga genduan bultzian sartzeko asmoa. Ta poztu egin giñan, bada bide a txirringan egiteko gurari bizia geunkan.

Urten eta 50 kilometro ingurura, ardandegi edo orretariko baten geratu giñan amarretakoa egiteko. Gitxi gora-bera beste ainbeste bidera, barriro geratu giñan bazkaltzen. Arratsaldean, geratu barik ekin geuntsan Baiona'ra arte.

Ona eldu baiño len, Landes'etako lurraldean gentozala, erritxo bate-tik igarotean, kinkillero batek españiarrak edo euskaldunak edo danadala-koak giñala igarri euskun; eta, besoak jasoaz eta irribarrez agurtu naian, «Hola, mekaun tall» didar egin euskun, Goikoagaitik biraua jaurtiaz.

Ondo ekian, itxura zanez, gutarren oitura zikin orren barri.

Baiona'n kaira edo ibaira joan giñan, senide neban Paulo «Saxu»-aren itxasontzia egoan tokira. Gizon au, Paulo Etxaburu, lau semegaz urten-dakoa zan Ondarru'tik, frankotar gudarien igesik; eta ordurako seme bat, Esteban, mutil gazte lodikotea, galduta eukan Asturias'ko gudan. Beste iru semegaz egoan orduan an, Baiona'n, *Lau anaiak* izeneko arrain itxasontzian. An jardun aldi bat egin genduanean, jakiña, Donibane'ra.

Ibillaldi luzea zan egin genduana, baiña bat be neke barik egin genduan. Bidea, ia Euskal Erri'ra arte, ezinta onagoa zan; aldatzik bakoa. Ia aspertzekoa be bai, beti laua ta beti zuzen.

An gengoan barriro Ziburu'n, osabanean.

Milla ta bosteun libera inguru aurreratu nituan, zortzi illabeteko piñu lanetan. Zerbaiten jaube ba-nintzala uste neban, baiña luzaro baiño len iges egin eusten; ondo begiratuta, bost illabete ez eusten egin.

Piñuetara joan aurreko bizimodu berbera egiten genduan. «Alegera» abesbatzan abestuten asi giñan barriro. Aldakuntza bat bakarra: txirringak geunkazala, ta noizik bein artu ta ibillaldi batzuk egiten genduzan.

Ziburu'ra joan da laster, txirringularien Prantzi'ko Birea zan. Urte aretan, baten, Baiona'n zan eguneko ekiñaldiaren azkena. Ta ara joan giñan bost edo sei mutil. Egun aretan bidean joiazanak lasterketea eben buruan, ta danak zein geiagoka lez joiazan. Geu be, Bidarte'ko aldatza astean, al ebanak al ebana emoten asi giñan. Gora orduko, alkarri alde galantak kendu geuntsazan. Irazoki abizeneko napar gazte bat eldu zan lenengo ta, abiadea gitxituaz, itxaron egin eustan. Alkartu giñanean, Rafael etorrela ikusi genduan; eta ari biok itxaron geuntsan eta irurok batera joan giñan. Besteak ez genduzan ikusi, Baiona'ra eldu ziran arte.

Izentau dodazan irurok alkarregaz giñoiazan estutasun barik, eta alako baten gazte batzuk abiada bizian igaro jakuzan albotik. Ori ikusirik, nire lagunak bizkortu egin ziran, eta besteakaz batu ta eurekaz joan ziran. Ni, barriz, ezin izan nintzan batu, alegiñak egin arren; eta Baiona'ra arteko bide guztia euren atzetik egin neban, bakarrik, berrogetamar-eun neurkingo atzerapenagaz.

Ler eginda geratu nintzan. Baiona'n, beti lez, ibai ondora joan giñan, senide ta lagunak nituan itxasontzi ondora. An, moilla gaiñean kontu-kontari gengoazala, larrialdia eldu jatan. Ezin nintzan zutunik egon eta lurrean jarri (jezarri) nintzan. Baiña jarrita be, ezin nintzan egon eta neukan luzera guztian etzin nintzan. An egozan lagunak zer ete neukan begira; baiña une bateko ondoeza izan neban. Miñutu bat edo beste igarota jagi nintzan. Geiago ez neban ezer izan. Txirringulariak izan oi dabeen, erderaz *desfallezimentua* edo esaten dana zan; lengo nekien ondorena.



Gero, etapearen azkena izango zan belodromora joan giñan. Ordainduta zan sarrerea. Ikuskizun politak ipiñi euskuezan. Ia guztiak txirindularien esprinteko lasterketak.

Amerikana erako lasterketea egiten ziarduela, bat-batean kanpaia joten asi ziran, larri-larri. Itxurea zanez, Prantzia'ko Birako txirindulariak gaiñean ziran, uste baiño askotaz lenago. Amerikana egiten ziarduenetako bat, alboratu ta geratu egin zan; beste alderdian joian txirindulariak, jarraitu egin eban eta eldu arraiara. Ta sartu zan belodromoan txirindulari bat, lenen etorrena, ta jendearen txalo artean igaro zan.

Danok itaun bat egiten genduan, bardiña:

— Zein da?

Iñok ez eban erantzuten, iñok ez eban ezagutzen da. Jendea marmarreen asi zan, eta laster jakin genduan zer jazo zan. Belodromoan alako zalaparta sortu eban txirindularia, ez zan Prantzia'ko Birako lasterketaria, arpegi andiko lotsabako bat baiño. Sartu zan atetik bertatik geratu barik joan zan. Nik uste dot, gau aretan espetxean lo egingo ebal. Merezi eban beintzat.

Etapea zeinik irabazi eban ez naz gomutaten; ez zan entzute andiko txirindularia. Maillot oria zeinik eroian bai, gogoan daukat: Leduquc ospetsuak.

Gu Prantzia'ra joan giñanean, «*laisser passer*» izeneko agiria emon euskuen. Agiri axe zan an balio euskun bakarra. Beti aldean erabilten genduan; geienetan galtzen atzeko poltsikoan, karteran edo olako iñun sartu barik. Ta bein, ixiko Maria, galtzak garbitzean, poltsikoan zer neukanik ez zan konturatu ta agur nire «*laisser passer*» agiria! Ezetarako ez zan paper zarra geratu zan.

Derriorrekoa neban agiri a, ta beste bat egiteko oinkadak emoten asi nintzan; ta argazki bat eroan eragin eusten poliziakoak, eta andik iru-lau egunera an neukan gertu barria.

Ez nintzan asko poztu beragaz, eskuetara emon eustenian. Beko ertzean, eskuz idatzita, itz pilloa eukan. «*Situation précaire*»n edo ei nengon, eta au ta bestea. Prantzia'n poltsiko utsekoari txarto begiratzan eutseta ba-nekian, eta itz orreik nire ustez ez-eukia edo nintzala esaten eben eta kendu nai nituan. Gaiñera, ez zan egia, orrenbestean beintzat, nire ez-eukia; bada bear nebana Lorentzo koiñatuak bialtzen eustan. Orduan be baneukazan dozena erdi libra esterlina. Ta berba orreik kendu naian asi nintzan, bateri ta besteari itz egiñaz. Ain zuzen, aldi aretan, Scola, Ondarru'ko nire nagusia ta andrea andik igaro ziran, eta ostatuz egon zan hoteleko nagusia Donibane'ko ziñegotzia zan eta beragaz berba egin neban.

Ikusi eban agiria. Berba areik ez eukela ezer garrantzirik esan eustan; baiña ezer jazoten bajatan, beragana joateko.

Ziburu'ko erri idazkariarengana be jo neban; ta gero, Donibane'ko erri zaiñen buru egiten ebanarengana, ondartzan ezagututa geunkan bere semearen bitartez. Danengandik berba bardiñak entzun genduzan. Agirian ziñoanak ez niduala txarto ipinten, berba areik garrantzirik ez ebela; baiña ezer okerrik izaten baneban, eurakana joateko, pozik lagunduko eustela ta. Iñok ez eban nai poliziakaz sartu. Ba-ekien kontixu alperrik zana; edo euren arazoetan iñor sartzea, oneik txarto ikusiko eben gauzea izango zala uste eben.

Ori ikusirik, burua makurtu egin bear izan neban, «datorrena datorrela» esanda.

Milla bederatzireun eta ogetamazortzigarren urte aretan, guda odeiak illuntzen eben Europa. Hitler'ek, berak nai eban guztia emon ezik gudea sortuko ebana, garbi ikusten zan. Ta ezin emon eitekion nai eban guztia, mundu guztia emon ezik a asetzekorik ez egoan da.

Uda aretan Ameriketara joateko burutasuna ipiñi eusten. Ara zelan izan zan:

Gu ez giñan sekula ardanegi ta kafetan sartzen; baiña gure lagun Ixidor'en anaia Manuel, erredujiatuak batzen ziran kafe-etxe batera joaten zan; eta, guzur eta egi, ainbeste kontu jakiten eban. Ta aretxek esanda, Venezuela'n arrain lantegi bat ipinteko ziralala jakin eban Ixidor'ek; eta bear bada gutzat lana izango zala bertan, eta araxe joateko bideak egiten asi bear giñala ta berotu ninduan.

Ixidor'ek, edo obeto esanda bere sendiak, arrain lantegia eukan Ondarru'n, eta berak antxe lan egiten eban. Nire zeregiña be orixe zan, eta gaur be bai; arrain lantegiko langillea nintzan.

Len esan dodan lez, Europa'n ez egoan gauza onik eta gertu jarri nintzan Atlantiko itxaso andiko urak igaroteko. Venezuela'k Prantzia'n eukan enbajadore jaunak, antxe Donibane'n udea igaroten ei eban, eta araxe joango giñala esan eustan nire lagunak.

Aranguren zan enbajadorearen abizena eta, gero berak esan euskunez, orain irureun urte joan ei ziran Ameriketara bere aurrekoak.

Egia esan, nik neuk gogo gitxi neukan era aretan iñora joateko. Guk Ondarru'n lan egiten genduan arrain lantegiak guztiz atzeratuak ziran, iñora ezer irakastera joateko; gaiñera, guk ezagutzen ez genduzan arraiñakaz lan egin bearra izan eitekean an. Baiña nire lagunak ez eukan olako kezkarik; len be, arrain txikiak eskabetxe eran egiten, ni baiño oituago egoan. Ta aren gerizara ez neukan bildurrik.



Olan, bada, Aranguren'ek Santa Barbara auzoan eukan txaletera joan giñan goiz baten Ixidore eta biok, bere anaia zarra, Manuel, gure zaintzaille lez genduala. Etxe barruan sartu ginduzan, eta patxadan jarri ta nai beste berba egin genduan. Nik neuk ez asko. Ez ekiala berak arrain konturik esan euskun, eta arraiña kontserbatea zelana idatziz agertzeko, gero berak ara bialtzeko, gure zerbait ikusi eien bere aberrian. Tekniko lez agertu zan Ixidore, eta ni esku langille lez; beraz, Ixidore'eri zegokion idatzilana egitea. Ta egin eta eroan eban.

Gurari bizia eukan Ixidore'ek Venezuelara joateko; ames andiak eginen zituan. Etorkezuna antxe moldatu eikeala ikusten eban.

Egunak aurrera joiazan eta an gengoan ea zer erantzun elduko jakun. Egun baten, apal ostean, jan ontziak garbitzen niarduala, ate otsa izan zan osaba Donato'nean. Nor ete zan atea iragi geuntsan, eta enbajadorearen txoperra zan nire itaunka. Eskaratzean sartu genduan, eta enbajadorea neukala zain kanpoan esan eustan. Zeatzago esateko, «*El señor ministro le espera*» esan eustan. Biotza taupadaka asi jatan, eta eskuak legortu ta aurreko amantala kendu ta urten neban. Beribil barruan egoan bera, Agorette kaleko Gouchour Baita (Guzur Baita) etxetxoaren aurrean. Agurtu ta gero, nitzat baietza etorri zala Venezuela'tik esan eustan, eta urrengo egunean bere etxera joan neinteala, gauzak obeto jakitera. Orduan, Ixidore'entzat zer barri egoan itaundu neutsan. Onentzat ezetza etorri zala erantzun eustan, teknikotzat, gu baiño len aurkeztu zan Ituar-te abizeneko getariar bat aukeratu ebela ta.

Lur jota laga ninduan albista arek. «Agur nire Venezuelara joate!» nire bostean esan neban. Jakiña, enbajadoreari ezer ez neutsan esan.

Joan zanean, bereala Ixidore'engana joan nintzan. Ordurako oean sartuta egoan. Zer jazo zan esan neutsanean, «Galdu nazul!» esan eustan, buruari esku biakaz elduta.

— Nik galdu? Nigaitik aske daukazu bidea, joan nai badozu —erantzun neutsan.

Andik etxeratu ta eskutitza idatzi neutsan enbajadoreari: Egia zala arrain lantegiko langillea nintzana, bizi guztian orixe izan zala nire zeregiña ta. Baiña Ixidore barik ez niñoiala, bada an zer erakutsi gitxi neukala. Ta parkatzeko nigaitik egin bear izan zituan lan eta aruntz-onuntzak.

Gau aretan bear bada lo asko ez neban egingo, baiña Ixidore'ek gitxiago. Au biaramon goizean Aranguren jaunarengana joan zan. Ta ain zuzen, bera antxe egoala artu ei eban enbajadoreak nik egin neutsan eskutitza.

Nire errian ea zer irabazten neban itandu ei eutsan enbajadoreak Ixidore'eri.

— Zortzi laurleko inguru eguneko.

— Eguneko zortzi laurlekogaitik lagaten dau Venezuela'ko etorkizuna? Gizarajoa!

Nitzat ekarri eban itunbena auxe zan: Arunzkoa ordaindu ta urtebetean eguneko iru bolibar. Gero jakin neban, ez zan irabazi andia; baiña beintzat, Europa'ko ekatxari iges egiteko erreztasuna zan.

Baiña zerbait nintzala ta ara joan eta lotsagarri geratzea baiño, edo zer be naiago neban eta ez nintzan joan.



## ETXEDOIA

Udearen azken aldian, barri pozgarria eldu jakun. Euskadi'ko Gobernuak, gero errefujio izenagaz ezagutzen genduzan etxeak ipinten zituala Capbreton'en eta Itxasu'n, laguntza bearrean arkitzen ziran emendik ara joandako euskaldunentzat. Duan egongo ziran bertan.

Gutzat be ondo etorren a, ta ara joateko bideak egiten asi giñan. Kepa, Paulo Soxu'ren semea, joan zan lenengo. Au orduko gugana etorrita egoan osaba Donato'nera, ta zortzi-amar egun gugaz egin zituan. Zokoa'ko ondartzan Albizu abizeneko elgoibartar bat ezagutu genduan; eta Itxasu'ra joan nai genduala jakin ebanean, bere anaia ango zuzendariaren laguna zala ta lagunduko eskula esan eban. Ta alan, bere anaiak eskutitz bat egin eban, ara elduten giñanean zuzendariari emoteko. Iragia (idekia) zan eskutitza ta irakurri egin genduan. Gu koitadu batzuk bai giñan idazten eutsan, laguntza premiñan arkitzen giñanak. Ez jakun atsegin izan ain koitadutzat artzea, ta apurtu egin genduan eskutitza.

Kepa'ren urrengo, Teodoro ta Rafael andia biak joan ziran. Ni ez naz gomutaten zegaitik, baiña egun batzutan ezin nitzan ara joan.

Joateko eguna eldu jatanean, lagun batzuk zain neukazan agur egiteko Ziburu'ko enparantzan, pelota toki ondoan. Ezin itxi arte beteta neukan maletea, txirringa atzean lotu neban, eta asi nintzan joaten. Atzeko zama a guztiz arrotz egin jatan, ta batera ta bestera giñadaka asi nintzan, paillazoak zirkuetan egiten dituen antzeko zirkiñak egiñaz, noiz jausiko. Geratu egin bear izan neban. Nire lagunak egin zituen barreak orduan!

Neu be barrez nengoan, baiña naikoa buruaustegaz, ezingo nintzala joan da. Lagunak baiña, baietz eta baietz, erreza zala ta barriro asteko, esaten eusten. Ez neukan beste biderik eta, bildurrez bada be, asi nintzan. Baiña bigarren onetan ez nintzan okertu, kontu andiagaz asi nintzalako kontixu, ta lagunai agur esanaz aldendu nitzan andik. Itxasu'ra arteko bidea txirringatik jatsi barik egin neban, ezta aldatzetan be.

Itxasu'n, gure bizi tokia Etxedoia izeneko etxe andi bat zan. Gu joan giñaneko, berrogei bat lagun bizi ziran an, geienak mutil gazteak. Zubizarreta'tar Iñazio, bergarar adiñeko gizona, zan zuzendaria. Geroago, Etxebarria'tar Bitor, bilbotar gaztea, etorri zan kontulari. Abadea ta osagillea be ba-geunkazan, eta andrazko bi garbiketarako.

Arratsaldean, egunero etxean bertan agurtza otoitztu ta ebanjelioa edo erlejiñoiko beste gairen bat azaltzen euskun abadeak. Etxean gengo-zanean, geienok joaten giñan agurtza orretara.

An gengoan gaztediak, emoten euskuen beste ainbeste errez jango genduan; eta jardiñean gengoazala jaterako «tan-tan» deia joten asten ziran, laster zirkin egiten genduan.

Gudan ibilli ziran mutillak, gu ez beste guztiak, ez egozan ikaste-txeetako edo gudari etxeetako disziplineagaz egoteko, ta zerbait marmarra izan zan. Ta Etxeberria'tar Elias, abaro etxeen arduraduna, donostiarra bera, etorri jakun, ta sermoitxo bat modu onean egin euskun.

Baten, maian aurrean neukan Kelmén izeneko elantxobetar mutil gazteak, nire aurka berba egin eban; ni, gudan ibilli ez nintzalako, euren ondotik bialdu egin bear ninduekela. Gogor erantzun neutsan eta bertan bera amaitu zan dana.

Erriz-erri kontuan artuta, ondarrutarrak giñan geien Etxedoia'n; ia ogei ba-giñan. Gu iru lengusuok eta beste bat kenduta, danak arrantzaleak. Getariarrak, lau arrantzale ta baserritar bat egozan. Euretatik bat Larrañaga abizenekoa. Gizajo au, urrengo neguan, Getaria'tik arrantzan ebillela, beste iru anaiakaz batera ito egin zan. Bizkaitarrak ba-ziran merkante itxasontzietako piloto ta kapitan, iru-lau. Aitatu dituanetatik kanpora, danetarikoak ziran: arrantzale, baserritar, langille ta abar.

Zer egiñik ez geunkan eta eskola apur bat ikasteko erea ipiñi euskuen. Batzuk lenengo maillako ikasketea ta besteak kontabilidatea. Neu be bigarren sail onetan ibilli nintzan. Irun'go Orbegozo'tar Benito zan irakasle gugaz. Illa batzuk egin genduzan; eta bein, azkenean, egin genduzan balanze ta liburuak itxi edo zarratzea.

Gero aspertu-edo egin giñan irakasle ta ikasleok. Edo, zuzenago esateko, beste buruauste batek kezkatzen ginduzan: gaiñera etorkigun gudeak.

Denpora eroangarri, beste zerbait be asmau genduan lengoaz gain lenengotik: abesbatza. Abesbatz onen zuzendari be Orbegozo zan. Bere lana erreztuteko, ondarrutar birek laguntzen geuntsan: Azpiri'tar Joaquiñ'ek lenengo tenor saillari erakusten eutsan, eta nik bigarren tenorrai. Ta berak, Orbegozo'k, baju saillari. Besterik ez egoan an, solfeoa ekienik, notak ezagutu-edo izan ezik. Baiña nai aiña asti geunkan ikas saioak egiteko, ta polito ataraten genduzan abestiak.

Meza bi ikasi genduzan, biak Perossi'renak: Iru abotsetakoa ta *Requiem*'goa.

Mezea abestuteko, Beobide abizeneko bat etorri jakun organua jotera. Abizen ori eukan ereslari naikoa ospetsua ba-zan orduan Gipuzkoa'n;



baiña gugana etorten zana beste bat zala uste dot. Baten, elizan bertan saioa egiten geniarduala, geratu eragin euskun didarka; bigarren tenorrik nota bat txarto egiten ei genduan. Alantxe zan. Neu nintzan alan irakatsitakoa. Meza oso bitan nota bat bakarrik txarto artu ta irakastea ez zan lan txarra.

Nik Perossi'ren iru abotsetakoa Ondarru'n entzuten neban, eta osorik artuta ezaguna neban; baiña *Requiem*'goa bein be entzun barik nengotan. Gero jakin nebanez, lenengo maillako edo *Primeru*'ko illetetakoa ei zan. Ta nire senideen artean *Primeru*'ko illetarik iñori ez jakon egin, eta orduan oraindik ez nintzan koruko abeslaria ta ezin ezagutu. Bakarrik *Dies Irae* ezagutzen neban, Domuru Santu egunetan-da abestuten zalako.

Bi edo iru bidar mezak abestu genduzan bertan Itxasu'n. Bat, *Requiem*'goa, milla bederatzireun da amalauko gudearen ez dakit asierea ala amaiera ospatzeko izaten zan egunean. Beste abestiak, euskal abestiak, Itxasu'n, Kanbo'n eta Baigorri'n be abestu genduzan. Emen, meza be bai kontixu. «Kalez-kale» abestuteko, Orbegozo berak txistua jotzen eta bere orde z Azpiri'k abesbatza zuzendu.

Baten, Getaria'ko abade bat etorri zan saioa zuzentzera, ezer okerrik bageunkan zuzentzeko asmoz. Bere abizena Aranburu zala uste dot, baiña onezaz ez nago ziur. Ni ez nengotan Itxasu'n egun aretan. Zerbait zuzendu ebalan esan eusten.

Errefujio etxean agintari edo arduradun ziranak, geuri lana emoteko bidea asmau eben; abarketak egite lana. Beste errefujio etxean, Capbreton'en, ekiten eutsela lan orri jakinda gengoan; ta abarketak egiteko mai pilloa ekarri eben Etxedoia'ra. Baiña ango gazteak, askok, lan orretan asteko gogorik ez eukin; iñok ezin eikezala lan orretara beartu esan ebena izan ziran. Eta jendearen gogorik eza nagusien belarrietara eldu zan nunbait; beintzat, bertanbera amaitu zan gauzea. Ez euskuen ezer esan lan orrezaz.

Nik neuk pozik elduko neutsan lan orri, zerbait ikastearren be, nire arrain lantegiko —nirea ez— lan zikiñagaz aspertuta nengotan da. Baiña ikasi banau be, alperrik izango zan, gaur alako abarketarik iñok ez dau erabilten da.

Euskerarik ez ekien bilbotar batzuk, edo Bilbo ondokoak, egozan Etxedoia'n. Ta zarauztar bat, Etxabe, maixu ebela, ikasten asi ziran. Baiña orixe, asi bakarrik; bada astebeterik ez ebela iraun uste dot. Baiña baziran bi, euskera ikasteko benetako zaletasuna eukenak. Nik uste dot, euren errietan bizi ziranetik ibilliko zirala arazo onetan. Bat bilbotarra zan; bere izen abizenak ez naz gomutaten. Frankotar gudaria zala, Napparroa'ko

mugatik iges egin eban. Bestea Areneta'koa (Las Arenas), Abelino Gonzalez Zulaika izen abizenez; itxastar gaztea, nautikoa, gitxi moduko mutil zintzoa.

Oneik ez eben nai izaten guk, erriko euskerea baiño ez genkianok, eurai ezer irakasten asterik, txarto irakatsiko geuntsan bildur ziran da. Ni orduko asita nengotan euskal asterokoetan idazten, eta eurakaz musturra sartu naian egoten nintzan. Baiña arek ez ekien nire euskera zaletasunaren barri, ta nigaz be ezer ez eben nai.

Bein, zer egiten eben zelateka begiratu neutsen, eta euskaldun belarriak iñundik ontzat ezin emon eikean utsa eukin idatzita. Nik orduan eurai:

— *Eso está mal. Se escribe así y así.*

Euretako batek:

— *Y ¿dónde metes el artículo?*

Ta nire erantzuna:

— *Y ¿qué es artículo?*

Ara or, ni zenbat nintzan gramatikan. Artikulua zer zan be ez nekian.

Ez dakit jazoera onek eraginda ala berez, andik laster gramatika ikasteari ekin neutsan; artikulua, pronombre, aditza ta abar zeintzuk ziran ezagutzen asi nintzan. Gero, neure jira-bira guztiak eginda etxeratu nintzanean be, jarraitu neutsan zeregin oni apur baten. Baiña gramatikan nik ikasi al izan dodan guztia, edozein amar-amabi urteko umek dakiena baiño geiago ez da izan.

Edonun be, mutil gazteak ondo ikusiak izaten dira neska gazteen artean. Mutillak eurak be, bein etxetik alde egitean, nesken adiskidetasuna gogo andiz billatzen dabe. Ta neskentzat ez dago atzeritar mutillik eta erritarrik. Itxurazko mutilla bada, edonungoa izanda be, atsegin izaten jake. Egia, mutillai be bardin jazoten jake neskakaz.

Itxasu'n be, Etxedoia'ko gazte batzuk ango neskakaz adiskide ziran. Bein, illuntze baten, bateon batzuk arrika egin euskuen sasi artetik, Kanbo'tik gentozala. Arriketa andia ez zan izan; iru-lau arri txiki jaurti euskuezan, eta aringa-aringa txikia egiñaz iges egin genduan. Baiña beste lagunai gogorrako ekin eutseen; baekien kontixu arek zirala nesken adiskideak. Ta ori gitxi bailitzan, igande gau baten, gaberdian, Etxedoia ondorra etorrita, didarka ta ate joka nabarmen ibilli ziran liskar billa. Jakiña, ez geuntsan jaramonik egin. Nik, egia esateko, ez neban ezer entzun. Beti be lenengo loa gogorra izaten dot.



Kontixu, jazoerok ango bikario jaunagana eldu ziran, eta igande baten, mezatan, gure alde gogor berba egin eban. Gudea zala-ta etxetik alde egin bearra izan genduanok ondo artzeko, arren, eskatu eutsen bertakoai. Eurak eta gu bat giñala odolez, bat mintzairaz, bat fedez.

Geiago ez genduan ezer izan angoakaz.

Bein, Basarri bertsolaria euki genduan. Ondarrutarron artean baziran bere adiskide ziranak, eta ekarri bear ebela-ta ebiltzan beti. Ta lortu eben baten euren guraria, ta an euki genduan egun guztian.

Bat bateko bertsorik ez eban bota, edo ez naz gomutaten beintzat; baiña alan da guztiz be, atsegiñez egon giñan berari entzuten; esan euskuzan milla kontu. Bertso zarrak be abestu euskuzan. Euren artean, Otaño'ren «Lagundurikan danoi» izenekoak. Orduantxe entzun nituan lenengo aldiz. Bere doiñua ordurarte sekula entzun barik neukan, eta arrezkero be ez dot entzun; berari, Basarri'ri be, ez dausat entzun, bertso orreik abestutean. Ta doiñua buruan artzen bixkorra ez banaz be, ori betiko gomutan geratu jatan, eta orain ainbeste entzuten diran bertsook doiñu aregaz abesten dodaz.

Naiago neban euki ez baneu neukan txirringa zarra, ernegaziñoia emoteko baiño ez zan da. Danai laga bear; ta beti eukan norbaitek joan bearra batera edo bestera. Eskatzen eustanari betozkorik ipinten baneutsan, «anaitasun» berbea aitatuko eban. Baiña txirringak ezer okerrik izaten baeban, lepoa (bizkarra) jasoten eusten. Txori-txiki batik iñok ez eukan, eta arei ezer ataratekorik ez egoan.

Bein, bilbotar gazte batek «*ocho*» eginda ekarri eustan aurreko burbilla. Gazte a, *Libe* antzezlanean, mutil txikia egiten ebana ei zan. Alantxe zan izan be: txiki-txikia. Ogei urte izango zituan eta amabi-amalau urteko mutilla baiño andiagoa ez zan. *Raspa* ezizenez ezagutzen genduan.

Bein, uste barik, Zubikarai'tar Agustiñ'en eskutitza eldu jatan Endaia'tik. Ta barruan argazki bat. Kanjeau edo trukatako izparkariak ziran. Bera zan bakarrik euskal idazlea edo euskera idazlea. Egun areitan mugea igarota egozan.

Biaramonean, beste baten txirringa arturik, joan nintzan beragana. Neurea, orduan be, zerbait atxakigaz neukan. Pozik alkar besarkatu genduan, eta nai beste kontu esan. Agintzen eutsena egin bear eta Bartzelona'ra joateko ustean egozan. Ez zan orduan denpora egokia ara joateko, gudearen amaia gaiñean ikusten zan da. Ta ez ziran joan. Urrengo, ordutik illa batzutara, Larresoro'ko osatetxean ikusi neban, ebakuntza eginda egoala.

Itxasu'tik Endaia'rako ostereak larogei kilometro inguru ditu; ta orduko ibillaldia, piñoi desegokiagaz joan nintzalako-edo, astun egin jatan. Ta etxerunzkoan, azkenerako indar barik geratu nintzan; eta Ezpeleta'ra eldu nintzanean, aurrera joateko gauza ez ta bertan geratu ta ala olako jatetxe baten apaldu egin bear izan neban. Ezpeleta'tik Itxasu'ra bost kilometroko bidea baiño geiago ez izan arren, derriorrean egin bear izan neban aparta a, neukan auleriagaz ikusi be ez neban egiten da.

Beste bein, Donibane Garazi'ra joateko gogoa etorri jakun eta txirringaz joan giñan iru lagun: Arrizabalaga'tar Joseba, ondarrutarra bera; nire lengusuetatik bat, Teodoro uste dot, eta neu. Lengusua ta ni erri aretara sekula joan barik gengoan.

Joan giñan bada bazkal oste baten; eta, an denpora apurra egin ondoren, ba-gentozan. Alako baten, bat-batean, ikaragarrizko zaratea etorrela atzetik sentidu genduan. Zerbait gaiñera etorkigula ikusi genduan, beste biak bizkortu egin eben eroen abiadea; nik, barriz, eskumatik ondo niñoian arren, zaratea be eskuma aldetik etorren eta, atzera begiratzeko asti barik, oso-osorik ezkerrera biurtu neban txirringea, baiña zearka niñoiala zapalduko ninduan bildurrez. Ta itsumustuan egin neban zearkako aregaz, bide baztarreko orma txiki edo petrilla jo ta bidez kanpora jausi nintzan, atxen edo arri andien gaiñera. Ibaia egoan irulau neurkin berago. Jausi ta geratu nintzanean, jakin neban zarata a zelan izan zan: bultzia etorren gure eskumatik, bide-zabala jaten.

Alderdi a ezagutu bagendu, igarriko genduan atzetik etorrena bultzia zala; baiña burnibiderik egoanik be ez giñan konturatu; edo konturatu bagiñan be, orduan aztuta geunkan eta an bultzirik ibilli eitekeanik ez jakun bururatu. Ta bat-batean geu zapaldu bearrean atzetik sartu jakun zerbait zaratatsu a, gaiñera etorkigun kamioi andiren bat-edo zala iruditu jatan. Jakiña, zaratea, kamioiarena baiño askotaz andiagoa zan; baiña zer izan eitekean, bada, bidea betean etorrena?

Bultzi gidariak, gure ikarea ta zirkiñak ikustean, barre be egingo eban.

Geuk be egin genduan lenengoan. Baiña laster joan jakuzan barreak! Jaustean, ebagia egin neban orkatilla onduan. Ez zan andia. Iru zentimetro ingurukoa, baiña bildurtzeko aiña odolek urtetan eustan. Sudur zapiagaz aztala estutu eusten, odol-ustu ez neintean.

Albait ariñen zerbait osaketa egitea komeni jatan, baiña ez etorren beribil batik be, lenengo errira eroan nindeien. Ta errira joan eiteala esan neutsan Joseba'ri, ta besterik eziñean tasisa ekarri eiala. Joan zan bere txirringan eta bereala biurtu zan; andik laster baserri bat ei egoan. Ta berak



lepoan artuta eroan ninduan. Etxekoandreak urten euskun eta zinka andi baten ura, ta izara (maindirea) edo olako zar bat zatituaz, borondaterik andienagaz nire zauriari lenengo osaketea egiten alegindu zan. Garbitu ta lotu eustan zauria, ta geratu edo erdi geratu jatan odola. Beraz, nasaitu nintzan.

Ni etxerako bidean ipintea palta zan bakarrik. Ta ez zan erreza izan axe. Min artu ta ordu erdi igaro zan lenengo beribilla agertu zanera. Etxekoandreak berba egin eutsen prantzesez beribillekoai, ea Itxasu aldera joiazan eta eroango ete ninduen. Emakume gazte bi ziran, ni baiño zar-txoagoak. Erderaz polito ekien eta ixildu barik joan giñan bide gutzian. Etxedoia'ko atean laga ninduen.

An geunkan osagilleak, granpakaz josi bear zala esan eustan; eta ez eukazala ta ekarri egin bear zirala. Baiña orkatillan marka geratu edo ez, garrantzi gitxiko gauzea zan eta josi barik geratu jatan.

Nik an egin neban urtebetean lagun asko igaro ziran Etxedoia'tik. Geienak betikoak giñan; baiña sartu-urtena be naikoa ibilli zan.

Milla bederatzireun eta ogeta emeretziko uda aldera etorri zan agure batek, beratzaz zerbait idaztea merezi dau. Bizkaitarra zan, ez dakit zein alderditakoa. Irurogeitamabost urte inguru izango zituan. Lepoa apur bat aurrera okertua. Baserri semea izan eitekean, baiña baserrian lan asko egiteko ilustraduegia zan. Ez dakit zer ekian, baiña danetik ulertzen eban itxurea emoten eban. Jakiña, danetik be asko ez; edo, obeto esateko, inñundik be ez asko.

Ango elizako edo erriko erlojuak ez eban ordurik joten, Jaungoikoa daki noiztik. Ta berak alakoak lenago be konponduta egoala ta a be ipiñiko ebal-ta asi zan. Bikario ta alkategaz berba egin eban kontixu. Danak ondo artu eben bere asmoa. Ta bateko zerrea ta besteko mailluagaz, aruntz-onuntz naikoa egin eban; baiña dana alperrik: erlojuak, geldik. Guk, apur bat zirikatzearren be bai, erloju kontua zelan joian itauntzen geuntsan; eta berak, ez dakit zer eta ba-dakit zer peitu zirala ta ezin eitekeala konpondu erantzun euskun; ta an joan zan aztuten.

Idazteko zaletasuna be ba-eukan. Politika internazionalaz asko eukala idatzita esan euskun. Ikusi genduan baten idazten; aurrean izparringia eukan eta andik bere kuadernora aldatzen eban. Endara'n (Endara, JEL alderdiak Baiona'n eukan idazkaritza zan) kuaderno pilloa ei eukan. Eukiko eban ziur. Gauza anditzat eroango zituan eta an zer egingo eutsen, bada? Gorde, bakea emoteko!

Bera ez ei zan, gu lez, ezeri konturatu barik ibiltan; berak, toki barri-  
ra joatean, dana aztertzen ei eban, etxeak zelako estiloa eukan eta dana.

Alantxe izan bear eban, itxurea zanez. Beintzat, egun baten, —ordurako gudea asita zala uste dot—, estu-estu etorri zan Kanbo'tik Arrizabala-laga'tar Joseba, ertzain birek gure agure a atxillotuta eukela, España'ra bialtzeko asmoz eta. Zer jazoten zan esaten alkatearengana joan zan; baiña ez egoan zer egiñik bere alde. Geiago ez genduan ikusi zar gizajoa. Bere ibilli bearrak eta bere danari begira egon eta aztertu bearrak txarto pentsau eragin eutsen ertzaiñai, eta espiatzat-edo artu eben.

Itxasu'ra etorrita egoan adin andiko ixilleko poliziak ziran bizkaitar zar a kanpora bialdu ebenak.

España'n gudea amaitu zan ezker, Ameriketara joatea baiño beste asmorik ez egoan euskaldun gazteen artean. Gutzat ez egoan etorkizunik Prantzia'n, eta alderdi onetara etortea iñori ez jakon bururutzen. Ta Europa'ren gaiñera guda andia etorrena ez egoan ezpairik. Orregaitik, jendeak arin nai eban zirkin egin. Ta JEL alderdia, gazteen arako bideak zuzentzen asi zan. Geuk be geure izena ta zer lanetakoak giñan emon genduan.

Bi edo iru espediziñoi joan ziran. Etxedoia'tik be iru-lau gazte joan ziran, eta danok lagundu geuntsen autobusera ta «Agur, Jaunak» abestuz agertu genduzan. Geienak Ameriketan azurrak itxiteko joan ziran, nai ta orduan asmo ori ez izan. Beraz, benetako agurra izan zan.

Gu lez, gudea zala-ta, Bidasoa andiko alderdi aretara joan ziran lekeitiar itxasontzi egille arotz batzuk, Murelaga abizenekoa ta beste bat edo bestek, bizi egin bear zan eta euren kontura ontzi bi egin zituen: *Lenbizikoa* ta *Bigarrena* izenekoak. Ogei-ogetabost tonelada ingurukoak, berrogetamar zaldiko motorrakaz. Eurok egiteko, eredu edo modelo lez, Ondarru'ko *Lau anaiak* artu eben, orduan Baiona'n zana, Paulo Soxu'rena. Onek ogetamar zaldiko motorra eukan eta gitxi ibiltan zan.

Itxasontzietatik bat, ez dakit *Lenbizikoa* ala *Bigarrena*, Donibane'koak erosi eben.

Ango jendeak ez ginduzan ondo ikusten. Eliztarrentzat gorriak giñan; eta gorrientzat, arrantzaleentzat-eta, klerikalak. Baten, itxasontzia ondora, urpera, joan jakela ta beste itxasontzi baten etorri ziran liorrera, lekeitiarrai erositako ontziko arrantzaleak. Alakorik! Eguraldi ederretan, ezer okerrik jazo barik, ontzia galdu! Errefujiadu guztiok lotsatuta laga ginduzan jazoera onek. Zer esango eben ezin ikusi ginduzan arrantzale arek? Ta eskerrak iñok bizirik galdu ez eban!

Baiña andik bi edo iru egunera gogorragoa jazo zan. Urpera joan zala esan eben itxasontzia, beste batek ekarri eban kaira. Lazaro'ren biztutea lakoxea izan zan. Zer jazo zan?





Itxasontzi aren jaubeak, edo itxasoan erabillen arrantzaleak, ez eben gogokoa nunbait eta galtzea edo ondatzea asmau eben. Ez dakit zulatu nai izan eben, edo atxak jo eraginda, edo beste nolabait aldendu eragin. Beintzat, itxurea zanez, itxasontzia ibillian ebillela, eurak beste itxasontzira salto egiñaz laga egin eben, egin eutsenagaz galduko zalakoan. Baiña Jaungoikoak ez eban nai izan olako diabrukeriak ondo urten eian; eta, len esan dodan lez, andik bi edo iru egunera, arrantzara joandako Donibane'ko beste itxasontzi batek arkitu eban, bira ta bira oraindik geratu barik.

Itxasontzi a galdu nai izan eben areik, lotsa apurra izan balebe, bururik ezin jaso izango eben aldi baten, jazo zanagaz. Ez dakit zelan garbitu eben euren burua.

Len aitaturako itxasontzi biak erosle barik egozan; ta bateri, edo batzuei, Venezuelara eroatea bururatu jaken, an arrantzan ekiteko asmoz. Mutrikuar gazte bat, Burgaña itxasgizona, jarri zan itxasontziak ara eroateko arduradun. Oneik, itxasontziok, txikiak ziran; len esan dodan lez, ogei toneladatik alde andi bakoak eta berrogetamar zaldiko motorrak eukezan. Au da, gaurko arrantzako itxasontzien ondoan ezerezak. Alako itxasontzi gitxirek igaroko eben Atlantiko itxasoa.

Itxasontziak ara eroateko, gizonak bear ziran, tripulanteak; eta bein, Etxedoia'ra etorri zan Burgaña, mariñel billa. Arratsalde aretan etxetik alde eginda nengoan eta ez neban ikusi. Baiña ez eban ezer lortu, lenengoan beintzat. Etxedoia'n egozan mariñelai —geienak ondarrutarrak— arriskutsua iruditen jaken Ameriketarako ibillaldi ori. Ta iñok ez eutsan baietzik emon.

Ondorengo egunetan beste zer esanik ez zan Etxedoia'n. Eguraldi txarrak gertau ezkerro, itxasontzi areik Venezuelara ezin eldu eitekezala ziñoen geienak. Baiña kontu areik ondo ekiazan bat, beste eretxikoa zan. Mundakar itxasgizon zar batek, Arostegi'k, Ameriketara ostera asko egingakoa bera, ez eban zailla ikusten itxasontzi areintzat itxasoko ibillaldi a. Bere ustez, txarrena, Ecuador'a igarotean arkituko eben beroa izango zan. Baiña ori be asko arinduko ebela, ertz zabaleko kapeluak buruan eroanda.

Itxasgizon zar aren esanak eraginda-edo, ondarrutar gazte bi prest jarri ziran: Bedialauneta'tar Jose ta Bernedo'tar Pedro. Lenengoa, gudeari iges egitearren, leoiaren aoran be sartuko zan. Lengoakaz aspertuta egoan; ba-ekian gudea zer zan. Bigarrena, edozetarako gertu egoana, abenturarako bildur bakoa. Beste ondarrutar bat be jarri zan Venezuela'ra joateko: Zabaleta'tar Jose, Jose-Txikixe ezizenez, txoperra bizibidez. Au ez egoan Etxedoia'n, Baiona'n baiño. Ezkondua zan, baiña gaztea.

Itxasora urten eben baiño bi edo iru egun lenago, neuk be ikusi nituan itxasontzi areik Baiona'ko ibaian. Trepetxuz beteta egozan; oiñik nun ipiñi ez egoan arein kubiartan. Dena zan bidoia ta trastea; bateko ura ta besteko oriu. Irratia be jarri eutsoela ta nago. Irratia eroatea gauza andia zan aldi aretan.

Beste kezka bat be ba-euken itxasontzi areitakoak. Franco'ren aurka ibillitakoak ziran, eta España'ko ingurutik igarotean atxillotuko ete zituen bildur ziran.

Ta ixilka urten eben gau baten. Baiña iñok ez eutsen gatxik egin; bakean itxi eutseen. Galizia inguruan eguraldi txarrakaz burrukatu bearra izan ebela entzun neban. Gero Dacar'en, sarreran, ontzi batek ondoa jo ta txarto ibilli zirala jakin genduan. Dacar zan, Baiona'tik urtenda liorra jo bear eben lenengo erria. Beste okerrik izan ebenik ez genduan jakin.

Bidean joiazala asi zan bigarren guda nagusia.

Geu be Ameriketara laster joango giñan itxurea egoan. Etxedoia'ko iñori ez eta Venezuela'tik eskutitz bat eldu jatan, ango Inmigratio Batzak idatzita. An sartzeko legeak eskatzen eban dirua ordaindu bearretik aske ixten ninduela, ta ango konsul Paris'en zan Santos abizeneko bategaz artu-emonean asteko esaten eusten. Itxurea zanez, arrain lantegietako nire lana gogokoa eben; arraiña kontserban ipinten ekien gizonen premiñan egozan. Ta bereala idatzi neutsan Santos ari; baiña ez neban izan erantzunik.

Beste aldetik, Euskal Gobernuak bialtzen zituan espediziñoietan, urrengoan joateko itxaropena neukan. Endara'n izan ziran ondarrutarrak an jakin ebenez, urrengo espediziñoian ziur joian ondarrutarra Etxaburu zan.

Ta alan idatzi neban etxera. Ameriketara niñoiala ta, itxasontzian sartzeko nengoanean idatziko neutsen tarjeta bitartez, ziur jakingo ebela, joaten banintzan.

Olororik! Geu lako ama-zuloak, bere etxetik kanpora iru-lau urte eginda, aztu sendiagaz! Niri orduan bardin eustan etxera biurtu edo Pekin'era joan.

Guda aurreko azken egun areitan, ziur, bake denporako azken igandea izango zan, Baigorri'n izan giñan Etxedoia'ko abeslari ta dantzari taldeak. Ogetasei urte nituan orduantxe eginda, ta egun aretan jantzi neban lenengo aldiz korbatea. An Baigorri'n itxura onean agertu bear giñala ta jaztea obe zala esan eusten. Ta alantxe jantzi neban.

Danak geunkan gudearen kezka, geuk eta bertakoak; baiña bakearen ederra azkenengo unera arte gondu edo aprobetxau nai izan genduan



eta, kale ta bazter guztietara poza ta alaitasuna zabalduaz, egun ederra igaro genduan eta igaro eragin geuntsen baigorritarrai.

Atano III'ak trinketeko txapela irabazi cutsan Arze'ren ostatu etxean jan genduala uste dot. Beintzat, gomutaten naz an egon giñana. Arratsaldeko enparantzako jaian, gure jardunaz gaiñera, eskuzko pelota jokia jokatu zan. Bidasoa andiko orduko pelotaririk onenak ziran. Euren artean, abade bat; jakiña, abade jantzita, sotana ta guzti. Mutil txikien aldekoa edo gogokoa bera abadea zan, onek egiten zituan tantoetan ataraten eben zarata ta txaloak erakusten ebenez.

Ta len esan dodan lez, egun ederra igarota biurtu giñan etxera.

## BIGARREN GUDA NAGUSIA

Egun aretatik aurrera, laster lertu bear zan gudea baiño beste buruausterik ez geunkan.

Ta iru edo lau egunera, bazkal ostean jardiñean jarrita gengoza, *dinbi-danba* asi zan elizako kanpaia. Lenengo danbadarako, guda kanpaia zalakoan jarri giñan, eta alantxe zan. Gure auzoan egoan etxe bakarreko andreak negarrez urten eban etxetik, zer ete zan jakin naian.

Munduko goraberetan ain garrantzi andia eukiko eban gudearen asierea zan. Zenbat odol ixurtze ta zenbat negar eragin bear ete eban munduan, eta zelako aldakuntzak! Ta gutzat be zer ete ekarren?

Alan be, ez giñan ikaratu, ziur-ziur itxaroten genduan da. Alanbe-rrari iges egiterik ez geunkala ikusten genduan. Aldi txarrean jaio giñala esaten genduan, munduan gudarik gogorrenak ziran denporetan.

Baiña munduan izan ete da, bada, aldirik guda barik?

Guda kanpaia jo ebenetik laster, an beratxoago soloa eukan baserri-tar gizon gazte bat zaldi gaiñean etorri jakun, biaramonean gudara joan bear ebalta ta ea lurretik patatea ataraten lagunduko geuntsan esaten. Bereala iru-lau gazte jagi giñan eta solora lagundu geuntsan.

Gizajoak ez eukan berbetarako gogo andirik; arratsalde guztian ez euskun berba batik egin. Geu be ez giñan ausartu berari ezer esaten. Ezin geinkean asmau aren gogoko izan eitekean barbarik.

Oraindik ez zala gudarik asi, urrengo eguneko izparringian jakin genduan. Kanpaiaren deia mobilizaziñoirako zan. Bardin zan; mobilizaziñoian ikusi eban jendeak gudearen asierea. Andik egun bat edo bira, Prantzia'k eta Ingalterra'k gudea emon eutsoen Alemania'ri.

Baiña Alemania'k, eta Errusia'k be bai, Polonia menderatzen ziar-duan gudearen lenengo asteetan, ez egoan gudarik Prantzia'n.

Ta gudea a baiño txarragoa izan ezik, ez egoan zetan estutu; ta, bake aldian lez, nasai bizi giñan. Baten, beste askotan lez, igarira joan giñan pre-sara; ta ur otsean alkarrei ezin entzunda egoten giñan eta, iñok entzungo ez euskulakoan, abestuten eta zarataka ibilli giñan. Baiña nunbaitetik entzun eben erabilli genduan gangarkeria, ta kejea egon zan. Ez giñan bereala oker berean jausiko, geure gaiñera zigorrik etorri ez eitean be.

Adiñean aurrera joiazan gizon bi errira etorri ziran, ixilleko ertzaiñak-edo; lenago aitatu dodan bizkaitar agure a atxillotu ta España'-



ra bialdu ebenak. Sekula gugaz ez ziran sartu. Bakarrik, illuntzean zubira ez joateko esan euskuen. Beste eragozpenik ez genduan izan.

Salbakondutua bear zan erritik urteteko. Etxedoia'koak baimen orren billa joateko, gure zuzendariaren baimena bear genduan, alkatea ta biak alantxe konpondu ziran da.

Egun areitan ondarrutar bat il zan Azparren'en; Ondarru'ko ziñe-gotzia zan: Ikaita Barri'ko Guenaga'tar Tomas. Erritar guztiok bere illetara joatea erabagi genduan; baiña Etxedoia'ko zuzendariak, aldi aretan ez egoala ondo ainbeste lagun batera-bestera ibiltea ta danon izenean bi edo iru joateko baimena ekarri eban. Orduan ondarrutar batzuk alkatearengana joan ziran, eta guztiok joan geintzean baimena lortu eben. Gure zuzendariaren ixillik egin ziran gora-bera oneik; eta goizean, bera lo egoala, ixil-ixillik urten genduan Etxedoia'tik.

Gure jokabidea txarto artu eban zuzendariak, eta Endara bidez zigorra izan genduan. Lan batzuk eragin euskuzan; euretatik bat, komuneko loiak artzen zituan askea ustutzea. Etxedoia'ko ur zikin ta kaka guztiak artzen zituan aska andia egoan etxe ondoan, eta an egin genduan urte inguruan, bi edo iru bidar ustu bearra egon zan. Zulo andia egin baratzean, eta baldetan artu ta ara jaurtiten genduan. Ez zan egoten usain gozorik an inguruan!

Guri lenago be urten euskun loteria arek; baiña arei, pilotoai ta, olako lan zikiña emotea zail egiten jakon zuzendariari, ta ederto etorri jakon gure utsa, gu entzun-txarrekoak izatea. Ta geuk egin genduan barriro be.

Zer zigor geunkan zuzendariak jakin eragin euskunean, Endara'ra idatzi genduan. Nik baiño idazkera apaiñagoa eukala-ta, nik esan eta Azpiri'tar Joakiñ'ek idatzi eban. Danok izenpetu genduan. Baiña izkitik ezagutu eben nok idatzi eban eta Azpiri'k artu eban erantzuna. Ta erantzuna auxe zan:

Auzia obeto aztertuko zala, baiña lenengo zuzendariaren zigorra bete egin bear zala.

Ez zan eziñekoa gutzat zigor a betetea; baiña zuzendariagaz artazi jarri giñan, eta alan edo olan aurka egin nai geuntsan.

Lenago, zuzendariagaz ondoen konpontzen ziranak, ondarrutarrak ziran, —ni ez nintzan ibiltzen ondarrutarrakaz edo ondarrutarren aldran eta ez neukan artu-emonik zuzendariagaz—, eta arrezkero txakur ta katu ebiltzan.

Jakiña, ez geunkan errezoirik; gudatean ezer okerrik jazo ez eitean, gure ardurea ebanak danon izenean bi edo iru bakarrik illetara joan nai

izatea burubide ona zan. Baiña gu, gazte zoroak, olakorik ez genduan pentsaten. Gaiñera, askotan besteai jarraitzen dautsegu, ondo ez dan gauzetan be, besteen aurrean txarto ez geratzearren. Niri neuri, beintzat, alan jazo jatan.

Guenaga'tar Tomas'en illobiratzea eginda, an kanposantuan ondarrutar pilloa alkartu giñan; geure artean lekaime bat egoan: Badiola Etxaburu'tar Maritxu, Kurutzetako Alabea. Ba-ziran urte batzuk Azparren'en egoala; ta lekaime egoala be, amar-amabiren bat urte izan eitekezan. Berak, ni ez beste ondarrutar guztiak ezagutzen zituan; baiña nik bai bera ta, ziur, ango beste guztiak baiño lenagotik. Ondarrutarrak, nire aldean, asko ibiltzen ziran batera-bestera; ta an erritar bat lekaime egoala nunbait jakinda, bera ikustera joango ziran kontixu, ta alan alkar ezagutuko eben.

Ainbeste laguneren artean, txandarik ezin artuta, batek au ta besteak ori, amaibako jarduna egoan. Ni atze samar nengoan, ixillik. Ta alako baten, ea ni be ondarrutarra nintzan itauna egin eban lekaimeak. Nik, orduan, baietz, Ezekiel Txikia'ren semea nintzala. «Aitarenka» asi zan, ori entzun ebanean; senideak giñan. Nik ba-nekian ori. Bere ama Urrufiña ta nire aitaren aita anai-arrebak ziran; nire aita ta bera, lekaimeak, lengusuak. Ta lengusuak baiño geiago zirala be esango neuke. Ia etxeko seme lez izan zan gure aita arenean gaztetan. Euren itxasontziko lemazain izan zala eta soldautzatik aske geratzeko ordaindu bear zana lekaimearen amak ordaindu edo aurreratu eutsala, asko lenagotik entzundako kontua zan.

Beraz, ni nor nintzan jakin ebanean, lekaime arek artu eban arritasuna andia izan zan.

Azparren'en beste bi edo iru ondarrutar be bizi ziran; gudeari igesik joandako urtetsuak. Euren artean Ondarru'ko elizako abade Don Ramon Zenarruzabeitia. Jaiotzez Zenarruza'koa zan (Ziarrotza'koa). Laster Ameriketara joateko ustea geunkan eta ori izan zan beragaz egon giñaneko jarduna.

Antxe gengoazala, gutzat txarra zan barria jakin genduan. Ez dakit zer dala-ta, batek urrutizkiñez berba egin eban ez dakit nora, ta gu Ameriketara eroango ginduzan itxasontziak atzeratu egin ebal urteerea esan eutsan. Ez zan errez izango, ordutik aurrera, itxasontziak jendez beteta Ameriketara urtetea.

Bein gudea asi ta aste batzuk igaro ziranean, etxera begira asi zan jendea. Ameriketara joaterik ez egoan; amaitu ziran ara joateak. Prantzia'n ez egoan ezer onik iñorentzat. Beraz, etxera biurtzea izango zan onena. Baiña ona etorteak be kontuak eukazan; emen sartzean geienok atxillotuak izango giñana ba-genkian. Alan be, lantzean bat etorten asi ziran.



Bein, Don Manuel Calderón, Franco'ren aldeko itxastar gudaria joan zan ara gazte billa. Guztiz ezaguna da Calderón Gipuzkoa'ko itxas errietan, eta baita Ondarru'n be, soldautzan beragaz egonda egozalako asko. Nik Ondarru'n ezagutu neban, 1926'ko estropadak zirala ta. Orduan gure errian dana zan saltoa ta dantzea ta ojua; ta neskatillai besotik elduta makiña bat salto egin zituan musika otsean kalerik-kale.

Calderón ori Kambo'ra etorri zan eta ondarrutarrai deitu eutsen, eta an joan ziran. Etxera iñok etorri nai baeban, bera jarriko zala arduradun, eta ezer okerrik izango eben bildur barik joan eitekezala esan ei eutsen. Iñor ez eban zuritu; iñok ez eutsan baietzik emon.

Baiña andik laster, bat biurtu zan etxera.

## EMENGO ALDERA

Gu, iru lengusuok be, etxera biurtzea zala jokabiderik burutsuena pentsaten asi giñan. Ta etxera idatzi genduan asmo ori jakin eragiten: prisabarik, baiña etxera biurtu geintezan bideak zabaltzen asi eitezala.

Bereala izan genduan erantzuna: segiduan etorteko.

Erantzun ori ikusita, gutzat gauzak ondo konpondu zituen ustean jarri giñan.

Gure itxaropena Ramon Sierra zan. Nire arreba Mertzedes, aren etxeko neskamea zan aspalditik. Jaun au izan zan, Franco'ren aldekoak Donostia'n sartu ziranean, lenengo gobernadore zibilla. Ta arpegiz be alkar ezagutzen genduan. Baten, 1939'garren urtean, Alpontso XIII'ren semeren baten ezkontzara-edo Erroma'ra joiala, Biarriz'en egon giñan bera, Sierra, Teodoro lengusua ta irurok. Jaun ari neukazan dirutxoak emoteko idatzi eusten etxekoak, gero berak aren ordaiña emon eien; eta iru edo lau libra esterlina emon neutsazan.

Jakiña, aldi aretan ez egoan beste konturik, eta gudeaz eta politikeaz nai beste eztabaida egin genduan. Eretxi batekoak ez giñana esan bearrik ez dago. Baiña adiskide lez jardun genduan.

Bere ustez, ona biurtzean, lau-bat illabete egingo genduzan atxillotuta.

Olan bada, etxera etorteko gaztigua artu genduan, orretarako paperak egiten asi giñan Baiona'ra joanda. Geunkazan agiriak emon eta geure gora-berak erarik onenean esanda, emon euskuezan ona etorteko bear ziran garbitasunak ango konsuladuan.

Ta izentau genduan mugea igaro bear genduan eguna. Ez naz gomutaten zein egun zan, baiña Urria zala uste dot. Aurregunez Etxedoia'ko guztiak agurtu genduzan; eta nik, neure izenean arda apurra edan eien, libera batzuk laga be bai ondarrutarrai.

Nire lengusuak, azkenengo egunean, lotara aurretik, zuzendariari agur egitera joan ziran. Nik, oster, ez neban joan nai izan. Azparren'go illeta a zala-ta izan genduanagaitik, ez nengoan berari itzik egiteko.

Gaur, kasu bardiñean arkituko banintz, ez neuke ain txotxolo jokatuko.

Zubizarreta'tar Iñazio jauna bizirik badago, parka eskatzen dausat lerro onein bitartez.



Bost etorri giñan ona Etxedoia'tik: Bilbotar erdaldun gazte bat, Landa abizeneko bizkaitar euskalduna ta iru lengusuok.

Aske giñala, atxillotuko ginduezan tokira gentozan, alanbearrak beartuta.

Endaia'ko zubia igaroten asi giñanean, une garrantzitsua gutzat, irri-barrez alkarrei esaten geuntsan:

— Oindiño aske gara; nai badogu atzera biurtu geintekoz.

Gero, erdia igaro genduanean, barriz:

— Ez daukagu atzera egiterik; ez gara aske. Zek itxaroten ete dauku?

Emendiko aldera igaro giñanean, ez geunkan iñor etxekorik zain. Baiña aduanan gure paperak erakusten asi ta bi edo iru miñitura, Mertzedes neure arrebea ta Sierra Jauna eldu ziran beribillez. Ta iru lengusuon amak eta arrebak an egozan laster.

Asi zan Sierra jauna zerbait egin naian; baiña itxurea zanez, ez eukan aldi bateko alik, influentziarik. Etxekoakaz geltokiko jatetxean apaltzeko baimena lortu euskun. Ta Irun'go Norte'ko geltokiko jatetxean apaldu genduan. Ori be zerbait zan.

Apaldu ostean, geltoki bertako *Pequeña Velocidad*eko almagenera eroan ginduezan iru lengusuok. Prantzia'tik igaroten ziran gizonezko guztiak toki aretara eroaten zituen. Ara joan giñanean, ondarrutar gazte bat arkitu genduan: Rementeria'tar Eduardo. Aurreko egunean igaro ei eban mugea.

Jende asko egoan almagenean. Jakiña, ez egoan nun etzin; eta batzutan zutiñik ta bestetan bultoren baten gaiñean jarrita, igaro genduan zedo-zelan gaba. Naikoa luzea izan zan.

Eguna argitu zanean, lantzean-lantzean an agertzen ziran, norbaite-ri edo batzuei deituaz. Bat edo beste bear bada aske be lagako eben; baiña geienak San Pedro de Cardeña'ra eroateko izaten zala uste dot. Izen zerrenda irakurtzen asten ziran guztian, adi-adi egoten giñan geure izena noiz entzungo. Geuri be deitu euskuen eta urten genduan.

Italiar gudari ofizial bat zan gugaz egon nai ebana. Prantzia'ko barriak jakin nai zituan. Gugaz batera be, aurrera aurkeztu ziranen artean, gatzelarrez baiño prantzesez obeto berba egiten eben batzuk egozan, ara lanera joandako espainiarren semeak kontixu. An gudarik ez izatera, areik ez ziran ona etorriko. Gudaritza egitera etozala, bati baiño geiagori entzun neutsan, adin ori eukun euki be ta.

Pozik esan eutsen italiarrari ekiena; ez dakit zein tokitan ez dakit zelako gudariak egozala, alako fabrika egoala ta abar. Guk ez genduan

ezer esan. Iñoiz, prantzesen aurka marmarka jardunda nengoan, onegaitik edo aregaitik; baiña ari ezer esatea etoikeria iruditen jatan. Emengo gudeari iges eginda ara joan giñanean, antxe arkitu genduan babes; ta ez geuntsan esker txarrez ordainduko.

Ezer ez egoan erri txiki baten egon giñala esan geuntsen. Baiña Itxasu erri txikia izan arren, ba-eukazan garrantzia eukun gauzak: Baigorri'tik Kanbo'ra joian bide-zabaleko zubi ederra, tximist-indar zentrala ta Baióna'ra ura emoten eban putzua ba-egozan beintzat.

Eguerdi ostean, bigarren deia euki genduan. Ordukoa andik kanpora urtetekoa zan. Amar-amabi lagun, txapel oker biren ardurapean, Norte'ko bultzian sartu ginduezan, Cardeña'ra eroateko. Geugaz batera zan Eduardo be.

Eduardo au beti izan da umore onekoa; Ondarru'ko abertzale batzokian makiñabat barre eragindakoa zan bere antzerkiakaz. Bide guztian ez zan geratu abesti alai ta barre eragilleak abestuten. Jakiña, erderaz. Ta txapel okerrak aoa zabalik euki zituan.

Burgos'era eldu giñanean, ia illuntzea zan eta ez egoan gu Cardeña'ra eroateko modurik. Orregaitik gau a espetxean egingo genduala txapel okerrak erabagi eben. Ta ara eroan ginduezan. Gu barruan sartu ta burdiñazko ate andia giltz andiakaz drin-dran itxi ebenean, barruak alako arrarea egin eustan. Orduantxe asi nintzan konturatzen ondo nire egorearen berri.

An barruan sartu giñanean, bereala, geure izen abizen eta zertzeladak artu euskuezan. Onetan geniarduan gela ondotik, espexteratuak banan-banan igaroten asi ziran. Kontixu, axe zan patiotik barrura igaroteko tokia. Danak, gure ingurura eltzean, zeintzuk ete giñan begira igaroten ziran. Gu ez gengoan gudako kontuakaz oituta, ta itxurabakoak iruditu jatazan gizon areik eta bada-ezpadakoak izango ziran susmoa egin. Gero areik egozan tokira eroan ginduezan. Espetxe arek zati asko eukazan eta gu gengoan tokian berreun bat gizon egongo ziran. Ez naz gomutaten, baiña ziur emongo euskuen aparía, apal ordua zan da.

Areto nagusira atea eukan gela bat emon euskuen lotarako, ta antxe sartu giñan alkarregaz joan giñan aldra osoa. Eurenganako bildurra, edo ez dakit zelan esan be, geunkan danok, eta atea itxita lo egin genduan. Baiña biaramon goizean bereala asi giñan eurakaz konpianza artzen. Areik be gu lakoak ziran. Bategaz eta besteagaz berbetan asi giñan, guk geure kontuak eta eurak eurenak esanaz.

Ez ginduezan asko poztu baten berbak. Berealako baten andik atarako ginduezan ustea geunkala esan geuntsan, gaua nun igaro ez geunka-



lako ara eroan ginduezala-ta. Irribarrez entzun euskuzan berbok. Baietz, besteak be alantxe, egun bat edo birako ustean, sartu zirala an; baiña illetan egozala ta urteteko itxaropen andi barik. Bera, zidarrezko diru batzuk arkitu eutsezelako sartu ebela, bi edo iru egun barru auzia argitu ta kanpora urteteko ustean; baiña urte erdi inguruan egoala, noiz arte jakin barik.

Gero patiora atara ginduezan besteakaz batera, beti lez, kontixu. Sarri etorten ziran bati edo besteari deiez. Gu, aurregun gabeen sartutakoak, estu-estu gengoan, geure izenak noiz entzungo; ta alako baten entzun genduzan, goizeko amaikak inguruan.

## CARDEÑA

Txapel oker bi geunkazan zain, ez aurregunekoak, eta kamioi baten sartuta eroan ginduezan Cardeña'ra. Burgos'tik ara amarren bat kilometro bidea izango da ta bereala eldu giñan.

Antxiñako lekaide-etxea da San Pedro de Cardeña. Orduan, barrua, itxurabakoa egoan, millaka gizonen bizi lekua zan da.

Eguerdian eldu giñan bertara. Bazkaria artzera urtetan egozan lerroz-lerro, ta etxe kanpoko enparantza edo zabalera guztia bete eben. Tartean arpegi ezagunak ikusten genduzan, Donibane Lohizune'n ezagututakoak geienak; ta besoak jasota alkar agurtzen genduan. Emengo gizonak be narras edo zarpail ikusten ziran, geienak buru soill, bizar andia ta itxurabako jantziakaz. Gure ateetan joten dabeen narrasena baizen narras, itxurabako.

Ara eldu giñanean, lenengo egin euskuena, ulea moztutea izan zan. Utseko makiña buruan sartu ta gaztaia lez laga euskuen zuri-zuri. Gero manta bana emon eta besteen artera bialdu ginduezan. Guk, iru lengusuok, ba-geroan manta bakotzak, beste bien amak, nire ixiko Prantziska'k, emonda. Aske laga ninduenean, ezin atara izan neban eta an geratu zan. Egia esan, neure paltaz be bai; bada, ere izaten ebanean, an Oiarzun'en egoan ondarrabitar bizar kentzaille baten eroateko agindu neutsan, batallioian geratu zan lagun bati, ta eroan be egin ebala uste dot. Baiña, aske geratu nintzan lenengo urtean Pasaia'n lan egin neban arren, ara joateko gogo gitxi neukan manta bategaitik. Barriak ziran mantak, gutzat erositakoak; eta joango nintzala billa ixikori beti esaten neutsan, baiña Oiarzun'en geiago oiñik ez dot ipiñi. Auxe izan zan trabajadorietan egon nintzan azkenengo erria.

Ta biurtu naitean Cardeña'z zerbait esaten.

Bakardadean dago lekaide etxe au; edo, bestelan esanda, berau bakarrik dago lur zabalera andi baten.

Andia da lekaide-etxea, areto asko ta andiak dakaz, eta areto bakoetxean lagundi edo konpañitan banatuta egoan jendea. Ez dakit zenbat, baiña millaka batzuk gengoala entzun neban. Brigada Internazionalakoak be ba-egoan, bi milla-edo. Oneik gugandik berezita egoten ziran; eurakaz sekula ez giñan alkartu.

Gure lagundia bosgarrena zala uste dot; eliza aurreko enparantza edo zabalunera eukazan leioak, eta gorenean egoan.



Lagundi bakotzak, edo, obeto esanda, areto bakotxean agintari bat egoan, gu lako atxillotua. An denporarik geien eroanen artean konpon-tzen ziran zein buru izan, eta danak nai izaten ebela uste dot. Gu ara joan giñanean, edo ez dakit andik laster jarri ete eben, Arsua ga abizeneko eus-kaldun mutil gazte gorputz andikoa zan zeregin edo ardura ori ebana. Ta aurre samar ibiltzen zan ondarrutar bat be: Agirre'tar Federiko.

Lotarako, lastamarraga bana geunkan; ate ondoa zan barrien tokia. Denporegaz, tokiren bat ustuten bazan, barrurago sartzen giñan. Gu be, lenengo gabeen ate ondoan geratu giñan; baiña Agirre'k Eduardo ikusi ebanean, beragaz eroan eban nagusitxoan toki ondora.

Nik gau osoko loa egin neban eta ez neban ezer entzun; baiña lagu-nak esan eustenez, egundoko erromeria ipiñi ei eban Eduardo'k. An be abestietan ebillela, sarjentoak atrapau ei eban; eta ixilduteko barik, geiago abestuteko agindu ei eutsan. Besterik ez eban bear dana enbolikateko! Ta sarjentoa an egoala, ainbeste abestu ta bere izkirimiriakaz barre naikoa eragin ei eban.

Ez ginduezan txarto artzen. Aretoa gengozeanean, ez ziran gugaz sartzen. Egunean osteraren bat egiten baeban sarjentoak, aretxegaz amai-tzen zan.

Jan kontuan, ostera, ez gengoan ondo. Sabelkada andirik egiterik ez egoan an. Kanpoan aske zan erriarentzat jatekoa urri bazan, atxillotuen-tzat ezin askorik izan. Ez naz gomutaten gosariagaz. Emongo euskuen zerbait kontixu. Eguerdian eta gabeen platerkada bat indiaba, patatea edo zana zala. Ta ondo egiña izan ezker, gaitzerdi. Eguerdikoa jaten neban; baiña gabaz ikuturik be ezin egin; ta, orregaitik, gabeko jatekoa edo apa-ria artzera ez nintzan joaten, Cardeña'n egon nintzan denpora guztian. Ba-geunkan, geuk eroanda, jakia; ta gero be noizik bein bialtzen euskuen etxetik. Beraz, geuretik artu ta zerbait jaten genduan gosea kentzeko.

Zer jan asko ez bageunkan be, ordez bai zikiña naikoa. Garbitasunik ezer ez zan egiten an; lastamarragak lurren egozan —olezkoa beia—, eta orduan ez zan ezagutzen D.D.T. ta olakorik. Ta bereala zorritz bete giñan. Alperrekoa zalako-edo, ezer ez genduan egiten zikinkeriak garbitzeko. Ostera, atzeritarrak, au da, Brigadas Internazionalakoak, alegintzen ziran zerbait. Eguraldi ederra zan baten, euren mantak enparantzara atara ta mamarrotxoak banan-banan atrapau ta atzozkolakaz ilten ikusi gendu-zana gomutaten naz.

Baiña zikinkeriarik andienak komunak ziran; Burgos'ko espetxean ezagutu neban lenengo olako bat, gau bakar a bertan egin genduan. Gela bat aiñako zabalunea, dana agirian, au da, inguruan orma barik, dana

loikeriaz beteta, oiñak lurrean ipinteko be tokirik ezin billatuta. Ta antxe, gizonak, alkarren onduan, gorputzeko premiñak egiten. Edateko ura nun egoan itandu neban eta toki aretara bialdu ninduen, eta alantxe ikusi neban.

Cardeña'n itxurazkoak be ba-egozan komun barriak; baiña an ebi-llan jende pilloagaz ezin eitekezan garbi egon. Gaiñera, gabaz ez eben lagaten komun aretara joaten, eta len aitatu dogun Burgos'ko komunaren antzeko bategaz jendea baliatzen zan. Ain zuzen, Cardeñas'ko beste komun aretan be ura egoan: tubo baten jarria; ta ur billa joatean ikusten genduan ikuskizun barregerri a.

Baiña komunik ospetsuena Miranda'ko kanpo konzentraziñoikoak ziran. *Ciscar* izena jendeak ipiñi eutsan. *Ciscar*, orduko gudontzi bat zan, destrutora. Madrid'ko Gobernuakaz egon zala uste dot.

Miranda'ko *Ciscar*, astilleruetan itxasontziak egiteko egoten diran lako olezko armatoste andia zan, ibai gaiñera. Euriak labanduta egoan, eta iñoiz bertatik uretara gizonak jausi izan ziralan an esaten zan. Gitxienez amar lagunek batera egin al izateko modukoa zan. Bakotzak alboak itxita eukazan, baiña aurre ta atzeko aldeak agirian; atzea ibaia zan eta aurrea, bertara joiazanen igaro tokia. Ta nun utsik arkituko joaten giñan, bitar-tean ikuskizun politik ikusiaz. Emen be gabaz ez eben lagaten, arrisku andia egoan da.

Ta komunaren kontuak amaia emon eta Cardeña'ko kontuak barriro ekin deiogun.

Ara eldu ta bigarren edo irugarren egunera, autormena edo deklaraziñoia egitera deitu euskuen. Gure esanak ingian artzen zituenak gu lako-ak ziran, atxillotuak. Euretako bat irundarra zan, lendik arpegiz ezagutzen nebana, Donibane Lohitzune'n ikusita-edo. Aretxen ingurura urreratu nintzan. Ta nire txanda eldu zanean:

— *¿Cómo se llama?*

— *José María Etxaburu Etxaburu.*

Ori entzutean, begirakun txikia egin eustan eta barriro itauna.

— *¿Natural?*

— *De Ondárroa, Vizcaya.*

— Kontxo! Euskalduna zara? —irribarrez esan eustan.

— Bai; alantxe naz. Ta berbetan asi giñan.

— Au ipiñiko dogu ta beste au ez; au olan obeto izango da ta beste ori olan —esan eustan. Autortza ona zelan egin ba-ekian eta bere gain laga neban.



Barriro deitu euskuen andik laster; Irun'en ikusi genduan italiar gudari ofiziala, ara be eldu zan. Gu beragana eldu giñanean, gizon pillo a aurrean ebala egoan, itaunak egiten. Zein zan ikusi genduan bereala ezagutu genduan, eta Irun'en egon giñala beragaz esan geuntsan. Bera be gomutau zan, eta geiagoko barik urten genduan.

Gauza kontagarri gitxi eukan Cardaña'ko bizimoduak. Goizetan, lagun bakarrak jotako goiz eresiak esnatzen ginduzan. Ba-eukan zaletasuna musikariak eta eresi politak joten zituan. Ain zuzen be, gure lagundiakoa zan eta sarritan ikusten neban besapean musikea eukala.

Ez naz gomutaten goizetan ikurriña jasotera joaten giñanik; ezta gosaririk izaten bagenduan be. Izango genduan ziur. Illuntzean bai, illuntzean joaten giñan ikurriña erastera, ta ereserkiak abestuten genduzala uste dot. Ez dakit lotarako agindu edo deiren bat izaten genduan ala bakotzak nai genduan joaten giñan. Guretako bat izaten zan zaintzaille edo imajinaria egiten ebana, ta bardin egunez be. Niri egunez gertau jatan zeregin ori egitea. Egunezkoak, sarjento edo ofizialen bat etorreanean, barrura deitu bear eben:

— °*Compañía: sargento!* (Edo zana zalakoa).

An nengoan ni estu-estu malladietara zelateka, bai arpegiz eta bai euren graduz gitxi ezagutzen nituan da. Ta alako baten, an etorren bat. Nik orduan al neban indar guztiakaz deitu neban; baiña batetik abots sendoa ez eta bestetik ango berbotsa andia izaten zalako, ate ondoko batzuk ez eben entzun, —urrunekoak sekula ez eben entzuten, baiña zerbait jazoten zala laster konturatzen ziran—, eta jolasean, saltoka-edo, atrapau zituan sarjentoak. Ta agirika asi jaken. Eurak, orduan, nik ez nebala deitu esan eben; eta sarjentoak baietz, berak be entzun ebala ta. Ta zigorren bat ipiñi eutsen. Ez naz gomutaten zer zan zigorra, baiña edo-zelan be ez zan andia izango.

Monasterio edo lekaretxe arek elizea eukan, jakiña. Ta igande ta jaie-tan mezea entzutera eroaten ginduezan danok. Lenago entzuteko oiturarik ez eukenak be, derriorrean entzun bear izaten eben. Eliza a atxillotuentzat iragi arte, ziur, urte askoan itxita egongo zan, eta busti edo kare usai andia eukan. Bere usaiñak Prantzia'ko Bouridens'koa burura ekarten eustan.

Lenago esan dodan lez, gu, batera sartu giñan aldrakook, ate ondolan geratu giñan. Gure ondoko aldran, orduan ain ospetsua zan Berrendero txirindularia egoan. Ta ni neure aldrako ezkerrean eta bera bere aldrako eskuman gengoan, eta alkar jotene lo egin genduan iru-lau egu-

nean. Baiña ez genduan sekula berbatxu batik be egin alkarregaz. Ez geunkan eurakaz artu-emonik.

Egun aretako baten, atxilloturik egozan kirolzale edo deportisten gaiñean zerbait ekarri eben izparringiak. Zera, kirolari biztualdia emoteko, ezer txarrik egin ez eben edo euren aurka ezetan nabarmendu ez ziran kirolzaleai askatasuna emotea ondo etorriko zala. Baiña zerbait akats billatzen eutsen edo askatu bear ez ziranen artean, eredu lez, Berrendero aitatzen eban; bera bakarrik.

Aldra aretako batek bestera ulertzen eban izparringiak ziñoana, ta Berrendero'ri zorionak emonaz bein eta barriro albistea irakurten eban. Baiña Berrendero'k, izparringiak ziñoana, zan lez ulertzen eban, edo beintzat beste aren esan eta koplak ez eben poztuten. Berba batik ez eban urten bere aotik.

Euren okerra zuzentzea txirindulariarentzat pozgarria izan balitz, argituko neutsen izparringiak ziñoana; baiña alderantzira zan eta ez neutsen jaramonik egin.

Gero, barrurago emon euskuen gure lo tokia, ta ez dakit geiago ikusi ete neban bera.

Modu ta mailla guztietako gizonak arkitzen ziran an. Batek katedratikoa zala esaten eban. Ondo jantzita, Baban urdiñagaz eta betaurreko dotoreakaz. Bandoliña jotene ekian eta baten jo egin eban. Ez egoan bereztzat ezer berezitasunik. Gu lez an joan bear izaten eban jateko billa, eskuan platertxo ebala, besteakaz batera lerroan jarrita. Inteletualak eta gogo edo ispiritu kontuari emonak diranak be, gosez dagozanean, Babel zorria itotea izaten dabe lenengoa.

Beste bat, gaztea bera, bere ezkongaiagaz itsututakoren bat zan. Egunero idazten eutsan, eta ugari gaiñera; bi edo iru orri beteten zituan. Erantzuna be sarri izaten eban. Olan, bada, eskutitzak eskuan zituala egun guztian ikusten genduan. Olerkari erromantikuren bat izango zan. Gizon ikasia zan.

Baten, norbaiten inguruan jendea batzen zala ikusi neban, eta zer ete zan neu be bertara urreratu nintzan. Zatetik ardaue daten ziarduan bat zan; baiña ez oiturea dan lez zatotik aora. Jarioa bekokira jaurtiten eban lenengo, gero sudur puntatik ezpaneaz zear aora zuzenduteko. Gero jakin nebanez, Tximista ondarrabi-irundar ostikalaria zan. Aldarte oneko mutilla; guztiz errikoia edo popularra zala bere errian esan eusten. Ta alantxe zan, gero, neure ezkontzea zala ta bide alderdi aretan naikoa ibilteko erea izan neban da, jakin nebanez. Basurko bertsolariaren koiñatua zan.





Trabajadorietan egin genduzan aruntz-onuntz guztietan, alkarregaz gertau giñan eta lagun egin giñan.

Cardeña'n iru-lau aste egin genduzan. Lekaretxe a dana ustu bear zala entzun genduan, eta danok Miranda'ra aldatu ginduezan. Atzerritarak Miranda'ra ala beste norabaitera eroan ete zituen ez naz gomutaten; baiña ez dot uste erri ontara eroan zituenik.

Cardeña'tik Burgos'era oiñez mendi edo zelaian zear eroan ginduezan. Ez jakun erreza izan ainbat bidean geure trepetxoak eroatea. Burgos'tik Miranda'rakoa bultzian egin genduan.

## MIRANDA

Miranda'ko konzentraziñoi kanpoa atxillotuentzat bereziki egiña zan. Toki lauan erritik kanpora egoan; alderdi baten ibaia eban eta bestean bultzi bidea.

Ogei bat neurkin luze ta sei bat zabaleko txabola pilloa egoan. Beia olezkoa eben eta alboak, lotarako, arrabete inguru gorago zituen.

Illuntzea baiño lentxoago eldu giñan bertara. Biaramonean izan neban lenengo estropozua. Beno, lenengoa ta azkena.

Eguerdiari bazkaria artzera deitu euskuen. Berrogetamar neurkiñetik gora luze ziran iru-lau lerro gizon gengoan perola edo jaki ontzien aurrean. Gu atze samar giñoiazanak, ara aurrera sekula elduko ez ete giñan kezka. Jatekoa artutako asko perolen ondoan geratzen ziran, danak artutakoan ezer geratzen bazan, zerbait geiagoren naian; ango itzez esanda, erregantxearen zain. Orregaitik tokirik ez eben ixten, artuaz etozanak andik alde egin eien.

Gu peroletara urreratu giñanean, sarjento besomatz bat didarka ebillen, artutakoak andik alde egiteko esanaz, besteak be tokia eukiteko. Baiña iñok ez eutsen jaramonik egiten; ta nik jatekoa artu ta bereala, ta platera esku biakaz elduta neukala, artu eban idizilla bere esku bakarrean eta *zirt!* eta *zart!* bizkarrekoak emoten asi zan, eta neuri be ederra emon eustan. Baiña jende moltso andia zan eta ez zan errez andik alde egiterik. Lenengoan, jendea, zearka ezkerretik eskumara joanaz jo eban, eta gero eskumatik ezkerrean joanaz, ta bigarrean be atrapau egin ninduan. Orduan, jaurti neban jatekoa ta, plater utsari esku bategaz eldurik, katua gaiñera datorkiola ikustean sagua edonun ezkutaten dan lez, neuk be nunbait tartea arkitu neban eta iges egin neban andik. Lepoko (bizkarreko) otza kentzeko zartada bi be naikoa ziran eta ez neban nai irugarrenik. Naiago neban ezer jan barik geratu.

Egia, ezer jan barik ez giñan geratuko, etxetik bialdutako zerbait beti geunkan maletan da. Ango jatekoak be Cardeña'koen antzekoak ziran; ezin nintzan oitu edozelan egindako jateko areikaz.

Ez naz gomutaten ango aparia jatera jarri ete nintzan, an egon nintzan denporan. Beintzat, baten, artuta gero beste bati emon neutsana gogoan daukat. Platera bete artu neban, baiña aorik iragiteko gogorik ez eustan emoten jateko arek, eta ordura arte sekula berbarik egin ez neutsan donostiar erdaldun gazte bat neukan alboan; eta, itxura oneko mutilla



zanez, neuk nai ez neban jakia eskeintzea bear bada ez ebalaz ondo artuko ta bildurrez eskeini neutsan; ikuturik egin barik neukala ta ea nai eban. Pozik artu eustan.

Ta «donostiarra» berbea aitatu dodanean, beste donostiar bat dator kit burura. Geure barrakakoa zan, amazortzi urteko mutil gaztea. Zortzi abizenak euskerazkoak zituala esaten arro-arro ibiltzen zan, ta danak aita-tzen zituan; baiña gizaok tautik ez ekian euskeraz.

Euskerea ez jakite a, nik uste dot, berea baiño gurasoen errua gei-ago izango zala. Edozelan be, berak bere uts a geroruntz zuzentzen zer-bait aleginduko zala uste dot. Bestelan, zegaz arrotu gitxi eban.

Ango altaboza neuri deika egon zala esan eusten baten ezagutzen ninduenak. Zetarako ete zan kezkatzen jarri nintzan. Edozelan be, ezer txarraren bildurrik ez neukan. Ona gei-ago itxaroten neban. Ta joan nintzan. Iturri donostiar tenientea zan deitu eustana, ta bereala bere aurrean nengoan. Nungoa nintzan eta abar itaunak egiten asi jatan. Ba-nekian nundik etorren kontu a. Teodoro'k, iñoiz, gudari aren ixiko alargunaz berba egin eustan, euren dendara, oraingo Gantxegi'nera, joatean ezagutu-ta. Gure ixiko Prantziska ibilliko zan an, Iturri'ren bitartez zerba-it gutzako lortu naian.

Ez nintzala ni donostiarra erantzun neutsan teniente ari; lengusuak ziralaz donostiarrek edo an bizi ziranak beintzat, eta bere ixiko ezagutzen ebanak, ta nai baeban deituko neutsela ta eroango nituala bere aurrera. Ez eustan baietzik esan. Ez neban ezer onik beragandik atara. Guri mesede egiten asteko aiña artu emonik bere ixikogaz ez geunkala konturatu zan kontixu.

Bein jazoera polit baten tarteko izan nintzan.

Egunero, goizetan, ikurriña jasotea izaten zan eta bertan, orduko giroan asko entzuten ziran abestiak abestuten genduzan. Ez dakit zegai-tik izaten zan, baiña beti azkenetan eroaten ginduezan gure barrakakoa zeregin orretara, ta kanpoan geratzen giñan, ikurriñak jasoten ziran toki zabal aretan.

Ango egitekoa amaitzen zanean, an egoten ziran morroiak prest lagun pilloa patatak zuritzera eroateko. Jendea aukeratzen, ez eban burua asko nekatzen sarjentoak. Urreen egozanak bialtzen zituan; eta gu beti antxe urrean geratzen giñan eta sarri giñan patatak zuritzeko. Ta jendea aspertu egin zan ia egunero geu joaten; ta nik ez neban ezer jakin, baiña ez joatea-edo erabagi eban. Ta egun baten, ikurriña jaso ta abestiak amai-tuta patatak zuritzera garozala, geure barraka ondora eltzean, bat-batean igesi asi zan taldeko pillo bat, batzuk alde batera ta besteak bestera. Ta

geratu giñanak, sukaldera patatak zuritzera. Beste bein be olan jazo zan. Pozik egozan iges egiten ebanak. Baiña baten, sarritan lez, geu autatu gin-duezan aitatutako lan orretarako, ta ba-garoez, morroiak alboan gendu-zala; ta orduan be bat-batean iges egiten asi ziran betikoak. Baiña zain-tzailleak be ez etozan lo, ta ezkutauta eroezan idizillak atera zituen eta, *ziri!* eta *zart!*, an atara zan zaparradea! Zaplada ederrik emon eban! Egun aretan amaitu ziran iges egiteak.

Miranda'n sortzen ziran *Batallón de Trabajadores* izeneko gizon langi-lle aldrak. Ta orretarako, lantzean-lantzean asten ziran izen zerrendak dei-tzen. Zerura joateko geienok garbitokitik igaro bearra izango dogun legez, aske etxera unen aurretik «trabajadorietatik» igaro bear gendua-na ba-genkian, eta orregaitik geu be era orretan andik urteteko amorratzen gengoan.

Bein, arotz, igeltsero, burdin lanean ekienak eta olako langilleak euren izenak emoteko deitu eban. Gure langintzak edo zeregiñak ez eukan baliorik orduko. Baiña Rafael lengusua errementari ikasten asitakoa zan eta bere langintzan aurreratu eitean aretariko aldran joatea obe zala erabagi eban anaia bien artean. Ta emon eban izena.

Baiña alperrik izan eban anaiarengandik bereiztea. Guk andik egun batzutara urten genduean, bera an geratu zan. Ta geroago eroan ebe-nean, ez eban izan bere langintzan lan egiterik, pikotx eta paleagaz baiño. Ta ez gu lez etxetik urrean; Algeciras aldera eroan zituen.

Askatasuna be guri baiño nekezago eldu jakon. Gu orduko aske gen-go-zala, egun batzutarako baimenagaz etxera, Donosti'ra, eldu zan ego alde aretatik. Ta, sendiagaz atsegiñez egoala, gaixotasuna eldu jakon bat-batera: paludismo gatzak eraso eutsan. Ez dakit an urrunean lenago olako ezer izan eban ala ez. Baiña edozelan be an artutako gatxa zan.

Bere semea gaixo ikusi ebanean, militar sendagille bateri deitu eutsan ixiko Prantziska'k. Sendagille a arrituta geratu ei zan, «trabajadoreetako» bat, gudaria bailitza, egun batzutarako baimenagaz aske edo zaindari barik etxera etorri zala ikusita. Egia zanik sinistu be ezin egin ei eban. Iges eginda egoala uste ei eban. Alderdi onetan, gudari bat alboan ez bageun-kan, ez geunkan ibilterik eta. Olan, bada, etxean ez egoan ezer egiterik; gudari osatetxera eroan bear zan bereala. Ta Oiartzun'gora eroan eban, eta antxe egon zan osatu arte. Antxe ikusi neban neuk be.

Gero, andik urten ebanean, alderdi onetako batalloian sartu eban. Ez eban izan dana txarto gaixo geratzea.

Ta eldu deiodan len eten dodan ariari.



Miranda'n aste bi edo iru geroazala, geu be sartu ginduezan an sor-tzen ziran aretako batalloi baten. Onetan zori on apurra izan genduan. Euskal Erri'ra bialdu ginduezan: Baztan'go Arizkun'era.

## ARIZKU'N

Miranda'n, Arizkun'era gentozanok, barraka berezi baten sartu gin-duezan, eta neurri bako jantziak emon; eta biderako janaritzat, sardiña lata andi bat bost lagunentzat; eta biaramonean, merkantzia gurdietan sartu ta ateak itxirik Donostia aldera eroan ginduezan bultziz. Sardiña latea emo-teko, izen zerrendan alkarren ondoan ziran bost lagun izaten ziran. Nigaz gertau ziran laurak ezagutu be ez nituan egiten; eta, sardiña batzuk gora bera, naiago neban nire lengusuakaz joan. Ta nire tokamena eurentzat lagaten nebala ta neure lagunakana niñoiala esanaz, alde egin neutsen.

Obe neban besteakaz be sardiñai ikuturik egin ez baneutse!

Geltokietan naikoa atzera-aurrera eginda, eguerdi aldean Donostia'-ra eldu giñan. Orduko iragi euskuezan ateak eta, Donostia'ko geltokian atzera-aurrera genbiltzala, Gros'en bultzi bidera alderdia euken etxetako-ak konturatu ziran zeintzuk giñan bultzian giñoiazanak, eta ogia edo zer-bait emoten alegindu ziran.

Irun'erañio joan giñan bultzi aretan. Orduko janda gengoan sar-diñazko gure jakia. Sekula ez daust txartoago egin janak. Sabeleko miñez okertuta nengoan. Ta *Paseo de Colón*'go etxe errean orma zarretan sartu ta galtzak erantzi bearra izan neban. Baiña sabelekoa ez zan min guztia; au arintzean, agiñeko miña neukan.

Geroago be galtzak askatu bearra izan neban. Bidasoa'ko bultzian eroan bear ginduezan Elizondo'ra; ta bultzi au artzeko, gutzat bereziki jarritakoa kontixu, *Gal* ostiko zelai ingurura eroan ginduezan. Ta an, bul-tzian sartzeko gengoazala, sabeleko miñari ezin eutsita, nire maleteari begi-ratu eiala mesedez esan neutsan, arpegiz ezagutzen neban mutrikuar bate-ri. Baiña bildur apur bategaz joan nintzan ango sasi artera galtzak erazte-  
ra, toki aretan jendeagandik alde egitea beste aldera iges egin naian ete nenbillen susmoa gure zaintzaille ziran gudarietako bateren batek egin eikeala ta.

Gero, sabeletik apur bat konpondu nintzanean, agiñeko miña barri-ro. Neure bizi guztian alako egunik ez dot igaro.

Illunduta eldu giñan Elizondo'ra. Andik Arizkun'era joan bear giñan. Ez dakit zenbat bide dagoan, baiña oiñez eta modu aretan luze egin jakun. Bost kilometro inguru egongo dira. Ta euria egiten eban, ez lodi, baiña atertu barik bide guztian. Geuri be kostau jakun geure maletak ero-atea; baiña zer eroan geiago eukenei geiago. Errezago eroan al izateko,



makilla edo adar batetik maletak isegi ta makillearen mustur bakotxa lepoman artuta, lagun biren arten eroaten be ikusi nituan. Bateri baiño geiagorri, atertu bako euri arek, euren maleta merkeak ondatu eutsezan eta kirten utsak eskuan geratu jakezan.

Arizkun'era eldu giñanean, ordu aretan ez egoan gu nun sartu ta pelota lekuan geratu giñan. Eskumako alde iragia eukan, baiña beste guztiak itxiak; goia be bai. Beraz, an ez geunkan euri bildurrik. Ta denporeagaz jendea lurtean jarri zan, al zan eran lo egiteko. Nire lagunak be bai. Kostauta, baiña luzatzeko aiña toki egin eben eta gau guztian lo egin eben. Nik ez; ni ez nintzan etzin. Nik igaro neban eguna igarota, ezetarako gogo barik nengoan; eta maletaren aurka lepoa (bizkarra) ipiñi ta jarrita (exerita) gau guztia egin neban. A zan gabaren luzea! Naiago neban orduan adimen bako gizajoa izan banintz. Gure orduko ibillerak eta igaro nituan miñak, ilda laga eben nire biotza.

Eguna egin zanean, asi ziran joan bear giñan tokietara eroaten. Aldra bateri deitu ta eroaten zituen nunbaitera. Geroago besteak, eta olan jarraitu eben. Nekez egiten eben zeregiñ a. Gu azken atara ginduezan pelota tokitik. Arratsaldeko ordu biak ba-ziran gitxienez. Bost lagundi edo konpañitan banatu ginduezan. Lagundi bat Azpilikueta'ra eroan eben, baiña besteok Arizkun'en geratu giñan. Gure lagundia, erri barrutik geienez bost miñutuko bidea egoan tokira eroan ginduezan. Etxe edo danadalako bitan banatu ginduezan. Geienak, baserria baizen andia zan ardi txabola edo mendiko gauzen gorde leku izango zan baten; antxe ipiñi eben sukaldea, ta gudariak be bertan gelditu ziran. Ta an danok sartu ezin giñalako, andik berrogetamar neurkiñ ingurura egoan ardi txabola txikiago baten irurogei lagun inguru. Geu be bai.

Gure txabolea zati bitan banatzen zan. Sarrera txikiagoa, ta ate bat aiñako uts edo ueko batetik igarota, andiagoa. Ate zulo arek bean koskea eukan. An ez egoan ezer jakirik gutzat, eta ia egun bian, aurre eguneko iru edo lau sardiña izan ezik, jan barik egoan jendeari zerbait emon bear eta errezena egin eben: fideoa.

Ta emoten asi ziran. Ta artu ta neure barruko tokira niñoiala, aztu jatan an egoan koskea ta estropozua eginda ipurdiz gora jausi nintzan plater ta guzti. Soiñean neroan jantzia, trintxerea be, dana loitu neban.

Agur nire bazkaria! Ia egun bi ezer berorik barruan sartu barik eta orduan a jazo bear! Zelako gizajo itxurea ete neukan nik orduan? Ni ixillik nengoan; baiña nire orde, ezagutzen ez ninduan jende arek berba egin eban, eta barriro emon eusten fideoa ta jan neban. Ez zan oillo saldea, baiña izan bailitzan gogoz iruntsi neban. Iluntzean be oraindik ez

egoan ezer, ta axe emon euskuen barriro be: platera bete fideo ta ezer be ez besterik. Ogirik be ez.

Biamonean asi giñan lanean. Errazu'tik aurreratxoagoko mendia zan gure lan tokia. Ez naz gomutatzen edo ez neban jakin zer lan egiten zan an. Baiña Prantzia ta España arteko mugea egoan andik urtean, eta ziur toki areik gudarako gertutea izango zan, gero Gaintzurizketa'n egin genduazan lez, ametralladoren abiak eta abar egiñaz.

An egon giñan denporan, illabete ingurua, lau egunean bakarrik lanera eroan ginduezan. Katean jarri ta eskurik-esku arriak erabiltea izan zan gure lana; ez ziran arri andiak.

Cardeña'tik aldatu ezker, egun batzutan, etxetik bialtzen euskuen jatekorik artu barik gengoan, eta an emoten eben apurragaitik gosarik ezin kendu. Batetik gosea ta otza, negua zan da, bestetik atxillotuen bizimodu a, gudarien begiratzepan lan egin eta zikiñez josita, ardi txabola baten lur gaiñean lo egiñaz, ez nengoan allimoso.

Ia illean nengoala, poz andia izan neban. Bat be uste barik, erritar adiskide bategaz tope egin neban: Olea'tar Andoni'gaz. Prantzia'ra itxasontzi baten joan giñan, eta Bilbo'ra urrengo Epaillean biurtu zan arte alkarregaz ibiltzen giñan. Orduan egindako laguna neban. Berak irakatsi euskuzan prantzesez ikasi genduzan lenengo berbak. Ta an, Errazu'ko mendian bat-batean alkar ikusi genduanean, besarkada estu-estu bategaz alkar agurtu genduan.

Bilbo galdu ezker, alan ei ebillen urte bi ta geiagotan. Orduan kartero egoala esan eustan. Esan genduzan kontuen artean, Prantzia aitatu barik ezin egon; eta antxe geure gaiñean egoan mendietan egoala mugea esan eustan. Baiña edozelan ez begiratzeko mendi aretara, iges egiteren bat gertuten geniarduala iñok susmau ez eian.

Tartean-tartean, iges egiten ei eben Prantzia aldera atxillotu edo bata-lloiko langilleak. Egitada onek amorru andia emoten ei eutsen ango arduradun gudari nagusiai. Baten, mutil batzuk iges egin ebenean, an geratu zan euren lagunari gorriak igaro eragin ei eutsezan. Iges egindakoak bere lagunak zirala ta arein asmoen barri jakiñean egongo zala-ta, isegi (*colgar*) ta emonalak emon ei eutsezan. Gizajo beraren aotik entzun ei zituana kontu oneik Olea'k, ta entzutean negarrak urten eutsala esan eustan.

Gero, gure lagunditik be bein baiño geiagotan iges egin eben.

Iges egite au zer edo zelan amaitu nai-ta, izen zerrendan alkarren jarraian giñan bosteko taldeak, alkarren arduradun edo erresponsable jarri ginduezan. Bear bada alkar ezagutu be ez genduan egiten. Ta baten, batzuk iges egin ebelako, zelaira deitu euskuen; eta iges egin ebenen



ondoren izena euen bost artu ta Iruña'ra eroan zituen epaitzeko. Ez neban jakin zer zigor emoten eutseen.

Orain esan ditudan arduradunak edo errudunak aukeratze orretan, gure erritar ta nire lagun Erremertería'tar Eduardo be artu eben. Baiña an egoan gudari batek, au ezaguna ebalako edo ez dakit zegaitik, atzera lerro-ra bialdu ta beste bateri deitu eutsan.

Arizkun'era joan eta egun batzutan, arpegia garbitzeko aukerarik ez genduan izan. Ta eguzkia agertu zan baten, geuk eskatuta, ibaira bialdu ginduezan. Neguaren sarreran gengoan; baiña eguraldi ederra egoan eta paitak baiño atsegiñago ibilli giñan igarian.

Aurrerago aitatu dodan agiñeko min arek, ez eustan bakean lagaten; egunetik egunera andiagoa neukan. Lotaritzen nintzanean, berotasunak edo ez dakit zek ekarten eustan. Ta etzinda nengoan tokian jarri (jezarri, exeri) ta esku biak matraill azurrean edo buruan nituala, inkezaka ez nintzan geratzen.

Txabolaren barruko alderdi arek, geienez be, amabost neurkiñeko laukoa egiten eban, eta ogetamabost bat lagunek lo egiten genduan bertan; sardiñak latetan lez egoten giñan. Ta miñari ezin eutsita, len etzinda egon eta jezarten nintzanean, bereala itxi edo beteten zan atzean lagataka tokitxoa, arria uretara jaurtiten dogunean ondua joatean gaiñean lagaten daben tokia bereala itxiten dan lez. Estu-estu egoten giñan; eta lo egozala, nasaitasun apur bat egoan tokira gorputzak berez joaten ziran.

Gero, ordu bi edo irura, miña arintzen jatanean, etzin naian asten nintzan; baiña ez neban tokirik eukiten, eta an ibilten nintzan ixilka albo-koi ziri ta bultzaka, etziteko aiña toki egin naian.

Batailloko osagillearengana eroan ninduan praktikanteak, gaixoakaz Iruña'ra joiazanean, neu be eurakaz batera agiña ataratera eroan nindeien; baiña aztu egin jaken eta ez nintzan joan. Andik laster, asistente jarri nintzan eta gorputzeko garbitasunak egiteko aukerea ba-neukan; eta agiñak garbitzen asi nintzanean, joan egin jatan miña, edo asko arindu beintzat.

Ordutik illa batzuetara, Gaintxurizketa'n gengoazala, bakarrik bidezabalean niñoiala, gu lako langille bat agurtzera urreratu jatan. Ezagun lez agurtzen ninduan ari, ez nebala ezagutzen esan neutsan.

— Nik bai zu —erantzun eustan—. Arizkun'en agiñeko miñagaz egoten ziñana.

Barre egin neutsan.

Arizkun'en, agiñeko miña neukan aldi baten, bufanda illunagaz estalduta eukiten neban arpegia, burutik zear lotuta. Lenago be esanda daukat: gure lagundiko sukaldea edo sua beste bordan egoan; eta gu ara jatekoa

artzera joan orduko, besteak lerroan jarrita egoten ziran, eta gu atze aldean geratzen giñan.

Egun baten, besteetan lez gosaria artzera joan giñanean, gure txabolakoak lerroaren atzean geratu giñan. Ez dakit lanera joateko giñan ala ez; beintzat, oraindik illun egoan. Gosaria emoten asi ziran eta apurka-apurka ba-giñoiazan lapiko ondora urreratzen. Baiña itxurea zanez, akeita-esne gitxi jarri eben-edo, danontzat elduko ez zan bildurrez, gu atzekoak bigarrenez artzera giñoiazala esaten asi zan sarjentoa. Guk ezetz ta ezetz; artu barik gengoazala. Olan eztabaidan genbiltzala, eldu zan nire txandea ta, bigarrenez ez niñoiala agertzeko, emon eusten gosaria jaurtitera siñua egin neban. Orduan, an egoan kaboak zigorra jaso eban ni joteko, ta jende artera iges egin neutsan. Ta edan neban, begia baiño naiago neban akeita-esnea.

Ta alako baten, kaboak arkitu ninduan, eta ea gosariagaz zer egin neban itandu eustan. Edan egin nebala erantzun neutsan. Obe nebala, bai, edan, esan eustan berak.

Eskerrak edan neban, edo jaurti ez neban, bestelan garbituko ninduen!

Gosaria jaurtitea jarkitea zan areintzat, errebelatea. Itxurea zanez, ni ezin billatuta ibilli zan, eta burutik bera neukan bufandan ezagutu ninduan.

Arizkun'en egun batzuk geroazala, berbetan jarri giñan gure txabola aurrean ango erritar bategaz. Egun bi edo iru lenago euskaldun emakume bi eldu zirala, an batalloian eukezan anaiak ikustera, esan euskun. Ori entzun genduan, geure arrebak izan eitekezala bururatu jakun, an euskaldun gitxi gengoan da; eta kezakaz jarri giñan, zer jazo ete zan.

Laster jakin genduan dana. Lagundiko alferezak, Arteta'k, deitu euskun. Teodoro lengusuaren arreba Maria Anjeles eta nire arreba Justina izan zirala gu ikusi naian; baiña komandanteak ez eutsela laga, oraindik denpora gitxi geroala an da. Ta beragaz joanaz, nai beste kontu esan genduan. Ea zergaitik gudeari iges egin geuntsan itandu euskun; eta bildurtzen giñalako erantzun geuntsan. Mutil gazteak gudeari iges egiteak arritu egiten eban. Baiña, al izan balebe, euneko larogeiarek iges egingo eutsala ez dago ezpairik.

Arek uste eban, gu gudara joan bagiña, euren alderdira joango giñala. Egia esateko, katoliko euskaldunarentzat gauzak ez ziran argi etorri; ez egoanitsu-itsuan batera edo bestera joaterik. Alan be, neu beintzat, joatekotan, euskaldunakaz joango nintzan, eta lengusua be bai.



Guri laguntzeko jarri zan Arteta jauna; berak ez ebalu bear, baiña bosgarren lagundiko alfereza, Ezkurra, asistente bearrean arkitzen zala, ta Teodoro aukeratu eban orretarako. Ori gauza jakiña zan; a ta ni batera aurkeztu ezkeru, beti bera aukeratuko eban. Baita neskak be. Nire ondoan mutil jasakoa zan. Erderaz be nik baiño askotaz obeto ekian. Baiña gero, ez dakit zelan, ofizinako langillea zala jakin eragin eutsan Teodoro'k Arteta'ri. Ori jakin ebanean, ofizinarako aukeratu eban eta asistentetza nitzako geratu zan.

Sekula entzun ez neutsen arren, alferrez biak jakingo ebela euskeraz uste dot. Ezkurra'ren berbetako doiñua euskaldun jatorraren doiñua zan. Naparrak ziran biak.

Arteta'gaz egon giñan eguna Gabon aurrekoa zan; eta Gabon egunean janaldi bat egin gengian gure arrebak ordainduta laga ebela esan euskun; eta arratsaldean, gudari bat zaintzaille genduala, ango Fonda esaten eutsenera bialdu ginduzan. Guk geunkan gosegaz eta onenetik nai aiña jatera. Alako aukerarik!

Tortillea, aragia ta oilloa ziran atera euskuezan janariak. Gure zaintzaille gudaritxoa, sekula nai beste jan bako gazte ziztrin gizajoa, bereala bete zan. Guk lengusuak, ostera, bildurtzeko aiña jan genduan. Gizonaren urdaillean ba-dago tokia, batez be utsik dagoenean!

Gabaz ez giñan joan aparia, arrantxoa, artzera, Gabon egunari egokion lez, obeagoa ta ugariago emon eban; baiña etxetik be pardela artuta gengozan eta ez geunkan arrantxo bearrik. Ta arratsaldekoaren gaiñean ekin barrero jateari.

Nire bizian ez da geiago jandako egunik. Ta ondo-rena be alakoxea izan zan. Ordu batzuk lo eginda gaberdian esnatu nintzanean, nire kantzontzilloak eta ipurdia zelan egozan! Beno, barre egitekoa be ba-da ta ez esatea obe.

Andik laster asistente lez asi nintzan. Ez zan zeregin txarra. Goize-tan oiñetakoak garbitzen neutsazan eta alegiñak egiten nituan dizdira ataraten. Alfereza neugaz ez eiteala aspertu neure paltaz beintzat.

Bost gudari agintaririk etxe baten jaten eban, bertako etxekandreak gertuta; ta guk, asistenteok, egiten genduan maira atarateko zeregiña. Oneik ziran bost ofizialak:

Ezkurra, ona, erderaz esan oi dan kanpetxanua; Arteta, zuzena, zital antzekoa; bere betaurreko ta arpegi fiñagaz josulaguna zirudian; Virto, on ona, apurtxo bat gizajoa, nire nagusiaren seme —gero nagusia— Baldasar'egaz batera ikastetxean egondakoa, berak esan eustanez; Ziganda kirten antzekoa, beragaz izandako gero esango dodan zerbaitegaitik ez

neban begiko; ta bosgarrena, Hoz ebala uste dot abizena, tenientea (besteak alferrezak ziran) ona ta ona izatea billatzen ebana, zalduna.

Maian, jakiña, kontu asko eukiten eban esateko. Eurai entzundakoe-tatik gauza bat gomutan geratu jatan; Hoz'eri entzundakoa. Gudako ez dakit zein liskarrean —geienetan gudako kontuak izaten ziran— onako au esan ei eutsen ez dakit zein gudalburu edo jeneralek, zera, pusillaren puntan arerio bat eroanari, amabost egunerako etxera joateko baimena emongo eutsala.

Gudea gudea izango da —gudea egiteko errazoiak izatea ez da erreza—, baiña katoliko baten aotik olako barbarik ezin urten daiteke.

Len esan dodan Ziganda'zko autotxoa au izan zan: baten maian, berari emotera niñoian tenedora, kirtenetik barik, ortzetatik artu neban; eta besoa jasoaz, ia belarriondakoa emon eustan. Tira, okerragorik ez zan jazo, Hoz'ek aldeztu ninduan da.

Ni lez asistente egoan, Donibane Lohitzune'tik ezagutzen neban Luis Villar donostiarra. Abots ederrekoa zan mutill au, ni baiño zartxoagoa. Berari aiñako baritono gozorik askori ez dausat entzun. Ia beti alkarregaz ibiltzen giñan, niri etxetik bialtzen eustezan antxoba fileteak jan eta txikito bat edo beste edanaz.

Igande arratsalde baten, ez dakit berak ala neuk, alferrezagaz egon bearra geunkan eta Fondara joan giñan, ofizialak antxe egozan da. An ez egoan beste tokirik jan-edan bat egiteko, nai kafe bat artzeko. Fonda arek toki bat edo bi baiño geiago eukazan; eta, alferrezagana baiño len, ango erritarrak egozan areto edo gela baten geratu giñan. Ez dakit kartetan ziarduen ala ez. Baiña gu joan giñanean, abestia baiño ez egoan an. Villar asi zan abestuten; gero neuk be bertso zarrak tartean abestuaz. Pozik egozan angoak.

Olan geniarduala, nire alferrez Ezkurra, ez dakit zetara, gure aretora sartu zan eta, Villar abestuten entzun ebanean, aoa zabalik geratu zan, eta beste ofizialai deitzera joiala ta bereala an egozan danak. Egundoko abesti ta alaitasuna erabilii genduan danok. Jakiña, abestiak danak euskerazkoak ziran.

Ta onegaz zer ikusia dabelako, urrengo baten beste ardandegian jazo jakuna edestu bear dot.

Baten, gure lagundian egoan gu lako langille baten laguna etorri zan. Langille a, bilbotarra, nik *Guitarrón* ezizenez gomutatzen dot. Oguzkeran «erre» sendoa ataraten eban eta danoi *guitarrón* esateko oiturea eukan. Bere-bere esateko moduz urtetzen eutsan berba orrek, eta ortik dator nik ezizen orregaz bera gogoratzea.



Egun baten, esan dodan lez, bere lagun bat etorri jakon ikertzera. Lagun a, gudan frankotar ofiziala izandakoa ei zan. Ta *Guitarrón* arek, bere lagun aregaz askari bat egin bear genduala ta, Elizondo'tik datorren bide zabalak Arizkun'era eta Errazu'ra artzen dauan bide gurutzean egoan ardandegira joan giñan, bera, *Guitarrón*, Villar, Eduardo, neu ta gudariren bat. Bageunkan sarjentoaren baimena.

An sartu giñanean, bertako alabea zan amasei urte inguruko neska pollit bat urreratu jatan. Len esan dodan Fondako gure abestiak entzun ei zituan bere anaiak kontixu, ta alako esan bearrean joan ei zan etxera, «trabajadorietako» batek sekulako bertso zarrak abestu zituala ta. Ta gu ardandegian sartu giñanean eta ni ikusi ninduanen, len esan eutsan «trabajadorietakoa» neu nintzala anaiak orduan esan ei eutsan, eta orixe esatera etorri jatan.

Ez nintzala ni esan neutsan, bestea zala. Baiña bera ezetzean egoan. Itxurea zanez, bere anaicari nire kanta zarrak atsegiñago izan jakozan, Villar'ek ain abots ederrez abestu zituan abestiak baiño.

Arratsalde aretan be naikoa abestu genduan ardandegi aretan. Villar'ek eta Eduardo'k bakarka be bai. Ta atsegiñez gengozala, guri eldu jakun estutasuna! *Guitarrón*'en bilbotar lagun aren zain gengozala, bera gure batalloiko komandanteagaz sartu jakun ardandegian. A ikusi genduanen, mai azpian eta al zan lez ezkutau ta urten genduan ardandegitik, *Guitarrón* ez besteak.

Alantxe amaitu zan arratsalde aretako gure pesta.

Agiña ataratera joan nintzan Donostia'ra baten. Ordurarte sekula atara barik nengoan. Bein, Donibane Lohitzune'n agiñeko miñez nengola, joan nintzan ataratera; baiña arratsaldeko orduak aurrera joiazan, eta atera urten eustan neskameak, biaramon goizean joateko esan eustan. Ta biaramonerako alde egin eustan miñak eta ez nintzan joan.

Arizkun'dik joan nintzan aretan, Oña abizeneko donostiar erdaldu-na zan batalloiko praktikanteagaz joan nintzan. Donostia'ra eldu giñanean, ea agiña ataratea nai neban itandu eustan berak. Itaun a zer asmogaz egin ete eustan berari begira jarri nintzan eta baietz erantzun neutsan, uste orregaz joan nintzala. Berak, orduan, derriorra ez baneban agin ataratea, urrengo baterako lagako genduala esan eustan. Nik lepoa jaso ta bere esanetara geratu nintzan. Olan bada, nun batuko giñan alkarrerri esan eta bakotxa bere bidetik joan giñan. Ni, Mertzedes arrebea neskame egoan etxera, Oquendo 2, Ramón Sierra jaunarenera. Ez dakit orduan nire zainzaille gudaria eroan neban ala ez; ez ziurrago. Beintzat, baten gudari bategaz joan eta biok an gosaldu genduala gogoan daukat.

Gauza polita jakin neban bertan etxean. Gudea asi zanean ba-nituan liburu batzuk. Gitxi; amar-amabosten bat. Batzuk arrebeak berak nitzat erositakoak. *Biotz begietan*, Lizardi'rena, Aitzol'en *La democracia en Euzkadi*, Gallastegi'tar Elias'en *Por la libertad vasca*, lenengo *Aberri Eguna*, Agirre'tar Tomaren *Gazigozokak*, *Bertolda ta Bertoldin*, *Bizkaya por su independencia* ta beste iru-lau. Jakiña, liburuok neure etxean geratu ziran; eta aldi aretan olako liburuak eukitea arrisku andiko kontua zan eta arrebeak artu, ta bera neskame egoan Sierra jaunaren etxera eroan zituan eta sukaldeko arasan eukazan gordeta. Nagusi jaunak eta bere emazteak ez euken zer egiñik sukaldean, eta areik arkituko zituen bildurrik ez egoan. Prankotarrren Gipuzkoa'ko lenengo gobernadorea izan zanaren etxean egozan eusko abertzale liburuak. Nun ziurrago? Zelako atsegiñez eskuetan artu ta erabili nituan!

Baiña ori baiño politagorik ba-egoan. Edesti apur bat azaldu daidan.

Franco'ren matxinadea sortu ta gorriak nagusi ziran aldi aretan, Sierra gizajoa, etxetik alde eginda, bere burua ezin gorderik ibilli zan. Bere emaztea ez dakit etxean ala nun zan; beintzat nire arrebea, prankotarrak Donostia'n ziraneko Ondarru'n egoan, bere amaren etxean, geure etxean. Ta, gorrien azkenengo egunetan, gudariantzat jatekoa egiten sukaldari egon ei zan Eusko Batzokian. Ta a laga bearra eldu zanean, gomutakitzat, ango jikara ta plater txiki bikotea artu ei eban, eusko ikurrin margokoa eta batzoki aren izena idatzita. Jikara ta platertxu areik be Sierra jaunaren etxean egozan, antxe sukaldeko arasan, kaltzerdi txiki baten barruan sartuta ta kaltzerdi musturra lotuta. Ta areik be ikusi nituan musturra askatuta.

Nok uste izango eban, prankotarrak Gipuzkoa'n ipiñi eben lenengo agintari nagusiaren etxean, alako gauzak arkitu eitekezanik?

Baiña Sierra jaunak kontu onek gaur jakingo balitu, ez dot uste asarratuko litzakeanik; barre egingo leukeala esango neuke, bada etxe aretan ondo ekien nire arrebea zelakoa zan olako kontuetan, eta gai onezaz iñoiz jardun be bai.

Ara orduan neuk arrebeari entzundako kontu polit bi:

Sierra jauna, baten, Ondarru'ko osagille jaun bategaz egon ei zan: L.A.'gaz. Osagillearen erritarra zan Etxaburu Etxaburu abizeneko neska bat eukala neskame esan ei eutsan Sierra'k. Bestea lenengoan ez ei zan gogoratzen neska a zein izan eitekean. Aeako baten, kontura etorri zanean, lenengo berbea zera izan ei zan: neskameari ez ixteko Ondarru'ra joaten autarkia emotera. Auteskundeak gaiñean ziran eta jaun arek ondo ekian gurean noientzat izaten ziran autarkiak.



Sierra jaunak berak esan eutsan au danau nire arrebeari. Jakiña, laga eutsan Ondarru'ra joaten. Oba ez!

Ta beste kontua: Sierra jauna aldi aretan *El Diario Vasco*'ko zuzendaria zan, eta Bilbo'ko *Enxkadi* egunerokoaren zuzendari zan P.R. Olano'z-gaz eztabaidea izan eban, euskerea zala-ta. Sierra'k tautik ez ekian euskeraz, baiña besteak be ez ekiala ba-ekian, eta bere izparringitik zemaia jaurti eutsan, erriaren aurrean euskeraz nor geiagoka egiteko. Ba-ekian besteak ez ebal aurrera egingo.

Kontu onezaz etxean ziarduela, euskeraz nor geiago zan jakiteko erriaren aurrean aurkeztu balira, ea zer esango eban itandu ei eutsan Sierra jaunari nire arrebeak, ta berak erantzun:

— Iñazio, gure patroï andia.

Olantxe, asierea bakarrik; eta orain gogoratzen ez nazan eta euren esanaia ez ekian iru-lau berba suelto esan ei zituan. Axe zan ekian guztia euskeraz.

Egun baten albista txarra emon eustan Ezkurra'k; gu, Prantzia'n egondakook, Miranda'ra bialtzeko agindua etorri zala, gero andik Algeciras edo ego aldeko toki areitara eroateko.

Emen, etxeokak arrabete bidean genduzala, polito konpontzen giñan; baiña Jaungoikoa'k ekian toki areitara eroaten baginduezan, gorriak igaro bearko genduzan. Alan be, egunak etorri ta egunak joan eta iñok ez eban ezer esaten, eta aztu egin nintzan auzi onezaz.

Lenago aitatu ditudan bost gudari agintariak, Ezkurra ta lagunak, aldatu egin ziran lengo etxetik. Nire nagusia ez beste laurak etxe bat artu ta, «trabajadorietako» bat sukaldari ipiñiaz, euren kontura jatekoa egiten asi ziran. Sukaldari, ain zuzen, Itxasu'ko Etxedoia'n alantxe izandako Muruaga'tar Kepa bermeotarra ipiñi eben. Gure lagundikoa zan eta zeregin orretarako neuk billatuko nebala uste dot, bada a sukaldari lez ezagutzen eban bakarra neu nintzan. Bear bada, lagundian sukaldaria eskatuko eben eta bera aurkeztuko zan. Ez dakit ziur zelan izan zan kontua, baiña neuk emon nebala bere izena uste dot. Berez buru jaso zan bera, gogorra, iñori bildurrik bakoa, baiña an ilda arkitzen zan, errukia emoteko moduan. Sukaldari jarri zanean barrero biztu zan.

Ezkurra, lo egiten eban lengo etxean bertan jaten geratu zan. Len, jan etxe baten eta lo beste etxeetan, banaturik egiten eben.

Ezkurra egoan etxea kale baserria zan, adiñean aurrera joan andra andi zabal alargun baten etxea. Ez naz gogoratzen ez andrearen izenagaz ez etxearenagaz.

Neu be etxe aretan lo egiten jarri nintzan. Nai izan baneu, oean egingo neban; baiña nengoan modurako geiegi iruditen jatan eta lurrean koltxoia ipiñita egiten neban.

Lotara joan aurretik, su ondoan egoten giñan — beko sua egoan — etxeokandrea, Ezkurra ta irurok, ango ta emengo kontuak esaten, ixildu barik. Iñoiz politikaz be berba egin genduan Ezkurra ta biok. Jakiña, beti ez gentozan bat eta ez ta bai ibiltzen giñan. Baten aurreregi be sartu nintzan eta estu ibilli nintzan ondo geratzen. Abertzaleak eta karlistak batera jokatu bear ebela esaten eban, bien gogaiak erdi berdiñak zirala ta.

Queipo de Llano'taz berba egin genduan baten. Barrero urten nai baeben, beragaz kontateko esan ei eutsen karlistai. Nik orduan berari:

— Zer: berriro gudara?

— Ez; baiña, beintzat, Queipo de Llano geugaz dago edozetarako.

Bertan etxean gosalduten neban. Errial bat ordainduta, pota bat esne, litro erdi esne, artzen neutsan etxekandreari.

Erregeen inbidiarik ez neukan orduan.

Baiña beartsuen etxeetan pozak gitxi irauten dabela da esakerea, ta neugaz be orixe jazo zan. Batalloiko agintariak ziñoanez, gudariak izan bear ei eben asistenteak, eta ez langilleak; eta laster lagundira joan bearko nebala, besteak lez izatera, Ezkurra'k esan eustan.

Ta alan nengoala, beste albista bat etorri zan batalloira; aldra andi batek Gaintxurizketa'ra joan bearko genduala. Ta gu, len Miranda'ra bialtzeko agindua geunkanok, antxe tartean sartuta bialdu ginduezan. Olan, Miranda'tik gure deirik baegoan, Gaintxurizketa'n gengoazala ta eskuak garbituko zituen.

Ta neguko egun eder baten, an urten genduan lau edo bost kamioitan Gipuzkoa'runtz.

Arizkun'dik urten eta Errazu ta Elizondo'rako bide gurutzean, lenago aitatu ditudan ardanegikoak, joiazan langilleai agur egitera urtenda egozan; antxe alaba polita be. Ta alegindu nintzan nigaz konturatu eitean, baiña alperrik, besoak jasota ta didarka giñoiazan danok eta.





## GAINTXURIZKETA

Gaintxurizketa'tik laster, Lezo'rako bide-zabalaren gaineko aldean, Jaizkibel'en altzoan egoan Arriaundi izeneko baserrira, lagundi bat eroan ginduezan. An inguruan egoan arri andi bakar bategaz egindakoa ei zan baserri a, ta ortik ebalá bere izena entzun neban. Ez zan antxiñakoa. Esker-eskuma bizitza bi ziran. Ez euken aberatsen antzik. Lur gitxi-edo, gu bizi giñan alderdiko etxeko lau mutil gazte Errenderia'ra lanera joaten ziran.

Ara eldu giñanean, an ingurukoai etxera osterá bat egiteko gogoa eldu jaken, eta sarjentoak baimena emon eutsen, edo emon euskun, bada neuk be arreba ta senideak (aideak) ba-neukazan Donostia'n. Ez dakit jai aurreguna zan ala beste edozein egun; jai aurreguna bazan, astelen arterako baimena emon euskun; eta beste egun bat bazan, biaramon goizera arte. Zana zala, goizean *topo*'tik urten eta burdi bidean goruntz baserrira urreratu giñanean, gudariak urten euskuen estu-estu: komandantea etorri zala, ta lista igarotzean an ez egozanen izenak erantzunik ez ebela izaten eta larri ebiltzala. Ta ezkutuka gizon zerrendan edo formaziñoan sartu ginduezan.

Baimenak, beingoak izan ziran.

Bereala lanera eroan ginduezan. Gure lan tokia Gaintxurizketa gainea zan, Irun aldekoa. Lan asko eginda egoan orduko. Bide-zabalaren alderdi bietan ametralladora abiak, eta lur azpitik abi arteko bideak. Guda izan ezkerro, prantzesari, Irun'dik zear euken sarrerea itxiteko asmoz egindakoak ziran. Gure nagusia zan alferez batek, sekulako gorrotua eutsen.

— Zelango pozez egongo nintzake, emen barruan ametralladoreari eragiñaz, prantzesak garbitzen —esan euskun, abi aurrean.

Ni andik urte batzutara, ain zuzen be, Ondarrabia'ko irundar neskatilla bategaz ezkondu nintzan; eta andik igarotzen garanean, an eta emen sakabanatuta sasi ta iragarkiakaz estalduta dagozan guk alperrik —alan obe— egindako abiak nun dagozan esaten ibiltzen naz neure andra ta seme-alabai.

Arizkun'en polito gongozan Teodoro ta ni, baiña Gaintxurizketa'n lanean asi bear izan giñan. Alan be ez luzaro Teodoro. An be ofizinan sarzea lortu eban.

Eduardo'k be pikotxari ta paleari iges egin al izan eutsan. Donostia ondo ezagutzen eban baten bearra egoan; eta bera, ondarrutarra, aurkez-

tu zan. Josten ikasten Donostia'n luzaro bititakoa zan. Suministrokoa egin zan eta egunero joaten zan Donostia'ra kamionetan. Larunbatean ez zan biurtzen lagundira; Donostia'n geratzen zan astelen arte. Iñoiz entzun nebanez, galtza zuriakaz da dotore ibiltzen ei zan igande ta jaietan.

Denporegaz, andik iru-lau illabetera, Aritxulegi'n gengoazala, zerbait izan eban geure lagundiko sarjento bategaz. Langille atxillotua ain dotore ezin ikusita-edo, baileren baten beragaz zerbait izanda-edo, aurka jarri jakon asteko sarjentoa —*sargento de semana*—, eta mendira lanera bialdu eban.

Baiña zori onak jarraitzen eutsan Eduardo'ri. Geienez be, egun bi edo iru egin zituan lanean. Mendira bialdu ebenean, gure txabolako egin zan; eta, bat-be uste barik, *Plana Mayor*'erako deia izan eban, jostun. Ta gu lagata an joan zan Oiartzun'era —ala Errenderia'ra?— etxerako eguna eldu jakon arte.

Nik, barriz, ezin-ta zori txarragoa izan neban Arizkun'dik alde egin neban ezkerro. Teodoro alegindu zan nitzat zerbait on billa, baiña dana alperrik.

Baten, alferez barria etorri zan lagundira; ta kontixu asistentea bear ebala esan eban ofizinan, eta bereala neure izena emon eutsan lengusuak. Baietzean geratu ei zan alfereza; ta, ori jakin nebanean, an nengoan, ni noiz deituko eusten, dana begi ta belarri. Mendian lanean nengoala be, norbait gure alderuntz etorrela ikusten baneban, adi-adi jartzen nintzakoan, neuretzat zerbait ete ekarren. Baiña egunak joan eta egunak etorri, ezerezean geratu zan dana.

Astebete inguru igaro zanean, biztu aldia izan neban; aztuta egon zala alfereza, baiña barrero berba egin ebela nire asistente kontuaz eta deituko eustala. Ta bigarrenez an nengoan ni, danai begira, zer entzungo. Bai alperrik!

Azkenean, beste bat joan zan asistente. Alferezak niri deitzeko lengusuari agindu eutsanean, naparra zan sarjento bat, Goñi, antxe arkitu ta berak ekarriko eutsala asistentea, ta Erribera'ko napar mutil bateri deitu eutsan. Agur nire itxaropena!

Geroagokoa politagoa izan zan oraindik. Orduan Aritxulegi'n gongozan. Teodoro orduko aske etxera joanda egoan, eta Eduardo zan, *Plana Mayor*'en egoala, nire alde alegindu zana. Almazenerako bear ei zan bat, eta Eduardo nigaitik berba eginda egoala banekian, eta zain-zain nengoala, noizbait eldu jatan deia: biaramon goizean joan neinteala. Ta biaramonean jagi ta laster kukulumutxu bizarra kentzen niarduala geure txabolan, beko aldetik didarka asi jatan bat:



— Etxaburu, Etxaburu!

— *¿Qué pasa?*

— *Que no te prepares, que no vas a Rentería.*

Gaixotegitik urtendako gipuzkoar mutil gazte bat artu ei eben, neuztat zan zeregin aretarako.

Gaintxurizketa'n, lenengo illabete edo bian mezarik ez genduan entzun, ez ginduezan eroaten da. Gero, geure tokitik laster, bide-zabal ondoko zelai baten, asi ziran geutzat mezea emoten. Lezo'ko bikarioak emoten eban, eta sermoia be egiten euskun. Ordurarte ez ebalakin jakin gu meza barik geratzen giñanik esan euskun lenengo sermoian. Ta pazkoazkoa be egin genduan. Orretarako iru eguneko sermoiak euki genduzan Lezo'ko elizan. Autortzak azkenengo arratsaldean egin genduzan.

Ni sartu nintzan autorlekuan, *Zubigar* olerkaria zanaren eta Garbi-zu'tar Tomas gaur eguneko euskal musikariaren anaia zan abadea egoan. Ainbat belarrimotzen artean euskeraz berba egin eutsan bat sartu jakonean, poztu egin zan. Ta ez euskalduna bakarrik; euskaltzalea be ba-nintzala ikusi ebanean, axe zan alkarrei biotzak zabaltzea! Bere anaia *Zubigar*, olerkari lez, ezaguna neban; eta beste anaia, Tomas, arpegiz be bai, ta alantxe esan neutsan.

Ain zuzen be, nire lenengo olerkaria *Zubigar* izan zan. Amasei, amazpi, amazortzi urte neukazanean, egundo eskuetan olerkari libururik artu barik, *Argia'ren Egutegia*'ko olerki garauak irakurten atseginduten nintzan. Ta antxe egozan *Zubigar*'en olerkiak. Bere *Euzko yatorrak kabian* ize-nekoa ia buruz be ba-nekian.

Batalloiko nagusiari neure alde berba egitea nai ete neban esan eutsan; eta eskerrak emon neutsazan niganako borondate onagaitik, baiña ez nebala nai. Olako kontuakaz len be aspertuta nengoan. Asistentetza zalata jazo jatazan istilluak barrizatzerik ez neban nai.

Teodoro lengusua ez zan autortu, modu aretako autortze eta jaunartzerik ez ebalakin nai ta. Teodoro autortu barik egoala jakin arren, Jaunartzera bialdu nai izan eban sarjentoak, autortu edo ez, ez ebalakin garranzirik eta.

Lenengo Jaunartzea egin ezker, ordura arte Jauna artu bakoak izango ziran geienak; erregantzea artu ebalakin ta isekaz berba egiten be ikusi neban bat.

Denpora areitan zerbait jazo jakon gure lagundiko langille bateri. Zerbait esan eban-edo, beintzat, estu artu eben, eta bekokitik samara ta belarririk belarrira ulea ondo-ondotik moztuaz gurutzua egin eutsan buruan.

Igandea urreratzen egoan eta mutilla geroago ta kexuago, meza ostean komandanteak errebitea igarotzen euskun da. Komandanteak modu aretan ikusi baleu, zegaitik egoan atan itanduko eban, eta bildur zan beragaz jazotakoa arek jakitea. Ta jai aurregunez, ulea ebagiteko baimen eske, buru makur sarjentoagana joan zan. Baietz erantzun eutsan eta buru soil geratu zan; eta pozik!

Barakaldo'koa zan mutilla; euskal abizenekoa, baiña «bai» esaten be ez ekian euskeraz. Bizkorra zan berbetan, eta ori izan ebalakin uste dot bere okerra. Orduan ezin esan eitekean zerbait esan eban-edo. Gero aldatu egin jakon zoria. Bere erriko bat etorri zan batalloira ofizial lez, eta mendia laga ta beragaz errira jatsi zan.

Gaintxurizketa'n gengoan aldia zan alemandarrak Europa guztia irunsi bear ebena. Polonia'gazkoa amaitu ebanean, onuntz begira ipiñi zituen euren gizon, kañoi ta tankeak, eta neke andi barik menderatzen zituen laterriak. Euren aurreratzeak iñor ez ginduzan poztuten, Europa'ren askatasunaren amaia zan da.

Ipar Amerika zan askatasun zaleen orduko itxaropen bakarra; gorriena be bai, komunistena be bai. Enkartaziñoietako gazte batek, Amerika gudan ez zala sartzen ikusirik, esaten eban:

— *¿Pero qué hace América?*

Orduan, kapitalizatzen eta erri zapaltzailetzat iñok ez eban jotzen Amerika. Jakiña, guk nai genduan baizen arin ezin eitekean sartu, gudarako gertu egin bear zan lenengo, ta ez zan ori bi edo iru illabetean egiteko kontua.

Baten, ondo gogoratzen naz, egun aretan alemandarrak eun kilometro aurreratu zirala izparringiak ekarri eben. Barri ori danak barrez artu genduan. «Ori da benetan aoa zabaltzea» esaten genduan. Baiña ez zan dana aoa zabaltzea, ez zan dana gezurra. Beintzat, ordutik aste asko baiño len, gugandik arrabetera eldu zan alemandar gudaroztea, Endaia'ra. Ta Deun Kepa arratsaldean, ni ikustera etorri ziran nire arreba Rosario ta bere senar Migel'egaz, Gaintxurizketa'ko Errekalde izeneko etxearen ondoan, bide-zabal gaiñeko zelaian jarrita zerbait janaz gengoala, aurregunez Endaia'ra eldu ziran alemandar gudariak, jeepetan sarturik, euren kapela aurre arroakaz, bide-zabalak betean Donostia'runtz igaroten ziran. Axe izan zan eten bako igarotea!

Ez ziran, ez, guzurak, aurreragoko asteetan alemandarren aurreratzeaz izparringiak ekarri zituen barriak.

Antxe igaro genduan Aste Santua Arriaundi'n eta Gaintxurizketa'ko lanetan. Ez daukat orduko zer kontau andirik. Onako onegaz bai gogo-



ratzen naz. Eguen Santu egunean, Papini'ren idazlana irakurri neban *La Voz de España* izparringian. Ba-neban Papini'ren entzutea. Gudea asi aurretik neukazan liburu apurren artean, Agirre'tar Tomasen (*Barrenoso*) *Gazigozokak* neukan. Liburutxo arek, beste batzuen artean, Papini'ren zertxobait dakar. Italiar idazle ospetsu onen beste ezer irakurri barik nengon, eta arrezkero be ez dot irakurri. Donostia'ko izparringiak ekarren bere idazlan a, ez jatan atsegin izan. Jesukristo gure Jauna gurutzean josi ebe-nekoiez idatzita egoan. Ango jendeagaitik txarto esaten egiña zan; buru andiak, sabel andiak, eta ez dakit zer beste olako zirala Jesukristo il ebe-nak. Idazlan zatarrak nitzat, lagun urkoaganako maitetasun bakoa. Jaungoikoaren Semea il ebenakaitik be, olan ezin berbarik egin daiteke.

An egozan euskaldunak, edo euskotarrak edo euskal lurrean jaiotakoak, danak nituan lagunak. Bilbo inguruan jaiotako euskeraz ez ekienak be bai. Jakiña, gorria izan zuria izan, bardin jakun; baiña baten eurakaz politiketa atara genduan eta eztabaidan jardun genduan. Eduardo zan nire aldeko bakarra, nire gogaien aldekoa edo ni lez eusko abertzalea; baiña bere berbak gitxi laguntzen eusten. Euren artean bat ba-zan euskeraz jakin eta euskal abizenak zituana, Josetxu izenekoa. «*Pal' pelo*» emongo eustela, denporak aldatzen ziranean, esan eustan berak. Baiña ori gora-bera, len lez jarraitu genduan; edo, obeto esateko, denporeagaz euren eta nire adis-kidetasuna sendotu egin zan.

Lagundia egoan baserrian, sarjento mailla arteko gudariak egoten ziran; andik gorakorik ez. Olan, lanera be soldadu ta sarjentoagaz joaten giñan. Egun baten sarjentoari oetik jagitea kostau egin-edo, bera barik joan giñan. Ez zan izango lenengoa, ziur. Baiña egun aretan, lanean asi giñan orduko, alfereza eldu zan bertara. Sarjentorik arkitu ez ebanean, asarratu egin zan; an inguruan iru-lau lagun gengoan, eta bat lagundiko baserrira joateko agindu euskun, eta bost miñutu barru sarjentoagaz an egon bear giñala. Andik, Ilbistieta baserri ondolik Arriaundi'ra osterea egiteko, nire ustez, Arruiz'ko Txikia'k be ia ordu laurden bear dau, ta iñor ez giñan aurreratzen. Orduan gero-ta asarretuago joian-eta, iñok zirkiñik egiten ez ebanean, neu aurreratu nintzan. Mendiz joan bear zan, ta zati bat aldatz apurra zan. Ta puts otsean niñoiala, bide erdian sarjentoagaz tope egin neban. Ta biurtu giñan. Ez dakit euren artean zelan konpondu ziran.

Beste baten be, neuk nai barik olako kontuan nastau nintzan. Baiña orduan Aritxulegi'n zan.

Amar neurkin inguru goragotik, onil (*embudo*) antzeko olez egindako batetik lur eta arri jaurtiten eben bagoneta gurdira. Gu bekoak giñan, gurdia erabiltekoak.

Baten, ain zuzen geure komandantea aurrean egoala, nik ez dakit zelan, goitik jausita-edo, palea arkitu zan bagoneta barruan. Goikoak ez ziran konturatu orregaz eta jarraitu egin eben arri ta abar jaurtiten. Pala a andik atarateko ezer egin ez gendualako, asarratu egin zan komandantea. Ori egin al izateko, geratu egin bear ziran lenengo goikoak. Ta denporaz goikoai geratzeko agindu ez geuntsalako, orduan lana geratu barik palea atara bear zala ta zarataka asi jakun. Iñor ez zan ausartzen ara urreratzen, bada arriak, ikaragarrizko danbarradea ataraaz, bagonetara jausten ziran; eta asko, salto eginda kanpora be bai. Palea an bagonetan ezkutau bear zala ta ataratera iñor ez giñala joaten ikusita, zoro baten antzera jarri zan komandantea; ta didarka, goikoai ez geratzeko, ta guri bat palea ataratera joateko. Ta an be, iñok zirkiñik egiten ez ebanean, neu ausartu nintzan edo asi nintzan aurrera joaten. Baiña Jaungoikoari eskerrak konturatu ziran goikoak jazoten zanagaz eta geratu egin ziran, ni aurreratzen ikusi nindueanean. Bestelan, antxe izango zan nire azkena.

Lenengo denporetan ezin izan nintzan jarri ango jatekoak jaten. Cardaña'n bein be ez neban apaldu ango jatekoagaz. Baiña gero ez zan an, nik jango ez neban jatekorik. Ta ori, etxetik asko bialtzen eustela. Nire etxeokak, eurak aukera andi barik biziko ziran, baiña euren seme edo anai bakarrarentzat nunbaitetik ataraten eben. Baten petroleoagaz kutsutako arroza ekarri eben lagundira. Ez eukan gauza andirik, eta nik neurea ta jan ezin eban lagunarena be jan neban.

Nik, etxeko laguntasun andia izanda be, angoa errez amaitzen baneban, zer esan laguntasun gitxi edo bat be ez eben urruneko gizajo askogaitik? Goseak arrakalaten egoten ziran. Eguerdian, lana lagateko ordua urreratzen zanean, begirik ez eutsen kentzen kaboari; ta onek txistua aora eroan orduko, laga atxur, pala edo erabilen tresnea, ta biderik laburrenetik, au da, edonundik, alkarrerri aurea ezin artuta, aringa-aringa joaten ziran, goian bageniarduan lanean mendian beruntz musturrak apurtu bearrean, bazkaria emoten zan tokira. Ta asko erdi batera elduten ziran; da, lerroan jarteko, bata lenago zala ta bestea lenago zala, bultz eta bultz ibiltzen ziran.

Ta dana, danoi bazkaria emotean ezer geratzen bazan, errengantxea artzeko.

Gu, aringa-aringa areik ikustean, barrez egoten gintzakiezan, eta iñoiz «*triperos*» didar batzuk egin be bai.



Geuk be euren narruan egon baginān, eurak lez jokatu bear!

Lenago esan dodan lez, lenengoan, ametralladoreentzat abiak egiten ibilten ginān Gaintxurizketa'n. Geroago, berago joanda, barraka batzuk egin genduzan Ilbistieta baserri aurrean; ez dakit gudarien edo gu lako langilleentzat bizi toki izango ziranak. Eta gaur Ilbistieta azpian ikusten dan beribil zarren illerrian dagoan elizatzxo erdi jausia be, orduan egin zan, gu andik joan eta laster.

## ARITXULEGI

Udabarri erdi inguruan, toki areik laga bearra izan genduan. Egun baten, geure maleta ta abar artuta, Oiartzun eta Lesaka bitartean dagoan mendi batera, Aritxulegi izenez ezagutzen dan tokira, eroan ginduezan. Edo zuzenago esateko, eroan ez; joan egin ginān, oiñez. Gaintxurizketa'-ko Arriaundi baserritik, Oiartzun'dik zear, mendi gain aretara amabi-ama-bost kilometro inguru egongo dira. Ordurarteko ibillaldirik luzeena izan zan.

Gain aretan, gu joan gināneko, txabola batzuk ba-egozala uste dot; baiña geiago bear ziran eta geuk egin genduzan. Bedarra egoan lurra pikotxagaz zatiak ebagi ta lur zati areik, ladrilluak ipinten diran lez, alkarren gainean ipiñi; neurkin bat edo geitxoagoko gorunzkoa emon eta, ojalatazko teillatua emonaz, eginda egoan. Lau-bost neurkin kubiko inguru eukiko zituan gure txaboleak bost-sei lagunentzat. Bizi toki landerragorik!

Uda a euritsua izan zan eta, bein udazkena urreratu zanean, gabaz otz egiten eban. Erdaldunak, denporeagaz, euren txabolak egokitzen alegindu ziran: gorunzkoa geitu, sua ipiñi ta abar. Kontixu, len be lur azpiko etxeen barri ba-ekien eta ez jaken ereizten ain txarra bizi toki a. Gu euskaldunok, ostera, ezin eta ardurabakoak ginān; ituxurak kentzeko be ez ginān. Lo gengozala, euri zaparradaren bat asi ta tak-tak ura baetorren barrura, burua mantaz estali ta lo. Gaurko kanpiñen antzera egozan gure itxurabako txabolak.

Aritxulegi'ko tunela egitea zan gure lana. Oiartzun'dik Lesaka'rako bide-zabala «trabajadorietakoak» egin eben. Gu joan baiño len eginda egoan Oiartzun'dik Aritxulegi'raiñokoa. Beste aldetik etorrena, Naparro aldetik egin bear ebena, ikusi be ez zan egiten.

Gain a Endaia'tik ikusten da, ta Prantzia'gaz gudea izan ezkerro txar-to egoala ta, beratxoago tunela egitea erabagi eben; eta tunel a egitera eroan ginduezan.

Gure lanak abiada andirik ez eban eroan. Lanean ez ginān geratzen eta lurra naikoa atara genduan; baiña ni an egon nintzan lau illabete inguruan, aterperik ez genduan egin; zerurik ez genduan ezkutau.

Lenengoan, beti lez, pikotxagaz lan egiten neban; gero bagoneteagaz lur karriaten. Bagoneta bakotxagaz lau edo bost lagun ibilten ginān. Zamauta, eun neurkingo bidean, apur bat beruntz eroaten zan gurdia, an mendian bera ustutzeko. Eroatea barik, geratzea izaten zan lana, abiada



andia artzen baeban geratu ezinda, burdin bidea amaitutakoan mendian bera iges egiten eban da. Egur andi bat burbillean ipiñi, egur gaiñean mutil astun bat edo bi jarri (exeri), ta besteok be aurka bultz egiñaz geratzen genduan gurdia.

Baten, lanera joan giñanean, gure lagun batzuk denporea apur bat luzatu eban; bi gengoan laneko tokian gure gurdikoak, eta ez indartsue-nak eta astunenak. Alan be, geuk bakarrik eroaten ete genduan asi egin bear giñala ta asi egin giñan gurdi beteagaz. Asi bagiñan, asi giñan! Urten orduko, gero ta abiada andiagoa artzen asi zan, eta gure alegin guztiak gora-bera ez zan geratu ta an joan zan mendian bera zalaparta bizian. Andik jasoten izaten ziran kontuak!

Kaboa etorri zan bereala ta zelan jazo zan itandu euskunean, egia esan geuntsan. Geu bakarrik gengoala ta eroango gendualakoan asi giñala, baiña ezin izan genduala geratu. Kaboa, gure aurka barik, palta ziranen aurka jarri zan; antxe egon bear zirala, lanari asierea emonda egoala ta. Ta andik laster sarjentoa etorri zanean, kaboak berak berba egin eban, palta ziranai errua jaurtiaz. Kaska-motz ulea ebagiteko zigorra emon eutsen.

Ni, ausartu be ez nintzan egiten eurai arpegi emoten, geure erruz, ez asmo txarrez, buru soil laga zituen da. Naiago neban neu be eurak lez laga banindun.

Baiña orduan nai baneban be, gero nai ez nebala ebagi eusten ulea.

Lenago be esan dodala uste dot. Ez genduzan agintari gaiztoak. Orratio, baten, zital antzeko sarjento barria etorri jakun, bere sudur-azpiko zorrotz eta guzti.

Gosaldu ta formautera joan artean ez zan prisanda andirik izaten, eta nai ebanak arpegia garbitzeko lain asti artzen eban. Sarjento barria etorri zanean, ni, gosaldu nebanean, beti lez arpegia garbitzen asi nintzan. Baiña berealako batean inguruko jendea ezkutau zan. Ta aringa-aringa joan nintzan formauteko tokira. Ni niñoian azken ta ia formauta egozan orduko, lerroan jarrita, eskuak aurrekoen lepoetara luzatuaz. Sarjentoa nigaz konturatu zan eta didarka asi jatan.

— *¿Qué: usted no lleva ninguna herramienta?*

Arrituta geratu nintzan itaun aregaz, ordurarte formaziñoira laneko tresnarik ez genduan eroaten da. Baiña egun aretan, zelan joan bear zan jakitun ipiñi eban jendea norbaitek, eta danak eskuetan palea, pikotxa edo zerbait tresna eukela egozan. Neu bakarrik esku utsik, ezer nire belarrira eldu ez zalako.

Zer erantzun ez nekiala geratu nintzan, eta barrero sarjentoak:

— *Bueno, a usted se le cortará el pelo al cero.*

Ta gero, formaziñoiko kontuak amaitu ziranen, nigaz egitekoa aztu barik, egiteko kaboari esan eutsan.

Ta alantxe, bereala bizar kentzeaillearengana joan eta buru soil geratzen nintzan.

Bein, eztabaida polita izan neban extremaduratar bategaz. Jostuna ei zan bizi-bidez; ikasi naikoa zan, baeukan kultura zaletasuna. An lagunak giñan. Bera be orduan bagoneta eroalea zan; eta egun baten, geroan gurdi arek zenbat zama eroaten ete eban jardunean asi giñan. Nik ez dakit zelan, neurkin kubikoaren iru laurdena aitatu genduan. Berak orduan, zabaleran, luzeran, eta goruntz neurkin iru laurden izan ezkerro, neurkin kubikoaren iru-laurden zala aren tokia esan eban. Nik ezetz. Baietz berak, ori argi egoala ta. Ziur-ziur nekian gauzea ukatzen eustanean, buruari esku biakaz elduta, olakorik ez esateko esaten neutsan eta lapitza eskatzen neban, iñok baeukan. Danak, ingurukoak jakiña, guri begira egoazan, «anjenierotako» sarjentoa be bai. Ez eban ezer esaten, baiña aren esanai fede geiago emoten eutsala uste dot, lojikoagoak zirudielako. Iñok ez eukan lapitzik eta nire lagun jostuna ez egoan niri entzuteko, lelokeriarik ez ebalako entzun nai, esaten ebanez. Ta argitu barik geratu zan auzia.

Aritxulegi'n egon giñan denporan, Tapia Mitxelena abizenak eukazan oiartzuar gazte bat eta Ondarrabia'n ango bategaz ezkonduko Ortiz abizeneko asturiar bat, lagundiko sua egiteko egurretan ibiltzen ziran.

Lenengoak ez ekian erderarik tautik be. «*Sí*» ta «*no*» esaten jakingo eban, baiña geiagorik ez dakit. Sekula erdal itzik, ezta bakar batik be, ez eban urten aren aotik.

Ortiz'ek ba-ekian euskera apur bat. Ta baten polita jazo jatan bera-gaz. Nik neure bizi guztian euskerea beste konturik ez dot izan, ta an be baten ba-nenbillen euskerea gaia aotan artuta zerbait esaten ango bat edo besteri. Ta zenbakiak zelan ziran irakasten nenbillela, «*cien*» «egun» zala esan neutsen. Ortiz a alboan egoan eta ezetz, «eun» esaten zala berak esan eban.

Nire uts arek ba-eukan edo ba-dauke bere azalpena. Ondarru'n geie-netan jan egiten dogu «g», ta olan «eun» itzak be uts ori izango ebalu uste neban.

Nire uts aregaz arrotu egin zan asturiarra, ta nik baiño geiago ekiala euskeraz esaten eban.

Ta, len eten dodan aria lotuaz, baten, bestetan lez basoan egurretan ebiltzala, jausita egoan zuzat zar bateri, lurrean sartuta eukan adar ondoa ebagiten asi zan Ortiz beko aldetik, eta ebagi eban zuzatza bilinbolaka gaiñera joan jakon eta bernatzakia ausi. Ez naz gomutaten zein aldetakoa.



Orduan, osagille ikasten egondako madritar gazte bat zan praktikantea; ta ol zatiak-eta loturik, alik-eta ondoen ipiñi eutsan, eta lau lagun-arten artean andan artuta eroan eben oiñez Oiartzun'era.

Lagundiko agintariak, sendagillea ta beste batzuk be bai, Oiartzun'en egoten ziran, eta Ortiz'ek miña zelan artu eban esan bear eutsan sendagilleari basoan bere laguna izan zan Tapiak. Baiña ez ekian erderaz, len esan dodanez, eta bitarteko edo interpretetzat neuri deitu eusten. Pozik jarri nintzan zeregin aretarako, bada gure batalloiko osagillea ondarrutarra edo erdi ondarrutarra zan, Arrasate itxas kapitanaren semea. Ta iñoiz Eduardo nitzaz berari berba eginda egoan. Beintzat, bein, ea zegaitik praktikante jarri nai ez neban Arrasate'k itandu eutsala, berak Eduardok esan eustan. Barriro be ba-diñot: pozik joan nintzan Oiartzun'era, ea zerbait on ataraten ete neban. Au da, mendiko lanari iges egiteko bidea egiten ete neban.

Lagundiko *Plana Mayor* deitzen geuntsan tokira eldu giñanean, apaltzen egozan gudari ofizialak; eta gure zaintzaille eroan genduan gudaria sartu zan, zetara giñoiazan esatera. Baiña Arrasate osagilleak ez eukan, guk geroan auziari jaramon andirik egiteko gogorik; eta, ezer esan barik, Aritxulegi'ra biurtu giñan. Bear bada, an kanpoan ondarrutar bat egoala bere zain jakin izan baleu, deituko euskun.

Gu langille batalloian sartu giñanean, alik-eta ariñen etxera joan gindezan lanean asi ziran gure sendikoak. Teodoro'ren arreba Maria Anjeles eta Eduardo'ren anaia Sebas'ek, donostiar bat lagun ebela, ostera bat baiño geiago egin eben komandantearengana. Oiñetako eder batzuk, botak, erregalau eutsezala be entzun neban bein. Baiña ez eben zuritu. Ondo artuko zituan komandanteak kontixu, ondo berba egin be bai, laster urtengo genduala ta itxaropena emonaz.

Baiña betiko ez egoan an iñor, eta geuri be etxera etorteko eguna eldu jakun. Nik uste dot, idazkaritzan egoan Ortega abizeneko irundar baten lana izan zala gu aske bialtzea. Ba-ekian gureak komandanteagaz berba eginda egozana, ta baten, geu be urten bear ebenen izen zerrendan sartu ginduzan. Olakoetan, batalloi guztia formaten giñan, eta aske urten bear ebenen izenak esaten zituen. Egun aretako izen zerrendan neu be tartekoa nintzala jakinda nengoan, baiña azken samar esan ninduen, da guzurra sakatu ete eusten be egon nintzan, neure izena entzun arte.

Nire batalloia beti ez zala bat izan uste dot. 1939'garren urtean Arizkun'era joateko egin zana ez dakit zein zan, baiña gero egon nintzana bai; ara itzez-itx zer ziñoian, aske etxera bialdu indunenean emon eusten agiriak:

«D. Victoriano Fernández Orio, Comandante de Infantería Y Jefe del Batallón DISCIPLINARIO núm. 87.

CERTIFICO

que JOSE MARIA ECHABURU ECHABURU, hijo de Ezequiel y de Prudencia, natural de Ondárroa, Provincia de Vizcaya, del reemplazo de 1933 (m), incorporado a este Batallón el cinco de Febrero de mil novecientos cuarenta,

.....marcha libertado en virtud de Orden número 19.267, Sección 1.<sup>a</sup>—2.<sup>o</sup> de fecha 11 de mayo de 1940 de la Inspección de Batallones de Trabajadores, fijando su residencia en Ondárroa, provincia de Vizcaya.

Y para que conste, expido la presente en RENTERIA, a veintitrés de Octubre de mil novecientos cuarenta».

Nik, azkenengo denpora areitan, praktikantearen txabolan lo egiten neban, botikiñean. Aurreratxoago madritar gazte bat izan zan praktikante; lenago edestu dodan Ortiz izeneko asturiarrak min artu ebanean be bai. Baiña ez dakit zegaitik, kendu egin eben, eta orduan Enkartaziñoietako bat egoan. Ta toki aretan birentzat egoan etzin tokia, ta neuri deitu eustan berari lagun egiteko.

Madritar a Errusia'n egondakoa zan, tankeak erabilten ikastera joanda. Ta berak esan eustanez, gorriak geiago ezin eutsita, Madrid Franco'ren eskuetan uzteko eratu zan Casado'ren Gobernua'ren aurka, ango kaleetan gudatu ei zan tankeagaz azkenengo une arte. Gaztea zan urtez, eta gogoz be bai. Alaia zan, berbalduna, neska zalea. Bera be, arpegiz, edozein neska baizen polita zan. Ez eban gizonezkoaren arpegirik, emakumearena baiño. Errusitar berbetea apur bat ekian, edo ekiala esaten eban; eta berak niri axe irakatsiko eustala ta nik berari euskerea, bein baiño geiagotan alkarrei esan geuntsan.

Bestea, orduan praktikante egoana, Enkartaziñoietakoa zan; Bizente izenez. Ixil-ixilla zan, apala, zintzoa. Komunistea zan eta, España gudaren baten sartu ta beste aldean errusitar gudarozterik arkitzen bazan, bera areingana igaroko zala esan eustan. Ama asmo orren jakitun ipiñita eukala.

Ordutik gitxienez amabost urtera, ikusi neban baten bultzian. Neu beragaz konturatu nintzan arte, ez zan ausartu niri arpegi emoten. Errenderia'ko bategaz ezkondata egoala esan eustan, eta andrearen errian bizi zala. Bere emaztea euskalduna ta eliztarra bada, zerbait aldatuta egon leitekete.

Etxera aske urten bear neban aurreguneko gabea, despeida txiki bat, al nebana, egin nai izan neban neure lagunakaz. Oraindik gaztai bi banekuzan etxetik bialduta. Beste zerbait be egon citekean. Ta ogia ta



ardaua erosi ta antxe, botikiñean, egin genduan adiskide arteko azken jatordua.

Orduko nire lagunak, len aitaturako praktikante biak, Bilbo aldeko len aitatu dodan Josetxu ta besteren bat ziran. Danak gorri-gorriak; eurak eta ni, politika eretxietan guztiz desbardiñak izan arren, adiskideak giñan.

## ETXERA

Biamonean, goizean goiz, oiñez urten genduan Errenderia arte. An *Plana Mayor*eko inguru baten formau giñan; eta komandanteak, danon izenak irakurriaz, askatasuna emon euskun.

Eduardo be etxerako zan, eta aldi bateko Errenderia'ko tranbia zurietako baten sartu ta Donostia'ra joan giñan. Bidean ez zan ixildu abestuten Eduardo. Burgos'era txapel okerrakaz giñoiazanean abestuten joan bazan, ez zan arritzekoa aske giñoiazala abestia ta alaitasuna gaiñezka izatea. Tranbiako jendeak igarri euskun aske giñoiazana, ta euren itaunari, baietz, alantxe zala esan geuntsanean, zoriondu egin ginduezan.

Donostia'ra eldu nintzanean, ixiko Prantziska'nera joan nintzan. Antxe egon nintzan arratsaldera arte; eta amari ez gaztigatzeko esan neutsan Mertzedes'eri.

Bat-batean, ezer ez ekiela, sartu nai neban etxean. Arratsaldeko sei-rak ogei gitxiagotako bultzian urten neban Donostia'tik, Ondarru'ra zazpi t'erdietan eltzeko. Gaba eginda egoan orduko, ta iñok ikusi edo ezagutu barik etxera eldu nintzan.

Komeria txiki bat egin nai neutsan amari. Atea jo neban eta amak berak iragi eustan. An ate ondoan erdi illun egoan eta, abotsa be-beian ipiñita, olan itandu neutsan:

— *¿Aquí vive José María Etxaburu?*

— *Eh!* —egin eban, «Zer itaun da ori?» esan nai baeban lez.

Baiña bereala ezagutu ninduan eta txilio andi bat egin eban, eta auzoko guztiak, goikoak eta albokoak, zer jazo ete zan ikaratuta, euren ateetara urten eben.

— Oi, Jose Mari etorri da!

Ta bereala etxe guztia auzokoz bete zan. Eta dana zan besarkatzea ta nire ama zoriondutea, ainbat bidar aitaturako semea, lau urtean beragaitik ainbat kezka izan eta negar egin eban bost alabaren arteko seme bakar maitea, etxeratu jakolako.

ETXABURU ETXABURU'TAR JOSE MARI  
Ondarru'n, 1963'garren urtean idatzitakoa